ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-11-17
ASTELEHENA
474. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS

TOKIKOM

IMANOL SORIANO

Goikobaluk bete egin du Amaia antzokia

'Carmina Burana' obrarekin ospatu dituzte abesbatzaren zilarrezko ezteiak | 31

Javier Sotil bergararra izango da Mondragoneko presidente | 5

Jendetza batu nahi du berriz Gure Esku Dagok | 5

Rebeka Ubera Aralarko idazkari nagusi izendatu dute | 5

Azken agurra egingo diote Jul Bolinagari bihar

Bolinaga zapatuan, gaztetxean. | BURRUNDAYE

Bat-batean hil zen zapatuan Bergarako gaztetxeko agertokian jotzen ari zela

Bergarako Txapa irrati librearen 30. urtemugako ospakizun festan ziharduen, The Potes taldearekin. RIPeko gitarrista arrasatearraren heriotzak atsekabea ekarri du asteburuan. Bihar, martitzena, azken agurra egingo diote senide eta lagunek Arrasateko Monterron parkean, 18:00etan. | 28

Mushing-a indarra hartzen ari da | 22

Txakurra beti aurretik, korrikalari bat domekan, Gorlako mushing proban.

JOSETXO ARANTZABAL

Jaurlaritzarekin batzartuko dira Candyko langileak eguaztenean

Barikuan, ordea, berriz bilduko dira enpresako zuzendaritzarekin | 7

Hondakinen bilketa sistema berrira ohitzeko bulego ibiltariak

Auzoz auzoko kanpaina egingo dute Arrasaten informazioa zabalduz | 14

SINADURAK

AINHOA VITORIA | 9

9 | XABIER URZELAI
OIHAN ZUBIZARRETA | 14

17 | MARIA JESUS UGALDE
AINHOA NEGERUELA| 18

19 | MIKEL ARROIABE
IMANOL GALLEGO | 37

40 | IXIDOR SOLUPE

Eskoriatzako Udalari esker
Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak
Manuel Muñoz kiroldegia. Eskoriatza
Azaroaren 22an, zapatua, 17:30ean.

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [Katxiporreta] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com **WhatsApp:** KLUBA [Katxiporreta] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari esker
'La rosa del azafran' zarzuela egun hauetan ikusteko sarrerak
Amaia Antzokia. Arrasate.
Azaroaren 23an, domeka, 19:30ean.
Azaroaren 28an, egubakoitza, 20:00etan.

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [Zarzuela] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com **WhatsApp:** KLUBA [Zarzuela] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 | ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 28 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ON EGIN 35 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | ESKELAK 39

Mailegu digitala errealitate laster, EAEko Liburutegi Publikoen Sarean

- Liburuak formatu digitalean, azaroaren bukaeran
- Guztira 7.000 titulu ipiniko dituzte eskuragarri

Erabiltzailea liburu elektroniko irakurgailu batekin Arrasateko bibliotekan. | MIREN ARREGI

MIREN ARREGI | ARRASATE

Aldaketa dator gure liburutegietara, liburuak formatu digitalean maileguan hartzeko aukera gain-gainean baitago. Hain zuzen ere, hilabete honen bukaeran, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak EAEko Liburutegi Publikoen Sarearen bitartez, mailegu digitala ipiniko du martxan.

Horretarako, euskal argitaletxeekin lehenik eta Espainiakoekin ondoren, hainbat kontu adostu behar izan du Jaurlaritzak eta luze jo du prozesuak. Eskaintzan askotariko liburuak egongo dira, nahiz eta hasieran hainbaten falta sumatu daitekeen: "7.000 izenburutik gora aukeratu ditugu, eta argitaletxez argitaletxe harremanak egin behar direnez, ez dakigu zehatz hasierako kopurua zenbatekoa izango den", dio Arrasateko Liburutegiko arduradun Mertxe Perez de Cirizak. "Aukeratutakoak irakurgai egongo dira, ez bada lehenengo momentuan beranduago, egunero kargak egiten dabiltza-eta", gaineratu du.

Argitaletxeen muga

Liburuen eskaintzari dagokionean, denetarik egotea espero da, baina argitaletxeek dute muga, izan ere, momentuz ez dituzte liburu guztiak formatu digitalean eskaintzen. Nobedadeak ere egongo dira, eta erronka da euskaraz argitaratuta dagoen gehiena modu digitalean eskaintzea: "Euskarazko liburuei dagokionez, baina, une honetan, argitaletxeen eskaintza ez da oso zabala", dio bibliotekako arduradun Perez de Cirizak.

Deskargak modu errazean

www.liburuklik.euskadi.net web orritik egin ahal izango dira deskargak. PC edo Mac-ean deskargatzeko aukera izango da, baina, Adobe Digital Editions programa instalatu beharko da aurretik. Formatu digitalean egongo diren liburuak irakurri ahalko dira liburu elektroniko irakurgailuetan, tabletean, ordenagailuan edota mugikorrean. Mugikorretan irakurri ahal izateko, baina, Blufire izeneko programa deskargatu beharko da.

Deskargak Epub formatuan egingo dira. Hala, Kindle gailuak izan ezik, beste irakurgailu guztiak erabili ahalko dira liburuak irakurtzeko.

Lizentziak eta maileguak

Lizentzia bidez eskuratuko dituzte liburutegiek gero formatu digitalean maileguan ipiniko dituzten liburuak. Lizentzia bakoitzak hogei mailegu edo deskarga egiteko aukera emango du eta hala, lizentziek hogei deskarga horiek egin arte iraungo dute. Alegia, ez dute denbora mugatzen –Espainiako lizentziak ez bezala, izan ere, haiek iraungi egiten dira urte beteren buruan, nahiz eta hogei deskarga ez egin–: "Gutxi irakurtzen den liburu baten lizentziak urteak iraun ditzake; asko irakurtzen den liburu baten kasuan, hilabete batzuetan agortuko da", dio Perez de Cirizak. Horrek ez du esan gura liburu hori formatu digitalean irakurtzeko aukera hor bukatuko denik, izan ere, lizentziak agortu ahala, joango dira horiek berritzen. Maileguak edo deskargak 21 egunerako egingo dira eta behin egun horiek pasatuta, desagertu egingo da liburua gailu elektronikotik. Beste erreserbarik ez badute, berriro hartu ahal izango dira maileguan.

Plataforma berria

Eusko Jaurlaritzako eta EAEko hamaika liburutegitako ordezkariek osatutako lantalde batek sortu du deskargak egiteko plataforma. Hala, *www.liburuklik.euskadi.net* webgunetik jaitsi ahalko ditu erabiltzaileak bere telefono mugikor, liburu elektroniko irakurgailu, tablet edo ordenagailu bitartez maileguan egongo diren liburuak.

Erabilerraza

Erabiltzaile bakoitzak bere pasahitzarekin hartu ahal izango ditu liburuak: "Plataforma erabilerraza da, baina, formazio lana egin behar izatea aurreikusten dugu. Ez horrenbeste gazteen kasuan, baizik eta helduagoenetan", dio Mertxe Perez de Cirizak. Iritzi berekoa da Elgetako liburuzain Geaxi Ezpeleta ere, izan ere, haren ustez, "jaisteko prozesua erraza" da eta behin lehenengoa eginda beste guztiak egiteko arazorik ez da egongo.

Formatu digitalean irakurtzeko ohiturarik ez dutenek, bestetik, dagoeneko egin ditzakete probak liburutegian bertan, izan ere, liburu elektroniko irakurgailuak aspaldi daude Debagoieneko liburutegietan, erabiltzailearen zerbitzura.

Egile eskubideen kanonak, EAEko liburutegietan ere eragingo du

Ez da liburu bilduma digitala Liburutegi Publikoen Sarean egingo den aldaketa bakarra, izan ere, abuztuan onartu zuen Espainiako Gobernuak, liburutegi publikoak erregistratutako erabiltzaileengatik eta mailegatutako liburuengatik tasa bat ordaintzera behartzen dituen dekretua. Hau da, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, liburutegi publikoek kanon bat ordaindu beharko diete egile edo editore-elkarteei zentro bakoitzean maileguz utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko.

Neurriak eragina izango du EAEko liburutegietan eta liburuzainak beldur dira tasa hori ordaindu beharrarekin, liburuak erosteko kopurua jaitsiko ote den. Eusko Jaurlaritzak, liburutegi publikoekin negoziatuko du, egile eskubideen inguruko kanon ordainketen eragina leuntzen saiatzeko. Kultura sailak dio kanona "oso une txarrean" iritsi dela, hain zuzen ere, liburuak erosteko liburutegiendako dirua beherantz doanean. Hala ere, diote ez dela EAEn kasua, 2013an 680.000 euro bideratu baitziren liburuak erostera eta 2014an, 820.000. Datorren urtean ere kopurua handituko dela diote.

DATUA

270.000
EURO
Zerbitzuaren kostu osoa Eusko Jaurlaritzak hartu du bere gain. 2014an, 270.000 euro bideratu dira mailegu digitalaren zerbitzua martxan ipintzera.

7.000
TITULU
7.000 titulutik gora ipiniko dituzte eskuragarri liburutegi publikoetan. Baliteke hasieran denak ez egotea, baina laster eskuragarri egongo dira guztiak.

20
MAILEGU
Lizentzia bakoitzak emango du hogei mailegu edo deskarga egiteko aukera. Hogei deskarga, EAEko liburutegi publiko guztiak kontutan izanda.

Euskarri bietan

Helburua ez da, liburuak soilik formatu digitalean eskaintzea, "bietan baizik". Izan ere, "bibliotekek ez dute papera baztertuko, digitala eta papera uztartuko dira", dio Perez de Cirizak. Dena den, gaineratu du, badagoela ahaztu ezin den zerbait: liburutegiak aurrekontu baten menpe daudela eta horrek markatzen duela euren funtsa.

Erraztasuna eta azkartasuna

Mailegu digitalak eskaintza zabaltzea ekarriko du, baina, bereziki ekarriko du liburuak irakurtzeko erraztasuna eta azkartasuna. "Orain formatu horretan irakurtzen duenak jarraituko du horrela egiten. Kopia piratak jaisten dituen jendea pasatuko da liburutegiko funtsa erabiltzera", dio Geaxi Ezpeletak, Elgetako Liburutegiko arduradunak. Izan ere, helburuak jarraitzen du izaten betikoa: jendea erakartzea eta erabiltzaile potentzialak erabiltzaile erreal bihurtzea. Bide horretan, aukera handiak eskaintzen ditu formatu digitalak Geaxi Ezpeleta Elgetako liburuzainaren ustez: "12 eta 16 urte bitartekoendako eskaintza egiten bada formatu digitalean, adin horretako erabiltzaile kopurua hazi egingo da".

Erabiltzaileen eskariz

Funts digitala handitzen joango da argitaletxeek eskaintzak egin ahala eta beraz, egun gutxi batzuk barru martxan ipiniko dena, haziz joango da. Bilduma osatze horretan, erabiltzaile eta herritarrek ere izango dute zeresana, izan ere, beti bezala, erabiltzaileen eskaerak eta iradokizunak kontutan hartuko dira.

IMANOL BELOKI

MERTXE PEREZ DE CIRIZA
ARRASATEKO BIBLIOTEKAKO ARDURADUNA

"Eredu berritzailea sortu da mailegu digitalaren zerbitzua antolatzeko"

Arrasateko Bibliotekako arduraduna da Mertxe Perez de Ciriza; EAEko Liburutei Publikoen sarean mailegu digitala martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzan sortu den lantaldeko kideetako bat.

Zein izan da lantalde horren funtzioa?

Mailegu digitalaren zerbitzua antolatzen laguntzea eta liburuak aukeratzea. Liburuak jaitsi ahal izateko plataforma ere sortu dugu.

Lan konplikatua?

Konplikatua ez da hitz egokiena; zailtasunak bai izan ditugu, izan ere, ez zegoen gure gustuko eredurik eta berri bat sortu behar izan dugu.

Beraz, plataforma berria eta berritzailea da erabat.

Bai. Egon badaude beste plataforma batzuk, baina horien baldintzak ez dira batere onargarriak; alegia, eskaintza itxia egiten dute eta gainera prezio garestian. Sortu berri dugun ereduan gu gara irakurtzeko eskaintza aukeratzen dugunak. Alde horretatik askatasun handiagoa dugu. Beste ereduek helburu komertzialak dituzte eta hori ez zen guretzat onargarria.

Zenbat denbora eman duzue lanean?

Azkenengo urtean egin dugu lan handiena. Iaz hasi ginen bilerak egiten baina aurten eman dugu pausu definitiboa. Liburutegi handiak, ertainak eta txikiak gaude lantaldean; guztira hamaika.

Talde horrek izango du hemendik aurrera ere, liburutegien funtsean modu digitalean egongo diren liburuak aukeratzeko ardura?

Liburutegi bakoitzak egin ahalko ditu bere eskaerak, irakurleen nahiaren arabera. Alegia, funtsa ez da bakarrik profesionalen aukeraketaz osatzen, erabiltzaileen eskaerak eta iradokizunak ere kontutan hartzen dira eskuratzeak egiteko.

Etorkizunera begira, zein da helburua?

Liburutegien helburuak jarraituko du berdina izaten. Alegia, irakurketa erraztea eta herritarrengana hurbiltzea.

Irakurzaletasuna bultzatzen jarraitzea?

Askotan ahaztu egiten bagara ere, ezinbestekoa da formaziorako, informaziorako eta adimenaren garapenerako. Guk garbi daukagu, eskaintza digitalean izatea formatu kontua besterik ez dela, eta benetan inporta duena mezua edo edukia dela.

Goiena Klubeko azaroko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

EROSKI

Tableta

9" hazbeteko Edertix tableta
Parte hartzeko sariaren izena:
Tableta

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra

ARRIKRUTZ
oñatiko obak

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz

elkar

Jokoak
Nairobitarra jokoa, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Nairobitarra

elkar

Jokoak
Kirolaz Badakit jokoa, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Kirolaz

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

"Oso erronka erakargarria da Mondragon eraldatzea"

Javier Sotil izendatu dute Mondragoneko presidente

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Javier Sotil (Bergara, 1951) izendatu dute Mondragoneko presidente. Batzorde Kudeatzaileak proposatu zuen barikuan egindako batzarrean; beraz ,bergararrak gidatuko du Mondragonek datozen urteetan izango duen bilakaera.

Sotilen izendapenarekin, bestalde, Batzorde Kudeatzailearen zeregina amaitutzat jotzen da. Izan ere, Fagor Etxetresnen krisiaren ostean, otsailean dimisioa eman zuen orduko presidente Txema Gisasolak eta lau lagunez osatutako Batzorde Kudeatzaile batek gidatu du taldea gaur egun arte: Mondragoneko Finantza Arloko Txomin Garciak, Banaketa Arloko Agustin Markaidek, Korporazioko Industria Arloko Xabier Mutuberriak eta Javier Sotilek berak, lehendakariorde moduan.

Sotil ilusio handiz agertu da erronkaren aurrean: "Uste dut oso erronka anbiziotsua eta erakargarria dela, hau da, Mondragon eraldatzea, oraingo eta etorkizuneko agertokiaren desafioei egokiago erantzuteko", esan du. Eta gehitu du: "Ohartuta nago egoera globala zalantzaz betea dagoela, eta horrek arazoak eragiten dituela gure kooperatiben negozioetarako, baina erabateko konfiantza daukat gure pertsonen taldearengan, gure proiektuan, eta gure eredu kooperatiboaren onura lehiakorretan", gaineratu du.

Kongresua, abenduaren 15ean

Korporaziotik jakinarazi dutenez, Sotili "kargu berrian egokitu zaion lehen mugarria izango da organo korporatiboek azken hilabeteetan egin den eta Etorkizuneko Mondragon proiektuarekin burutu den hausnarketa 2014ko Kongresuan aurkeztea". Kongresu hori abenduaren 15ean izango da eta "Kontseilu Orokorreko lehendakari berriak Korporazioaren hausnarketa eta etorkizunari begira dauden oinarrizko lan ildoak azalduko ditu", korporaziotik gehitu dutenez.

Era berean, kongresu horretan berretsi beharko dute kooperatibetako ordezkariek Sotilen izendapena.

Javier Sotil. | GOIENA

Historikoetako bat

Ikasketaz injinerua, Korporazioko Industria Arloko lehendakariordea da gaur egun Javier Sotil. Berrikuntza, Sustapena eta Jakintza alorrak dira bere ardurak eta bost urtez ibili da zeregin horretan. Baina atzera eginez gero, kooperatibetako historikoetako bat da; 38 urte eman ditu Mondragoeko kooperatibetan lanean.

Ulman, Imprecin, Fagor Etxetresnetan zuzendaritzako lanak bete ditu, LKSko zuzendari nagusi izan da eta baita Mondragon Taldeko Injinerutza eta Enpresa eta Hezkuntza sailetako zuzendari nagusia ere.

Nazioarteko merkatuen garapenean eskarmentuko enpresaria da, baita negozio berrien sustapenean ere. ISEA, Mondragon Health eta Mondragon Ekoko bultzagile eta arduradun izan da. Gaur egun, MUko eta Garaia Ikerkuntza Guneko presidentea da, eta baita taldeko kooperatibetako hainbat kontseilu errektoretako kide ere.

Rebeka Ubera: "Ausardiaz jokatu behar dugu koalizio hutsetik harago joateko"

Elgetarra idazkari nagusi izendatu zuten zapatuan Aralarko militanteek

M.B. | BERGARA

Ekosozialismoa eta Independentzia izenburuko VI. kongresua egin du Aralarrek azken bi asteburuetan. Lehen asteburuan Ponentzia Politikoari eta Estatutuen Ponentziari militanteek egindako zuzenketak eztabaidatu zituzten. Zapatu honetan, berriz, zuzendaritza berria aukeratu dute militanteek Iruñean egindako batzarrean. Rebeka Ubera elgetarra idazkari nagusi izendatu zuten %85,7ko babesarekin eta orain arteko koordinatzailea, Patxi Zabaleta, ohorezko presidente izatera pasa zen, %89,5ek hala erabakita.

Rebeka Ubera elgetarra. | GOIENA

Izendatua izan ondoren Uberak honakoa esan zuen: "Momentu politiko garrantzitsu hauetan, inoiz baino gertuago gaude Aralarrek bere sorreran zuen amets eta helburutik, Ezker Abertzale zibil eta zabala gauzatzetik". Eta gaineratu zuen: "Ausardiaz eta eskuzabaltasunez jokatu behar dugu, Euskal Herrian gehiengoa den herritar aurrerakoi, ezkertiar eta abertzalea batzeko, egituratzeko eta dinamizatzeko. Alderdien koalizio hutsetik harago joateko". Era berean, euskal gizarteak ezker zabal, anitz eta sendoa behar duela azpimarratu zuen. "Egitura demokratikoak, parte hartzaileak eta erabakigarriak izango dituena. Hori delako berme bakarra Euskal Herri independente eta burujabea lortzeko".

Rebeka Uberarekin batera, zuzendaritza osatuko duten militanteak honakoak izatea erabaki zuten aralarkideek: Ainhoa Beola, Asun Fernandez de Garaialde, Jon Iñarritu, Nekane Perez, Maite Sarasua, Rikardo Otxoa, Aitor Zaldua eta Aser Lertxundi.

Fikoban egindako ekitaldia. | GOIENA

Hautestontzi erraldoiak irudikatu nahi ditu Gure Esku Dagok ekainean

M.B. | BERGARA

Gure Esku Dagok lanean jarraitzen du eta zapatuan Irunen egindako ekitaldian aurrera begira dituzten asmoen berri eman zuten. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotu zituen giza katearen ondotik, jendetza batu nahi duen beste ekintza bat egingo dute, "herri honetako borondate ororen topagune" izango dena. Bada, topagune hori, hautestontzi moduan irudikatuko dute ekainaren 20an. Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eraikiko dituzte hautestontzi erraldoiak eta horien oinarria, "milaka herritarrek pertsonalizatutako oihal zatiak" izango dira: "Bateko eta besteko herritarren borondateak daramatzaten oihal zati horiek elkarri josi eta kolore guztietako hautestontziak eraikiko ditugu, erabaki ahal izateko ezinbestekoa delako borondate ororen topagunea eraikitzea", esan zuten. Herritar bakoitzak oihal zati bat hartu eta hura pertsonalizatuz hasiko du bidea. Ondoren, auzo eta herrietan josiko dituzte lortutakoak, apirilaren 25ean, Ehuntzen egunean. "Herri borondatearen jostunak izango gara", esan zuten.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI

KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika

Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

2014ko txostena aurkeztu du Unesco Etxeak Garaian

Giza aurrerapenen eta erresilientziaren gainekoa da txostena, eta eguaztenean egingo dute ekitaldia

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Giza Garapenari Buruzko 2014ko txostena aurkeztuko dute datorren eguaztenean, azaroaren 19an, Unesco Etxeak eta Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Mondragon Unibertsitatearen laguntzarekin. Arrasaten, Garaia berrikuntza gunean, izango da ekitaldia, 10:00etatik 11:30era bitartean.

Aurtengo txostenaren gaia da *Giza aurrerapenak iraunarazi: kalteberatasunak murriztu eta erresilientzia eraikitzea*. Eta, hain zuzen ere, aurkezpenean hauek izango dira: Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Jon Altuna, Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa; Maider Maraña, Unesco Etxeko programen koordinatzailea; eta Leire Uriarte, Mondragon Unibertsitatearen lankidetza arloko irakaslea eta Ekonomia Solidarioko masterrean irakaslea.

Eguenean Getxon

Unesco Etxea 1991n sortu zen eta Unesco (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzea du helburu. Bakearen kulturaren eta eskubideak eta erantzukizunak dituen giza garapen iraunkorraren alde egiten du lan: "Pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza eta kultura komunitateak eta herriak kontuan hartuko dituen mundu baten alde lan egiten dugu, guztion artean hiritartasun demokratiko globala eraikitzeko", diote.

2014an landutako txostena Arrasaten aurkeztuko dute aurten, eta hurrengo egunean, azaroaren 20an, Getxon elkartuko dira. Garapenean aditu diren hainbat lagunen analisiak entzungo dituzte lehenengo; besteak beste, izango dira Alfonso Dubois garapenean eta pobrezian aditua (EHU) eta Javier Vitoria teologoa eta EDE Fundazioaren lehendakaria. Eta eztabaidarako tartea izango da gero.

Xaloa telebistari esker leiho berria izango du euskarak Nafarroan

50.000 euro batu behar dituzte horretarako; 'crowdfunding' bidez egingo dute

J. BEREZIBAR/M. ALTUBE | ARRASATE

Euskarak eta tokiko euskal informazioak leiho berria izango dute Nafarroan. Xaloa telebistak, Tokikomeko kide denak, lizentzia eskuratu zuen iaz Iruñerrian emititzeko, eta urte amaieran hasteko asmoa dute.

Euskaltzaleen Topagunearen esanetan, Iruñerriko euskaldunek "ikus-entzunezkoen alorrean bizi duten hutsunea betetzera" dator euskara hutsean izango den telebista. Topaguneak hasieratik hartu du bere gain proiektua euskalgintzako beste eragileekin konpartitzeko ardura, eta erantzuna oso positiboa izan da, haien esanetan. Horren adierazgarri da aurkezpen ekitaldian izan zen ordezkaritza zabala: Joseba Igerabide telebistaren arduraduna, Euskaltzaleen Topaguneko Oskar Zapata, Tokikomeko presidente Urko Aristi eta Udalbiltzako Maite Iturre.

Joan den egueneko aurkezpenean elkartutakoak. | XALOA

Aurrerapauso handia

Xaloa telebistak 1997a ezkero dihardu Baztan-Bertizarana-Malerrekan, eta Goiena kide den euskarazko tokiko hedabideen sareko kide da. Orain, "jauzi kualitatiboa" egingo dute, Iruñerrian ere emititzen hasita. Telebistarendako ez ezik, Iruñerriko gizartearentzat ere aurrerapauso handia izango dela euskarazko telebistaren sorrera iragarri dute: "Inguru urbanoetako toki komunikabideek eragin handia izan dezakete, publikoarengan zein inguruko beste tokiko hedabideetan, eta guretzat funtsezkoa da hiriburuetan toki komunikabide sare ahalik eta osatuenak izatea", zioen Aristik aurkezpenean.

50.000 euro 40 egunean

Berebiziko erronka dute aurrez aurre Xaloakoek. Izan ere, lanean hasteko hainbat inbertsio egin behar dituzte tresnerian. Garrantzitsuena multiplex emisorea da. Gailu horrek seinale digitala igortzen du eta Xaloak ez ezik, lizentzia lortu duten Hamaika eta Abian telebistek ere erabili ahal izango dute. Horrekin batera, bi errepikagailu ezarri behar ditu.

Azpiegitura horren guztiaren kostua 50.000 euro da, eta hori finantzatzeko *crowdfunding* edo diru bilketa kanpaina abiatu dute. *Karena.eu* plataforma euskaldunaren bitartez egingo dute. 40 egun baino gutxiago dituzte 50.000 euro horiek batzeko, eta kopuru horretara iritsi ezean egitasmoa bertan behera geratuko litzatekeela diote. "Ahalegin handia da", esan dute antolatzaileek, "baina trukean euskararentzako esparru zabal eta garrantzitsua irekitzea ahalbidetuko du".

ESANAK

"Funtsezkoa da komunikabide sare osatuak izatea"

URKO ARISTI | TOKIKOM

Inazio Rodriguez | Goiena Aseguru Artekaritza

"Abilidadean sartu gabe, gidari zuhurragoak dira emakumeak"

Inazio Rodriguez. | MIREN ARREGI

M. ARREGI/M.ALTUBE | ARRASATE

Euskal errepideetan 1993. eta 2013. urteen artean erregistratutako istripuen gaineko datuak aztertu ditu Trafiko Zuzendaritzak, eta *Bide segurtasuna eta generoa* txostenean jaso. Datuek diote gizonek (% 72) emakumeek (%28) baino istripu gehiago dituztela, eta larriagoak, gainera. Goiena Artekaritza Etxeko Inazio Rodriguez bat dator.

Uste populartra da emakumeek okerrago gidatzen dutela...

Bai, baina ni ez nago konforme. Estatistikek, hain zuzen, gezurtatu egiten dute hori. Autoa gidatzeko orduan duten abilidadean sartu gabe, emakumeak askoz zuhurragoak direla diote azterketa guztiek.

1993tik gaur arte emakume gidarien kopurua asko hazi da, ezta?

Bai, eta, horren ondorioz, gizonek eta emakumeek dituzten istripu kopuruen arteko alde hori murriztu egin da. Hala ere, oraindik handia da diferentzia; zerikusia izan dezakete motorren eta motozikleten istripuen datuek. Motorrean ibiltzen direnak, batez ere, gizonak dira.

Istripu larriagoak izaten dituztela gizonek ere badio txostenak.

Aseguru etxeek definituta dute istripu gehien izaten dutenen profila: 18 eta 28 urte arteko gidaria, oraindik bi urte ez dituena egin gidabaimenarekin eta zaldi potentzia handiko autoa duena. Eta gizona. Istripurik larrienak haiek izaten dituzte.

Aseguruak kontratatzerakoan aldea dago gizonen eta emakumeen prezioetan?

Estatistikak hartzen dituzte oinarri aseguru etxeek, eta, hala, profil arriskutsuenendako garestiagoak dira tasak.

Hala ere, orokorrean jaitsi egin da istripu kopurua.

Bai; zirkulazio araudia aldatu egin zuten orain dela hiru bat urte, eta horrek eragin du. Kanpainek ere beti laguntzen dute kontzientzia hartzen.

Bost kide berriri ongietorria eginda egin du ohiko batzarra Jakiundek

M.A./M.T. | BERGARA

Jakiunde akademiako kideak Bergarako Olaso dorrean bildu ziren joan den egubakoitzean, ohiko batzarra egin eta bost kide berri izendatzeko. Hona kide horiek: Maria Teresa del Valle, antropologoa; Concepcion de la Rua, biologoa; Maria Teresa Telleria, botanikan aditua; eta Itziar Laka eta Ibon Sarasola, hizkuntzalariak.

Horrenbestez, bikaintasunezko diziplina anitzeko pentsamendurako foro bat bezala finkatu dela Jakiunde jakinarazi dute, euskal gizarteak pairatzen dituen gaur eguneko arazoei erantzun egokiak bilatzeko asmoz sustatua.

Jesus Mari Ugalde akademiako presidenteak Bergarako Lazpiur enpresa izan zuen ardatz aurkezpenean. Enpresaren ibilbidean ezagutzak izandako garrantzia azpimarratu zuen, eta esan haren arrakasta berrikuntzari lotua izan dela beti. Jose Luis Larrea kideak, ostera, berrikuntzaren ekosistemaren gakoak aipatu zituen: balioak, teknologia, ezagutza, denboraren gestioa, kooperazioa eta lidergo kooperatiboa.

Azken ekimenak aztertu zituzten, eta ikasleen kezka intelektualei erantzuteko laster abian jarriko duten *Jakin-Mina* egitasmoaren berri eman.

Bergaran, egubakoitzean, elkartutako Jakiundeko kideak. | GOIENA

Udalbatzak lanpostuak mantentzearen aldeko mozioa aho batez onartu du

Asteon Eusko Jaurlaritzarekin batzartuko dira Candyko langileak

MIREN ARREGI/ A.E. | BERGARA

Eguen arratsaldean egindako ezohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuten Bergarako Udalbatza osatzen duten alderdiek Candyko langileek aurkeztutako mozioa. Candyk Bergaran duen lantegiko industria-jardueraren alde agertu da udalbatza, baita lanpostu guztiak mantentzearen alde ere. Era berean, "multinazionalak hartu duen erabakiarekiko desadostasuna" ere agertu dute alderdiek. Udalak, bestalde, ez du "Candyren lurren birkalifikazioa onartuko alderdi sozialaren adostasun barik".

Jaione Isazelaia alkateak elkartasuna ez ezik, babesa ere eskaini zien langileei; eta, adierazi zien, orain arte bezala harremanetan jarraituko dutela. Gaineratu zuen, instituzioen arteko lantalde bat sortzeko deia egin dutela guztiek norabide berean lan egin dezaten: "Gurako genuke, gainera, Candyren zuzendaritzak ere ildo hori jorratuko balu", esan zuen. Momentuz Foru Aldundiarekin eta langileekin berbetan dihardutela adierazi du Isazelaiak eta Candyren zuzendaritzarekin ere egon direla: "Oraingoz ez dago estrategia bateraturik baina hori lantzen saiatu beharko gara". Gaineratu zuen helburua lantegia ez ixtea dela: "Birkolokatzeak, ikastaroak... Hori guztia ez da baztertzen baina helburua, leloak esaten duen moduan, Candy ez ixtea da".

Eguenean egin zuten manifestazioan herritar askok erakutsi zieten babesa Candyko langileei. | MIREN ARREGI

Aintzane Oiarbidek ere elkartasun hitzak helarazi zizkien Candyko langileei eta baita PSE-EEko Mari Carmen Barrenetxeak ere. Lantegiaren itxieraren harira Bergarako Ezker Anitza IUk eta Euskal Herria Sozialistak taldeak ere elkartasuna adierazi diete langileei ohar bidez.

Zuzendaritzarekin batzarra

Eguenean Candyko zuzendaritzak eta langileek batzarra egin zuten. Sergio Talamazzi Candy Hooverreko industria zuzendaria, Aitziber Herrero Giza baliabideetako zuzendaria eta Garrigues Walker bufeteko abokatuak izan ziren batzarrean, Candyko langileekin batera. Zuzendaritzak berretsi zien Bergarako planta ez dela bideragarria. Zuzendaritzak aurkeztu dituen datuen arabera, azkeneko 3 urteetan 60 bat milioi euro galdu ditu Candy taldeak. Hori da Ramon Romero Candyko langileen batzarreko presidenteak azaldutakoa. "Taldearen bideragarritasun plana egin dutela diote, eta plan horren arabera, Bergarako lantegia sakrifikatu behar dela", azaldu du Romerok. "Gaineratu dute, produkzioa Txinara eramanda ere galerak izango dituztela, baina hemen baino gutxiago. Hori barregarria da", gaineratu du. Candy taldearen zerga-egoitza Luxenburgon dagoela gaineratu du: "Ingeniaritza fiskala da hori, zerga gutxiago ordaintzeko".

Borrokan jarraituko dutela diote langileek. Eguaztenean bilera izango dute Eusko Jaurlaritzarekin; eta, egubakoitzean, berriro ere zuzendaritzarekin batzartuko dira. "Txosten ekonomikoak ekartzeko eskatu diegu", dio Romerok. Langileek ere txosten bat prestatzen dihardute.

Laboral Kutxari BBB+ kalifikazioa berretsi dio Fitch Ratings agentziak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Fitch Ratings agentziak berretsi egin du ekainean Laboral Kutxari emandako BBB+ kalifikazioa. "Entitatearen sendotasun indibiduala, arriskuen gestio ona eta kapitalizazio-maila handia" izan dute kontuan kalifikazioa mantentzerakoan. Epe luzeko *rating*-a hobetu zion ekainean agentziak Laboral Kutxari: BBBtik BBB+era aldatu zion.

Modu honetan, Espainiako Estatuaren kalifikazio bera du Laboral Kutxaren zorrak. Gainera, esan behar da kalifikazio hori Espainian egoitza duten finantza-entitate guztietan onena dela. Nazioartean lehiatzen diren beste bi bankuk besterik ez dute Laboral Kutxarena baino kalifikazio handiagoa: Santanderrek eta BBVAk A- kalifikazioa dute. Hego Euskal Herritik eta Espainiatik kanpora duten negozio handiaren ondorioz lortutako kalifikazioa da hori.

Fitchek kontuan hartu du Laboral Kutxak batez ere Euskal Herrian eta Espainiako Iparraldean jarduten duela, egoera ekonomiko egonkorrago batean.

Entitatearen sendotasuna

Epe luzeko *rating*-aren oinarria entitatearen sendotasun indibiduala da, eta aintzat hartzen du, batez ere, Laboral Kutxaren arriskuen gestio ona. Agentziak bereziki nabarmentzen du Arrasateko entitateak duen kapitalizazio-maila handia eta finantzaketa-egitura egokia.

Negozio ideia bat dutenei zuzendutako ikastaroa egingo dute Mankomunitatean, azaro amaieran

Enpresa berriak sortzeko ikastaroa egingo du Mankomunitateak azaroaren 24tik abenduaren 5era, 9:30etik 13:30era bitartean. Lanbiden alta emanda egotea beharrezkoa izango da ikastaroan parte hartzeko. Negozio ideia bat dutenei zuzenduta dago. Parte hartzeko izena Mankomunitatean eman behar da, Garapen Agentzian, 943-793090 zenbakian edo *rgarcia@debagoiena.net* helbidean.

Gizarte politikak indartu ditu Aldundiak 2015eko aurrekontuan

Aurrekontua aurrera eramateko Batzar Nagusietan onartu beharko dute

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gipuzkoako "herritarren beharrei egokitutako aurrekontu eraginkorra" aurkeztu du Foru Aldundiak. Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak aurkeztu duen aurrekontuaren ia erdia (%48) gizarte politiketara bideratuko da 2015ean. Bestetik, Foru Aldundiak aurrekontu proiektuaren bidez, "ingurune emankorra sortu eta gipuzkoarren bizi kalitatea" hobetu nahi du.

Aurrekontua aurrera ateratzeko, halere, orain, Batzar Nagusietan ordezkatuta dagoen oposizioko beste indar politikoren batekin, gutxienez, negoziatu beharko du Bilduk, ez daukalako gehiengoa Batzar Nagusietan. Aralarrena bai, baina EAJ edo PSE-EEren babesa izan du aurreko urteetan. Negoziazio prozesua abendu inguruan irekiko da, behin betiko, 2015ko foru aurrekontua onar dezaten Batzar Nagusiek.



Diputazioak kudeatuko dituen 705 milioien banaketa. | DIPUTAZIOA

Kudeatzeko, 705 milioi

Bilduk proposatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu osoa 4.373,86 milioi eurokoa da. 2014an baino %4,85 handiagoa. Udalak Finantzatzeko Foru Funtsera bideratutako kopurua %3,58 haziko da. Aldundiak berak kudeatuko duen aurrekontu propioa 779,806 milioi eurokoa izango da (2,79% handiagoa). Hortik, 74,5 milioi bideratuko ditu finantza kargara (12,3 milioi interesetara eta 62,18 milioi amortizazioetara). Hortaz, kudeaketako aurrekontu arrunta 705,3 milioi eurokoa izango da (%5,08 handiagoa).

Gizarte politikak

Gizarte politiketarako 10 milioi euro gehiago bideratuko dira aurrekontuan; honenbestez, sailez sail, hazkunde handiena izan duen saila izan da Ander Rodriguezena. Mendekotasun arina duten 5.700 gipuzkoarrei diru laguntza jasotzeko eskubidea aitortuko zaie Rodriguez diputatuak azaldu duenez. Zerbitzuen sarean 106 plaza berri jarriko dituzte, itxaron zerrenda murrizteko helburuarekin. Azkenik Kabia erakunde autonomoa ere abian jarriko dute 2015ean, Udal egoitzak kudeatzeko erakundea izango da.

Patxi Uribarren | Euskaltzaina

"Baionan egin zen bilera izan zen jaiotza, eta Arantzazukoa bataioa"

- 50 urte dira euskara batuaren oinarriak ezarri zirela, Euskal Idazkaritzaren eskutik
- Euskaltzaindiak Arantzazun egindako batzarrean ekin zion arautze prozesuari

IRATI GOITIA | ARRASATE

1964an Euskal Idazkaritzak euskara batuaren lehen oinarriak ezarri zituen. Patxi Uribarren euskaltzain aramaioarrak horren gainean jardun du.

Zuzen gabiltza esaten badugu duela 50 urte sortu zela euskara batua?

Euskara batua zer den eta ze izan beharko lukeen argitu beharko genuke lehenik. Euskara batua ez da bat-batean sortzen den zerbait. Hala ere, egin duen bide historikoan data edo une garrantzitsu batzuk daude. 1964ko Baionako bilera abiapuntutzat jo izan dute zenbaitek. Beste batzuentzat deiadar bat-edo izan zen, Euskaltzaindia Arantzazuko bilera ospetsua egitera bultzatu zuen deiadarra. Dena dela, bilera haren nondik norakoak ulertzeko, hainbat gauza hartu behar dira kontuan. 36ko gerrak zeharo zigortu zuen euskal mundua. Kultura alorrean lanean zebiltzan guztiak jazarriak edo pertsegituak izan ziren. Asko espetxeratuak. Beste asko atzerrian babestu ziren. Baina, munduko gerra etortzean, egoera berriak Frantziatik kanpo joan beharra ere ekarri zien askori. Euskaltzainak sakabanatuak eta isilduak izan ziren. Urteak behar izan ziren abiada txikiena hartzeko. Jende gaztea, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi tarteko zela, Euskal Herriak eta, jakina, euskarak pairatzen zuten zapalkuntza egoeraren aurrean bide berrien bila zebilen. Beharrezkotzat jotzen zuten euskara batua edo estandarra euskararen iraupenerako. Hegoaldetik iparraldera joan zirenek barru-barrutik bizi izan zuten bakoitzaren lurraldetik edo eremutik kanpo guztiek ulertzeko moduko euskararen premia. Hori zela eta hasi ziren bilerak-eta egiten elkar ulertzeko euskara mota baten bila. Iparraldean bizi ziren hainbat idazle eta irakasle hilero bilerak egiten hasi ziren 1963-1964 bitartean. Bestalde, Txillardegi sutan jarri zen Jean Haritxelar euskaltzainak bere sarrera hitzaldian (1963) Baigorrin behe nafarreraz hitz egin eta Lafonnek zubereraz erantzun zionean. Ez zitzaion batere egokia iruditu halako ekintza handi batean euskalkia erabiltzea. Horrek argi erakutsi nahi zuen Euskaltzaindiak dialektoen alde egin nahi zuela. Dimisioa aurkeztu zuen. Hor hasi zen lapikoa irakiten. Batuaren aldeko bilerak areagotu eta 1964an, Baionan, abuztuaren 29ko eta 30eko bilera ekarri zuen. Bilera irekia izan omen zen, baina askok ez zuten bertara joateko aukerarik, pasaporterik ez zutelako edo Euskal Herritik urruti bizi zirelako. Dena dela, bilera hartan sarrera-hitzaldia egin zuen Jean Louis Davant jaunak dio bilera hura izan zela haurraren jaiotza eta geroago Arantzazun egin zen bilera ospetsua, bataioa. Baionan abiatutakoak onarpen instituzionala behar zuen. Horixe eskatu zioten Euskaltzaindiari idazleek Ermuko Jardunaldietan (1964ko ekaina). Arantzazuko bileran euskara baturantz urratsak egin ziren: ortografia, *h*-ren auzia, morfologia... Beraz, abian jarri ziren euskara batu edo estandarrera eramango gintuzten zenbait bide.



Patxi Uribarren euskaltzain aramaioarra, Arrasaten. | IRATI GOITIA

Zein garrantzi izan zuen 1964ko batzar ireki hark?

Hartu ziren erabakiek baino garrantzi handiagoa izan zuen aurrera egiteko agertu zuten gogoak. Baionako bileraren urratsik garrantzitsuena bertan bildutakoak euskara batuaren aldeko apustua egin eta Euskaltzaindiari horretan inplikatzeko eskatzea izan zen, baita bertara joandakoek baturako hartzen ziren erabakiak zehatz betetzeko hartutako konpromisoa. Bestalde, sarri ahazten den zerbait esan beharra dut. Gure inguruko hizkuntzetan mendez mende joan dira euren hizkuntza estandarra egiten. Baina, horretarako, estatuaren indarra izan dute. Alemanian, Italian eta, zer esanik ez, Frantzian. Guk euskaldunok ez dugu mendeetan zehar horretarako aukerarik izan. Gehiago, oraindik, ez dugu gure hizkuntza irakaskuntzan eta komunikabideetan erabiltzeko zoririk izan. Beraz, sakabanatuta bizi izan gara, bakoitza geure lurraldean, eta, sarritan, euskalki berekoen artean ere elkar aditu ezinda.

Eta nola hasi zen euskara batuaren zabalkundea edo gizarteratzea?

Ikastola gehienek hasieratik onartu zuten batasunaren bidea, Euskaltzaindiak zortzi urte arteko oinarrizko hiztegi bat ere eratu zuen; Gaueskoletan Metodoak euskara batuan egiten hasi ziren; UEUk garrantzi handia izan zuen, bertaratzen zirenak euskara estandarraren bidean jarri zituelako; euskara batuak erraztasun handiak eskaini zizkien aldizkari eta komunikabide idatziei; hasieratik hiztegiak kaleratzen hasi ziren; tituluak emateko ikastaroak eta administrazioak euskara batua onartzea bultzada handia izan zen (1982).

50 urte geroago, egun, oraindik ere; batez ere, adin batetik gorakoei arrotza egiten zaie euskara batua.

Euskara batua edo estandarra gure hizkuntza nazionala dugu. Euskaldun guztiok, herrialde guztietakook elkarren artean elkar ulertzeko pentsatua. Etorkizunera begira egina izan da. Euskarak gizarteko arlo guztietan lekua izan dezan. Arlo guztiak jorratzeko, haurtzaindegian hasi eta unibertsitateraino. Ez da harritzekoa hainbat gauzatan arrotza egitea. Baina hori askotan gaia bera delako arrotza. Urte oso gutxitan gizarteak izugarrizko aldaketa egin du. Lehen, oso gutxi eskolatzen ziren. Orain, oso gutxi dira eskolatu gabeak. Gure etsaia edo arerioa ez da euskara batua, erdara batua baino. Euskaraz egin ahal izan eta erdaraz egiten dugun bakoitzean euskararen kaltetan dihardugu. Adineko guztiok jarraitu etxeko, auzoko, herriko euskara egiten, hori delako euskara indartzeko beharrezko bidea. Baina zabaldu buruak eta bihotzak euskaldun guztiok hizkuntza bakarrean batzeko egin-bidean den euskara batuari.

Badira ezberdintasunak euskara batuaren onarpen eta ezagutzan ere Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herriaren artean.

Euskara batuak ez dauka egoera bera Euskal Herriko herrialde guztietan. Leku batzuetan ez dauka lekurik irakaskuntzan. Horrek berez dakar leku batean eta bestean ezberdin jokatu beharra. Egun, Iparraldeko berriak telebistaz edo irratiz entzuten ditugunean, lehenago baino askoz hobeto ulertzen ditugu. Lehengoan irratiz ziburutar batek egin zuen berba. Ia dena ulertu nion. Bertako doinuz, batuan egin zuelako.

Euskara batuak elkar ulertzea ekarri duen moduan, euskalkiak esparru batzuetan alboratzea ere eragin du?

Sarritan, nahastu egiten dira euskalkiak eta azpieuskalkiak edo, hainbat kasutan, bazterreko edo txoko berbetak. Euskaraz ezin dugu idatzi: *inbikostezuz* (egin beharko deustazuz). Esan bai, horrelakoak eta beste laburdura ugari egiten dira, baina ez daude ongi idazteko edo jendaurrean erabiltzeko. Hala ere, euskalki mailako euskara landutik euskara batuko euskarara oso alde gutxi dago. Jendeak ez daki euskara baturako euskalki guztietako berbak onartzen direla. Gero, bakoitzak jakin behar du zein erabili toki bakoitzean. Esaterako, euskara batuan *aitajuna, aitona, aitaita, aitatxi* eta *aitaso* onartuta daude. Nik, jakina, Aramaion *aitajauna* edo orain *aitaita* erabiliko dut, Tolosan *aitona,* Iparraldean *aitatxi* edo *aitaso*...

Euskaltzaindiak oraindik badu lana...

Gauza asko erabakitzen ditu: zeintzuk diren euskarako berbak, zela idatzi behar diren, zela erabiltzen diren... Batzordeetan edo lantaldeetan lan egiten du: lexikoa, euskalkiak, gramatika, toponimia, eta abar aztertuz. Esaterako, erabaki berri ditu Matematika, fisikako eta astronomiako hitzak: ehunka dira. Hori guztia beharrezkoa da euskarak etorkizunean bizirik irauteko. Oraindik baditu argitu gabeko zenbait gauza; adibidez, ahoskatzea zelan egin. Zein doinu erabili euskaraz egiterakoan. Holakoetan ohitura ezberdinak ditugu Euskal Herrian. Bada zeregina, bai.

"Hegoaldetik Iparraldera joan zirenek ulertzeko moduko euskararen premia ikusi zuten"

"Hizkuntzek estatuaren indarra izan dute hizkuntza estandarra egiteko; euskaldunok ez"

"Gure etsaia ez da euskara batua, erdara batua baino; erdaraz aritzea kalte da euskararendako"

ZABALIK

AINHOA VITORIA
goiena.net/komunitatea/

'Johnny got a boom boom'

Johnny got a boom boom kantuarekin ezagutu genuen askok. Irlandatik dator, Dublinen sortutakoa. Ez da artista berri horietakoa. 40 urte bete ditu aurten eta esperientziaz betetako abeslaria da. Abeslaria ez ezik, bodhran danborra jotzen ere ikusi dugu behin baino gehiagotan. Buddy Hollyrekin ere konparatu izan dute irlandarra eta duela gutxi Euskal Herrian izan genuen.

Halloween gauean, Bime jaialdira iritsi zen eta bere indarra erakutsiz, energiaz bete zuen agertokia. Gau batez, rockabillya BECen protagonista.

40-50eko hamarkadako itxura mantendu nahi izan du, eta eskertzen dugu, egia esan. Bere esentzia ez da galdu eta *vintage*-aren garaian bizi garela ikusita, nola diren gauzak, modernitatearen ikurretako bat ere izan liteke momentu honetan Imelda May.

"Modernitatearen ikurretako bat da momentu honetan Imelda May"

Rockabilly estiloaren erreginetako bat dela argi dago. Baina ez da rockabillyan bakarrik zentratzen, noski. Swing, jazz, blues ukituak ere antzematen ditugu bere doinuetan.

Blues Calling izeneko kantua da nire faboritoa. Aitortu beharra daukat. Bluesaren osagai guztiak dituen abestia. Doinu tristeak, letra malenkoniatsuak... azken finean, bluesa hori da, ezta?

Itunes Festivalen deskubritu nuen bere zuzenekoa. Engantxatzen zaituen emanaldi horietakoa. Doinu dantzagarriak, alaiak egiten erregina da. Ez da erraza geldi egotea Imeldak bodhrana astintzen duen bitartean; baina doinu ilunak, malenkoniatsuak, blues doinuak egiteko dohain berezia antzeman diot. Agian, gaztaroan bizi izan zuen esperientziak lagundu zion. Hala zioen bere aitak, behintzat. 16 urterekin mutil koxkor batek bihotza apurtu zion Imelda gazteari eta orduan hasi zen benetako bluesa kantatzen. Sufritzea zer den jakin zuenean.

Guk ez dugu sufrituko. Ezta pentsatu ere! Asko disfrutatzen dugu bere doinuekin, eta hala izan bedi!

USTEAK USTE

XABIER URZELAI | xurzelai@goiena.com

Aberats, kolpean

Aste barruan, ordu batzuez bada ere, Las Vegasen jarri dugu arreta, Rio izeneko hotelean jokatu duten November Nine izeneko poker txapelketako finalean. Han, Andoni Larrabe izeneko Arrasateko gazte bat, kolpe batean, aberats bilakatu da. Lehenago ere sari potoloak irabazi izan ditu, zure edo nire hipoteka ordaintzeko moduko sariak, baina oraingoan urrunago joan da, 1,6 milioi dolar poltsikoratu ditu-eta (1,3 milioi euro), seigarren sailkatuta.

Izugarrizko txapelketa egin du, baina jendeari entzun diot pena izan dela aurrerago iritsi ez izana, sariak biderkatu egiten zirelako (10 milioi irabazleak). Ez garela sekula ere konformatzen.

KALE INKESTA

Ze iruditzen zaizu dagoeneko Gabonak prestatzen hastea?

JESUS HERNANDEZ
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait dagoeneko prestatzen hastea. Baina gure etxean oraindik itxaron egingo dugu pixka bat".

ESTHER SAEZ
ARRASATE

"Azkenean, Gabonak kontsumitzeko direla uste dut. Beraz, ondo iruditzen zait hauek presatzen hastea".

JON AGIRREURRETA
ARRASATE

"Nik neuk ez ditut Gabonak prestatzen. Hori bai, etortzen direnean asko disfrutatzen ditut jaiak".

MARTA VELEZ DE MENDIZABAL
ARRASATE

"Oso goiz hasten direnez prestaketekin, gero eta nekagarriagoak egiten zaizkit Gabonak. Beraz, ez zait ondo iruditzen".

HANDIK ETA HEMENDIK

Arrasatek hezi

Eneko Barberena
blogak.goiena.eus/barberenea/

Abian da "Arrasatek hezi" ekimena, Bagara, Arrasateko Udalak eta Txatxilipurdik sustatu dutena. Hezkuntza zentzu zabalean ulertuz Arrasateko eragile eta norbanakoen iritziak jaso eta indarrak batu nahi dira udazken honetan gauzatuko den prozesu parte hartzailearen bidez. Izan ere egitasmoaren blogean bertan esaten den bezala *Hezkuntza, edozein herri edo komunitatetan esparru berebizikoa da. Heztea, baina, ez da soilik eskolaren edo familiaren betebeharra, gizarte osoarena baizik.*

Hezkuntza egitasmo anbizioduna da "Arrasatek hezi", baina anbizio berba zentzurik onenean ulertuz. Izan ere idazteke daude egitasmoko orrialdeak, hori berau osatuko duten administrazio,eragile eta herritarren esku dago. Anbizioduna Arrasaten ensaiatzen ari den *gobernanza* eredu berri batean pauso bat gehiago delako: herritar, administrazio eta eragileen arteko sinergia. Akaso ez da berria, badira esperientzia gehiago beste herri eta herrialde batzuetan, baina etorkizunari begira garrantzitsua deritzot eredu honen araberako frogak egitea. Ikusteko zertan laguntzen duen eta zertan porrot, hurrengoan hobetu ahal izateko. Saiakera, autokritika eta adorea baitira gehienetan gauzak ondo egitearen berme. Zentzu honetan badakusagu prozesu parte hartzaileekin nekea eragiteko arriskua. Hortaz jakitun, saio zehatz eta bakanak sustatu dira, izaera praktikodunak. Baina gertutik jarraitu beharko da neke aukera eta hau ekiditeko neurriak proposatu. [...]

Ekimenari buruzko info gehiago Goienako blogean: *http://blogak.goiena.eus/arrasatekhezi/*.

Izarretan

Idurre Eskisabel
berria.eus/paperekoa/

Liluratuta nauka *Rosetta* misioak: espaziontzia kometa baten orbitan jartzea gutxi balitz, orain *Philae* zunda bertara ainguratzea lortu dute. Zorabiatu egin naute zenbakiek: Lurretik 510 milioi kilometrora eraman da aurrera operazioa, Eguzkira bidean orduko 55.000 kilometrora doan kometa batean. Zirraratu naiz lortuko diren datuen garrantziarekin: harri filosofalaren heina dute uraren, bizitzaren jatorria argitzeko. [...]

Baina batek daki zergatik, Mileva Maric-en oroitzapenak moztu dit *Rosetta*-ren lilura. Alegia, Albert Einstein handiaren aurreneko emazte izan zen andrearenak, zeinak zientzia baztertu behar izan zuen umeak hazteko —eta baita Einsteinen mespretxua jasan ere, neskamenaren baldintzak jarri baitzizkion elkarrekin bizitzen segitzeko—. Baina gero eta argiago ei dago Erlatibitatearen Teoriaren formulazioan Maric ezinbestekoa izan zela; edo, are, bera izan zela burmuin nagusia.

Eta bi zalantza piztu zaizkit supituki: nola litekeen zientziaren garapena izarren hauts jainkotiar hori ukitzera iristea, eta, aldiz, malariak txertorik ez izatea. Eta zientziaren kudeaketan Einsteinen semeen ordez Maricen alabak nagusitu balira bestelakoa ote litzatekeen erantzuna.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.

ALZU, S.L Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.

AQUARIUM – Donostia
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da).

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

AZPEITXI Jatetxea*
Aranerreka kalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otadui Zuhaiztia, 25 | Oñati
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregaia erosita.
% 2ko dendako produktuetan.

EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erosita eta kupoia+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.

GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)
R.P.S. 45-56/10

GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.
RPS: 320/13

GRACIAN Mertzeria
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.

GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajean.

INSTITUTO OPTIKOA
Bidekurutzeta 10 | Bergara
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..
RPS: 115/13

IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa
Burdinate plaza 2 | Bergara
Lehenengo sesioa, sesio erdi..
RPS: 301/14

JAUJA KIROLAK
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara
Produktu guztietan %5eko deskontua..

KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behea | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).
RPS: 285/13

LASTAI
Koltxoiak eta umeentzako artikuluak
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun – aulkietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat
RPS: 299/13

MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erosita.

MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..
R.P.S. 149/10 L.L.G

NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behea | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).
RPS:289/13

NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikulu guztietan.

OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.

PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).
RPS: 262/13

TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
% 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:
Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.
Deskontuak:. Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: **15 €.** | **943 25 05 05**
kluba@goiena.com | *goienakluba.com*

goienakluba"
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ELGETA

Aixolan burdinolak, errotak edo zentralak zeudenekoak

- Etekin handiko indar iturri izan da hamarkadetan Aixola erreka
- Sastraka artean aurkituko ditugu, egun, garai haietako arrasto asko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Urtegia aurkituko dugu gaur egun Elgetako Aixola auzoan. Ia ez dago auzotarrik eta ingurukoek aisialdi gune bihurtu dute ingurua, paseoan edo kirola egiteko. Oso bestelakoa zen bizimodua iraganeko auzotarrendako. Herritik ia ordubetera oinez, uraren indarra bihurtu zuten ogibide. Beko Errota etxeko seme Jose Mari Zubierrementeriak ez du zalantzarik: "Industrialde moduko bat izan zen auzoa".

Jasota dago Aixola errekako uraren indarrarekin martxan jarritako lehen jarduera burdinolena izan zela. Bi agertzen dira agirietan: Gurguriola edo Urbedeinkatu burdinola, eta Ola-Zarra burdinola. Gurguriolako arrastoak bistan daude, Ola-Zarra urpean gelditu da. "Ikatza eta uraren indarra bertan zeuden. Minerala Somorrostrotik ekartzen zuten gurdiz zein mandoz Zaldibartik gora", azaltzen du Zubierrementeriak. "Gurdibidearen zati bat, 300 bat metro, bere horretan dago, oraindik ere".

Gurguriola, Txatxilikua edo Urbedeinkatu etxearen aztarnak, Aixolan. | L.Z.

Errotak erreka kontran

Aixola auzoan indar handia izan duen beste jarduera bat errotena izan da. Uraren indarraz baliatuta errotariek aleak ehotzen zituzten *lakia* edo *motura*ren truke —irinaren parte bat—. Errota izandako zortzi etxeren arrastoa gelditu da jasota, eta ez da erraza arrasto hori jarraitzea denek dute-eta izen bat baino gehiago. Errotak ziren Anastasia Errota, Urbedeinkatu, Azpikua Errota, Ola-zarra, Naparkua, Ibutx, Baltzolabarrena, eta Beko Errota. Lehen hiruren aztarnak bakarrik ikus daitezke gaur egun urpean gelditu baitira gainerakoak. "Errotari izatea bazen zerbait, boto eskubidea zuten", azaltzen du Zubierrementeriak. Errota batzuk 36ko gerra aurretik desagertu ziren. Beste batzuk 60. hamarkadara arte iraun zuten lanean. "Uraren indarrari etekin handia ateratzen zioten", azaltzen du Zubierrementeriak. "Sarri, errota batek lagatako ura hartzen zuen hurrengo errotak, metro gutxira. Hasi goian eta beheraino Aixola erreka guztia aprobetxatzen zuten".

Argindar iturri ere bai

Zentral elektrikoak ere egon izan dira Aixola auzoan, XX. mende hasieran, bi hain justu ere. Naparkua baserrikoak Electra Elorriana zuen izena, eta bertan sortutako argindarra Elorriora bidaltzen zuten. Beko Errota baserriko zentralak Electra Elgeta edo Argi Berria zuen izena, eta Elgeta hornitzen zuen, gehienbat Elkoro fabrika. 60. hamarkadara arte egon ziren martxan. Egitasmo hutsean gelditu ziren beste bi zentral: Urbieta mendi ingurukoa eta Beko Errotako bigarren zentrala. Asmoa zen Zaldibar hornitzea, baina proiektu horiek ez ziren gauzatu.

Bizimodu gogorra

Zeregin askotarako eman du Aixola auzoak, eta bizimodua aurrera ateratzeko ezinbesteko izan dituzte guztiak auzotarrek. Urbedeinkatun eta Lapurdin teileria bana egon ziren. Laborantzan, artzaintzan, ikazkintzan, karegintzan, eta armagintzan ere aritu dira aixolarrak. Sallabenteko zerrategiraino egurra bidaltzeko bi kable ere egon izan dira.

Estraperloan ere iaioak izan dira auzotarrak. Gipuzkoa eta Bizkaia arteko muga izanik jakiak, edariak, olioa, azukrea, armak... igaro dira bertatik, ezkutuan. Makina bat pasadizo kontatzen dituzte bertakoek. Baina horiek beste baterako utziko ditugu.

Askotariko zereginetara ohitutako auzotarrak, Aixolan

Gizonezkoak agertzen dira 40. hamarkada ingurukoa izango den argazki honetan, baina Aixola auzoan emakumezkoek ere bizimodu gogorra izan zuten. Irudi honetan agertzen dira, besteak beste, Pablo Zubierrementeria, Vicente Ansuategi, Pablo Arizmendiarrieta, eta Felix Olaortua, besteak beste. Eibarko San Juan jaietan ateratako argazkia omen da. Aixolako azken errotarietako bat, ordea, emakumea izan zen: Damiana Irazabal Askasibar, hain zuzen ere.

Aixola auzoko mutil taldea. | JOSE MARI ZUBIERREMENTERIA

JOXE MARI ZUBIERREMENTERIA
BEKO ERROTA ETXEKOA

"Aixolak liburu baterako emango luke"



L.Z.

Antzinako kontuak erakarrita etxeko makina bat agiri ditu gordeta, eta pasadizo entzunda.

Auzo berezia izan da Aixola.
Mugimendu handiko auzoa, bai. Burdinolak, errotak, zentralak, ikazkinak, karegintzak... izan dira hemen. Eta baserri txikiak nola ziren laborantzan eta artzaintzan ere aritzen ziren. Etxe guztiek zuten karobia, ardi txabola eta antzerako zerbait aldamenean.

Auzotar asko ditu egun?
Uneotan, Oilarkotan bizi direnak eta Aixolako harrera gunean daudenak. Etxe eta baserri asko ur azpian geratu ziren urtegia egin zutenean.

Auzoko bizimoduaren gaineko informazio asko daukazu gordeta?
Gustatzen zait iristen zaizkidan antzinako dokumentuak gordetzea. Aurrekoek ere bazuten ohitura hori, eta gauza asko dauzkat etxean jasota. Birraitonaren ehiza lizentzia, aitona Kubako gerrara joateko erreklutatu zuteneko agiria, eskritura zaharrak, saleroskeeta fakturak... Aixolak liburu baterako emango luke baten bat animatuz gero. Gauza benetan kuriosoak daude.

Asko aldatu dira gauzak Aixola auzoan?
Bai. Jendea paseora edo kirola egitera etortzen da. Egia esan leku oso aproposa da horretarako.

ARRASATE, BERGARA, ARETXABALETA

Bailarako nagusien asteburua izan da

- Mizpirualde egoitzan bazkaria eta dantzaldia izan dute
- Basotxokoek tute eta mus txapelketak jokatu dituzte

Miguel Rico eta Angel Alvarez, Jose Ignacio Isasmendirekin. | I.S.

Arrasateko Iturbide egoitzan bingoan. | JOSETXO ARANTZABAL

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Arrazoi batengatik edo besteagatik, baina bailarako nagusienek ospakizun asteburua izan dute bukatu berri dena. Arrasateko Iturbide egoitzako nagusiek bingoan jokatzen eman zioten amaiera egoitzaren 30. urtemugako ospakizunari barikuan.

Bergarako Mizpirualden, berriz, zapatuan agurtu zuten egoitzaren astea bazkari batekin eta ondorengo dantzaldiarekin. Egoiliarrekin batera, ospakizunean izan ziren, besteak beste, Jaione Isazelaia eta Inma Beristain, Bergarako eta Antzuolako alkateak, hurrenez hurren; Jabi Bengoa eta Ander Alberdi Bergarako Udaleko zinegotziak; Elgetako erretiratuen ordezkari, Pedro Mari Ubera; egoitzako familien ordezkari, Maria Angeles Muguruza; eta egoitzako gerente Gregorio Iruretagoiena eta koordinatzaile Alazne Irazabal. Primeran pasatu zuten.

Basotxokoak karta jokoan

Aretxabaletako Basotxo erretiratuen elkarteko kideak karta jokoan ibili ziren barikuan; tute eta mus txapelketak jokatu zituzten. Tutean irabazleak Miguel Rico eta Angel Alvarez izan ziren eta bigarren sailkatuak, Antonio Priego eta Justo Gruceta *Murri*. Musean, berriz, Dalmacio eta Manolo Garcia anaiak izan ziren irabazleak, eta Angel Alvarez eta Miguel Rico sailkatu ziren bigarren. Irabazleek, urdaiazpiko bana eroan zuten etxera.

Mizpirualdeko nagusiak ospakizun asteari amaiera emateko bazkarian. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA — IMANOL SORIANO

Kontzientziak pizteko eguna

Egitarau zabala prestatu zeukaten Eskoitzara Eguna ospatzeko eta herritarrek erantzun egin zuten. Pozik zen zapatuan Miriam Isasmendi euskal presoen egoeraren berri emateko lehenengoz antolatu duten egunak izandako emaitzarekin. Goizetik iluntzera arteko era askotako ekitaldiak egon ziren; jendetsuenetakoa, plazan kandelekin osatutako *Euskal Presoak Euskal Herrira* mosaikoa izan zen.

BERGARA — IMANOL SORIANO

3D inprimaketara hurbiltzen

Informazio eta Komunikazio Teknologien Astearen barruan, 3D inprimaketaren gaineko erakusketa eta tailerra izan ziren zapatuan Irala kalean. Adin guztietako herritarrak hurbildu ziren, halako inprimagailuek lan nola egiten duten ikustera eta harrituta ere geratu ziren euretako asko. Gaur, astelehena, taldeak antolatzeko sarea nola aprobetxatu daitekeen azalduko dute 18:00etan, Irizar jauregian.

ARETXABALETA — JOSETXO ARANTZABAL

Elkartasun irri ugari

Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarteari, Ademgiri, laguntzeko jaialdian bete egin zen atzo, domeka, Aretxabaletako kiroldegia. Irrien Lagunak Gizartegintza elkarteak, Ademgik eta Aretxabaletako Udalak antolatu zuten, besteak beste, gaixotasun hori dutenei errehabilitazio zerbitzua eman ahal izateko dirua batzeko. Ane piratak eta haren lagunek dantzan jarri zituzten han batutako ume zein nagusiak.

LEINTZ GATZAGA

Sorgin eta artisauek bete dute San Milixan eguneko feria kuttuna

Artisauez gain, txirrindulariek eta Ander Aranak ere euren txokoa izan dute

Jende asko gerturatu zen Frontoian zegoen artisau azoka ikustera. | JOSETXO ARANTZABAL

Sorginek egindako taloak arrakasta handia izan zuten. | IMANOL GALLEGO

Dorletako Ama txirrindulari taldeak, postua ipini zuen plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

Mota guztietako artisauak gerturatu ziren Gatzagara. | I.G.

IMANOL GALLEGO | LEINTZ GATZAGA

San Milixan feria egin zuten, atzo, domeka, Leintz Gatzagan. Frontoia artisauen erakustoki bilakatu zen, eta jendeak postu ezberdinetatik kuxkuxean aritzeko aprobetxatu zuen. Urtero moduan, Sorginek prestatutako taloek arrakasta izugarria izan zuten.

Bestalde, frontoia txiki geratu zen, artisauek jende asko erakarri zuten-eta. "Guztia erosiko nuke", esan zuen herritar batek.

Frontoia baino gehiago

Plazan Dorletako Ama txirrindulari taldeak, postua ipini zuen. Bertan txirrindulariek Dorletako amari opari moduan utzitakoak erakutsi zituzten, besteak beste, Indurainek edo Olanok oparitutako maillotak

Kultura etxean, aldiz, Ander Aranaren margolanek arrakasta izan zuten. Jende asko gerturatu zen, herriko artista gazteak, birziklatutako elementuen gainean egin dituen paisaiak ikustera.

OÑATI

Denboraldia amaitzeko Markel Irizarren lagunek bazkaria egin dute

Urteroko bazkariaz gain, txarangarekin poteoa eta plazan, bizikleta erakustaldia izan dute

Urtero moduan bazkaria egin zuten Zubillaga auzoan. | IMANOL SORIANO

Markel Uriartek erakustaldia egin zuen. | I.S.

Gazte baten gainetik ere egin zuen salto. | I.S.

I.G. | OÑATI

Markel Irizarrek bizikleta gainean ematen duen denboraldia bukatu bezain laster, lagunekin batzeko ohitura sanoa dauka. Eta urteroko hitzorduari kale egin gabe, zapatuan bere lagunartearekin elkartu eta bazkaria egin zuten.

Eguna 12:00etan hasi zuten plazan, eta Markel Uriartek erakustaldi polita egin zuen. Aretxabaletakoak aho zabalik utzi zituen ikusleak plazan egindako trikimailuekin. Horren ostean, plazan bertan, ikusleek bizikleta elektrikoak probatzeko aukera egon zen.

Urteroko bazkaria

Plazako ekitaldiaren ostean, batzuk poteoa egin zuten herriko tabernetatik. Ohiturari eutsiz baina, edariarekin ez ezik, bazkari oparo batekin ospatu zuten Irizarren herrikideek txirrindulariaren denboraldia. Aurten ere, Zotz jatetxean egin zuten otordua, eta mahaiaren bueltan, 80 bat lagun batu ziren. Batzuek gainera bibotea utzi, eta Movember mugimenduarekin bat egin zuten, tartean Markel Irizarrek berak.

Bazkaria, denboraldian zehar ateratako eta Aitor Casadok egindako argazki muntai batekin amaitu zuten.

Emaztea omendu zuten

Aurten Alaitz Perez de Arenaza, Irizarren emaztea omendu zuten lagunek. Irizarrek ia urte guztia etxetik kanpo igaro arren, familia aurrera ateratzeko egiten duen lanagatik.

Bulego ibiltariak hondakinen bilketa sistema berrira ohitzeko

Hitzaldiak egingo dira, eta material kitak banatu etxe bakoitzerako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urte berriarekin batera aldatu egingo da hondakinak biltzeko sistema. 2015eko urtarriletik aurrera organikoa bereizita bota beharko dute arrasatearrek, "derrigorrez". Hala erabaki du Hondakinen Mahaiak; bost frakzio bereizi beharko dira: organikoa, ontzi arinak, papera-kartoia, errefusa eta beira. Hasteko, organikoa botatzeko edukiontziak jarriko dira eta ondoren errefusarendako edukiontzi grisa jarriko da; orduan kenduko da, behinbetiko, edukiontzi berdea –beirarena ez, bestea–. Organikoaren eta errefusaren edukiontziek "sarrera kontrola" izango dute.

Lehen saioak oso erantzun ona

Azaroan eta abenduan zehar formazioa eta informazioa emango zaie herritarrei. Auzoz auzoko kanpaina egingo dute "informazio zehatza" emateko. Lehena hilaren 13an egin zuten, Musakolan: "Jendez lepo egon zen erretiratuen taberna eta batzuk kanpoan geratu ziren. Bertaratutakoek interes handia agertu zuten hondakinak gaika biltzearen inguruan", jakinarazi du Hondakinen Mahaiak. Hitzaldiotan Hondakinen Mahaiko kideek lortutako akordioa azalduko dute eta Mankomunitateko informatzaileek, berriz, hondakinak nola sailkatu behar diren eta edukiontzi berrien erabilera azalduko dute. Material-kita ere banatuko dute hitzaldia egin baino lau edo bost egun lehenago.

Kit bana emango da etxe bakoitzeko, honako materialarekin: errefusarendako ontzi grisa, organikoarendako ontzi marroia, edukiontziak zabaltzeko txartela, poltsa konpost-garriak hondakinen sailkapenerako gida eta hiztegia. Materiala jasotzerakoan Nortasun Agiria eta kontakturako telefono zenbaki bat eskatuko dute eta herritarrei unean bertan informatuko zaie jaso duten txartelarekin zein edukiontzi gune ireki ahalko duten.

Kitak jaso ahalko dira 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, auzoan zehaztu den informaziorako gunean. Ordutegi bera jarri dute informazio bulego ibiltariendako; herritarrek izan ditzaketen edozein zalantza argitu ahalko dute. Kit banaketa eta informazio bulegoa leku berean egongo da auzo guztietan –ikus goiko taula.

INFORMAZIOA AUZOZ AUZO

MUSAKOLA

Azaroaren 17tik 21era. Hitzaldia azaroaren 13an egin zuten. Informazioa eta kitaren banaketa: kiroldegian.

SANTAMAINA

Azaroaren 24tik 28ra. Hitzaldia azaroaren 20an egingo da. Informazioa eta kitaren banaketa: auzo-alkatetzan.

SAN ANDRES

Abenduaren 1etik 5era. Hitzaldia azaroaren 25ean Etxaluzen. Informazio eta kitaren banaketa: Etxaluzeko beheko solairuko egongelan.

ERDIGUNEA

Abenduaren 9tik 12ra. Hitzaldia abenduaren 3an Kulturaten. Informazioa eta kitarren banaketa: Kulturaten.

ERGUIN

Abenduaren 15etik 19ra. Informazioa eta kitaren banaketa: Iturripen.

Hitzaldiak euskaraz 18:00etan izango dira; gazteleraz, 19:30ean.

NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA

Elkartasunez libre seguru!

Gauza batzuk seguruak dira bizitzan. Beste hainbat ez ordea, hauskorrak, ziurgabeak iruditzen zaizkigu, gero eta gehiago. Bizi garen aro honetan, ezer ere ez dela betiko dirudi.

Baina zoritxarrez gertatzen dira oraindik gertatu behar ez luketenak. Hamarnaka gazte hamaikagarrenez epaituak izaten ari dira Madrilen. Haien etxetik bortizki eraman, asko torturatu eta espetxeratuak izan ondoren. Ez du samurra izan behar bizitzan seguruak diren zutoinak gauetik egunera erortzen ikusteak. Segurutzat genuen hura galtzea.

Eta gertatzen ari da. Aurki Segurako polizi operazioan atxilotutako beste hamaika euskal herritarren epaiketa dator. Berriz ere hamaika militanteren bizitza kinka larrian, tartean Ino Galparsoro herrikidearena. Inongo segurtasunik barik, epaituak izango diren segurtasun bakarrarekin. Ez da samurra.

Eta soilik herriak salba dezakeela herria entzuten dugu. Albokoa eta norbera, herri berean bizi ote garen ere seguru ez dakigunean.

Elkartasuna behar dugu, inoiz baino gehiago eta garaiotan, elkartasuna ere ez da segurua. Inguruarekin dugun sinesmenak laguntzen digu aurrera egiten.

Eta gutxienez elkartasuna segurtatu behar genuke, libre izateaz seguru bagaude. Soilik herriak segurtatu dezake elkartasuna, inor salbatuko bada.

"Epaituak izango diren segurtasun bakarrarekin"

Bertso ginkana hilaren 22an, bertso eskolei eta gazte txokoei esker

Bailarako bertso eskolek eta Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoek bertso ginkana antolatu dute zapaturako, hilak 22. Bertsoak eta hitzak oinarri izango dituen ginkana izango da, erdiguneko Gaztegunean (17:30). 12 eta 17 urte arteko nerabeei dago zuzenduta.

Santa Zezilia dela-eta, Arrasate Musikalen kontzertua zapatuan

Atzo egin zuen Arrasate Musikaleko bandak Santa Zezilia musikarien zaindariaren omenezko kontzertua. Hala ere, zapatuan , hilak 21, beste emanaldi bat eskainiko dute ikasleek Kulturaten (18:30). Santa Zezilia azaroaren 22an izan arren kontzertuak aurreratu egin dituzte aurten.

GOIENA

GOIENA

GOIENA

IZASKUN BALANTZATEGI

Kintadak, gizartearen ohiturak aldatzen ari diren adierazle

Urte berean jaiotako hainbat arrasatearrek kintada ospakizuna egiteko ohitura dute. Goiko erretratuetan, ezkerretik eskuinera eta goitik behera, 1955ean, 1957an, 1958an eta 1964an jaiotakoen talde argazkiak ikus daitezke; guztiek azaroaren 8an egin zuten ospakizuna. Era berean, kintadak ere gizartearen ohiturak aldatzen ari diren adierazle dira. Arrasaten 50 urtetik gorakoek ospatu izan dute duela gutxira arte, baina orain askoz gazteagoak direnek ere ospatzen dute. Zergatik elkartzen diren urrian edo azaroan? Hona herritar baten erantzuna: "Soldaduskara sartzeko zerrendak urrian edo azaroan jakinarazten zirelako".

Gramones taldearen zuzeneko emanaldia. | SERGIO MARTIN

Ramonesen doinuak berpiztuz, Gramones taldearen eskutik

Kontzertuaren aurretik, Gramonesek Frantzian estreinatu berri duen 'Todos somos Ramones' dokumentala ere izango da ikusgai Kulturaten

M.T. | ARRASATE

Ramones taldearen arima Arrasateko gaztetxean sumatuko da eguenean. Izan ere, Gramones taldeak goitik behera errepasatuko du 'It´s Alive' disko ezaguna, Ramonesek, 1977 urtean Londoneko Rainbow Theatre antzokian egin bezala.

Gramones

Bi urtetik behin egin ohi duten moduan, Gramones taldea Arrasateko agertokira igoko da. Gasteizko musikari ezagunez osatutako taldea gutxitan elkartzen da, baina oholtzara elkarrekin igotzen direnetan zaleentzat plazera izaten da musikariak zuzenean ikusi eta entzutea. Izan ere, Gramonesekoek xehetasun guztiak zaintzen dituzte, janzkera eta orrazkeretatik hasi, eta instrumentuetaraino erreproduzitzen baitute taldeak urtezahar gau hartan egindakoa

Eguenean, beraz, bost euroren truke, askoren ustez historian grabatutako zuzeneko disko onena gogora ekartzeko aukera izango dute gaztetxera gerturatzen direnek.

'Todos somos Ramones'

Euren musika dosifikatzea nahiago dute, baina oraingo honetan, taldea lozorrotik irten da, Frantzian egin berri duten 'Todos somos Ramones' dokumentalean agertzen direla eta. Kontuan hartzekoa da bertan parte hartu duen espainiar estatuko talde bakarra dela, atzerriko dozenaka musikari eta talde ezagunen artean.

Dokumentala egun berean egongo da ikusgai, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. 19:00etan eskainiko dute Kulturateko aretoan, eta emanaldia doakoa izango da.

Sagastari buruzko hitzaldia zikloko lehena

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Julian Sagastari buruzko hitzaldiarekin hasi dute bihar, martitzena, Arrasate Zientzia Elkarteak hirugarren urtez antolatu du *Arrasateko Iragana Astintzen* hitzaldi zikloa. "Erraz jarraitzeko moduko hitzaldia izango da. Sagastaren argazki batzuk proiektatuko ditugu eta horien bidez bere etxeari, lagunei, nortasunari, Erromako estantziari eta familiari buruz jardungo dugu, adibidez. Bukaeran, haren hiru pieza joko ditu gitarrarekin Xabier Ugartek", azaldu du hitzaldia emango duen Jose Antonio Azpiazuk.

Hurrengo hitzaldia hilaren 25ean izango da eta Mikel Gorrotxategik, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkaria, euskal abizenen gaia izango du berbagai. Abenduan ere egongo dira hitzaldiak.

EGITARAUA

Azaroak18: Julian Sagastaren gaineko hitzaldi musikatua.

Azaroak 25: "Deituren sorreraz"

Abenduak 10: "Gipuzkoako Udaletxe barrokoak: Arrasateko Udaletxea"

Abenduak 17: "Euskal labea metalurgiaren historian: Arrasateko eredua"

Hasi dira dagoeneko erabilitako jostailuak biltzen abenduaren 13ko Jostailu Truke Merkaturako

Txatxilipurdik Jostailu Truke Merkatua antolatu du abenduaren 13rako, eta bertan trukatzeko jostailuak biltzen hasi dira. Hurrengo aukera azaroaren 26an izango da, Arimazuri plazan, 17:30etik, 19:00etara. Hilaren 27an, berriz, Santa Marinako ludotekan bilduko dituzte, eta 28an herriko plazan, ordutegi berdinean. Abenduan ere izango dituzte jostailuak jasotzeko aukerak. Etxeko txikiek erabiltzen ez dituzten, eta egoera onean dauden jostailuak eramaten dituztenei, txartel bana emango zaie, eta txartel horiek beste edozein jostailurengatik aldatzeko aukera izango dute.

IMANOL SORIANO

Arbolapetako zuhaitza 'berpiztuz'

KOMUNITATEA GOIENA
GARAION SORGINGUNEA | ARRASATE

Sormena eta auzolana batuz, interbentzio artistiko gisa, Garaion Sorgingunekook "zuhaitz" berria egin dugu Gazteguneko lagunekin, Arbolapetan arbola bat nahi dugula irudikatzeko. Horretarako natur elementuez baliatu gara. Gu landaketan eta zaintzan laguntzeko prest egongo ginateke.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

Oin dala 90 urteko Musakolak antzik ez gaur egunekuekin

1923e zan, Isidro Heriz Mondraueko alhondigerue eta konpaiñia Musakolara juen zien ardue eruetera, sarritten egiten euen moduen.

Bueltarako gurdixe kargau, eta kalera; bidien, baiñe, geratu egin zien erretratu hori atarateko, Bidekurtzen. "Zaldi ona gaukan guk eta gobernau be ondo eitten gaixuan. Lau erruberako karrue ibiltten gaixuan, burdinazko llantadune", esaten euen Luis Herizek, aurre-aurrien agerketan dana, ezkerrekaldien.

Gurdi haren gaiñien, jarritte, haren aitte Isidro eta anaixe, Gabriel, gerueu akzidente baten hil zana. Zutik, zaldixei eusten, Andres, Ferreriasen bizi zan morroi mondrauetarra. Eta korbatadune, barriz, biajante bat zan.

Erretratuen eskumakaldien ikusten dan etxie *Hierro etxie* da, eta haren atzien Zerrajerako etxiek. Bidien ezkerraldien dauena oin dala gutxire arte jubilauen etxie euenekue da. Hala be, San Antolin, San Lorenzo, Santa Teresa eta polideportibue falta die ezkerraldien, eta eskumakaldien, barriz, Musakolako gasoliñerie eta etxe asko. Maxua basarrixe be ikusi leike, eta haren gaiñien Arbe gaiñe.

Arrasate Telebista, kalien

Karnabaletako martitzena zan Mondrauen, eta sortu barri zan Arrasate Telebistako kamarek kalera urten euen.

Erliek eztire moduen, hola ibilli zien umiek egun hartan, ATBko kamarak ikusten zittuen bakotxien. Helduek, barriz, lotsa haundixe erakutsi euen kamara aurrien.

Izen be, *Arrasate Press*-ekin ohiketan ebitzen mondrauetarrak poliki-poliki, baiñe telebisiñue beste kontu bat zan....

54. zenbakixe 1990-03-02

Aritz Ugarteren *Txakur lasterketa* argazkia eta Benito Canteroren *Gasteiz* erretratatua izan dira herrikideek egindako bi lan onenak. | ARITZ UGARTE ETA BENITO CANTERO

Banatu dituzte aurtengo argazki lehiaketako sariak

Legazpi eta Soraluzera joan dira aurtengo lehiaketako sari nagusiak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Egubakoitz iluntzean banatu zituzten 24. kirol argazki lehiaketako sariak. Euskal Herri osotik jasotako argazkiak batu eta gero, Joseju Gurrutxaga, Jesus Mari Zabalza eta Alex Garai epaileek ez zuten lan erraza izan. Azkenean baina, aurtengo lehiaketako sari nagusiak Legazpi eta Soraluzera joan dira.

Soraluzeko Carlos de Cos argazkilariak *Errugbi eskola* argazkiarekin lortu zuen zuri-beltz mailako lehen saria. Koloretako argazki onena aldiz, legazpiarra den Jose Venegasek irabazi zuen zuen boxeo gau batean ateratako *¡Casi!* argazkiagatik.

Herriko argazkilariek ere jaso zuten euren saria. Aritz Ugartek eskuratu zuen herriko zuri-beltz mailako trofeoa eta Benito Canterok aldiz koloretakoa.

Irabazle guztiek jaso zuten Santi Arrietaran zeramika lana, naiz eta postuaren arabera, diru kopuru ezberdin bat jaso.

Guztira 168 argazki

Aurten iazko marka apurtzea lortu dute antolatzaileek, eta argazki kopurua handitu egin da. Guztia 168 argazki jaso dituzte; 100 koloretan eta 68 zuri beltzean. Etxekoak ez ziren gutxiago izan, eta zuri beltzean bederatzi bergararren lanak lehiatu ziren eta koloretan aldiz hamar.

Argazki erakusketa

Behin lehiaketa amaituta, lanok hilaren 30a arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian, Aroztegi aretoan bertan. Aurten ere, lehiaketaren parte izan diren 40 argazkirekin erakusketa interesgarria batu dute.

Saritutako argazkilariak Aroztegi aretoan. | IMANOL GALLEGO

Zuri-beltz mailako argazki irabazlea *Errugbi eskola* izan da. | CARLOS DE COS

Jose Venegasen *¡Casi!* argazkia izan da koloretako onena. | JOSE VENEGAS

Fiachrasekin egin dugu 30. urtemugaren abestia

KOMUNITATEA GOIENA | TXAPA IRRATIA | BERGARA

Nola ospatu irrati baten urteurrena abesti batekin ez bada? Eta ze bidelagun hoberik horretarako Fiachras taldea baino? Helburu horrekin, eta festa giroa jartzeko, urteurreneko abestia sortu dugu.

Non entzun?

Abesti hau, beste askorekin batera, 97.20 frekuentzian eskainiko dugun arren, nahi duten guztiek *www.txapairratia.org* orrialdean aurkitu dezakete Txapa irratiaren abestia alaia.

Izugarria izan da abesti hau sortzeko izandako babes eta laguntza. Hemendik eskerrak Fiachras-i, Iñigo Cabezafuego teknikariari, eta nola ez, parte hartu duten musikari guztiei!

OHARRAK

1980KO KINTOEN BAZKARIA

Azaroaren 29an, 13:00etan, Irrintzin hasita poteoa egingo dute eta 14:30ean Xirimirin bazkaria. Joan nahi dutenek Santander bankuko 3030858520 kontuan 35 euro sartu behar dituzte hilaren 26a baino lehen. Dirua sartzean, izena jartzeaz gain, okela edo arraina aukeratu behar da.

1957AN JAIOTAKOEK ERRIOXARA IRTEERA

Antolatzaileek zehaztu dutenez, azaroaren 29an Errioxara egingo duten irteerarako autobusa 08:45ean irtengo da Santa Marina parrokiaren pareko geltokitik.

Gabonetako postalen X. lehiaketa gaztetxoen irudimenaren zain

I.G. | BERGARA

Hamargarren urtez San Antonioko Gure Ametsa elkarteak Gabonetako postalen lehiaketa antolatu du. Beti bezala, herriko gaztetxoek egindako lan bikainak batuko dituzte.

3 eta 12 urte bitarteko haurrek har dezakete parte, eta adinaren arabera hiru mailatan banatuta egongo dira. A maila, 2 eta 6 urte artekoena izango da, 7-9 urte artekoek B mailan hartu beharko dute eta 10-12 urte artekoak aldiz, C mailan.

Gaztetxoek aurkezten dituzte postalen neurria orri laurdenekoa izan beharko da, eta ahal bada, postalak kartulinatan aurkeztu behar dira. Marrazkien atzeko aldean partaide bakoitzak bere izen-abizenak eta adina jarri behar ditu. Postalak San Antonioko Gure Ametsa elkartera eraman beharko dira abenduaren 19an, egubakoitza, arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak bitartean.

Sari piloa

Maila bakoitzeko irabazleak trofeo bat jasoko du , eta ondorengo seiek diploma bana jasoko dute. Sariak abenduaren 20an, zapatua, banatuko dira eguerdiko 12:30etan San Antonioko plazatxoan, Napar feriaren barruan.

Musika eskolako ikasle eta irakasleek, herritarrekin batera, eguenean ospatuko dute Santa Zezilia

I.G. | BERGARA

Musikarien zaindaria den Santa Zeziliaren eguna azaroaren 22a den arren, Bergarako musika eskolak eguenean bertan ospatuko du. Urtero moduan, eskolako paretetatik musika aterako dute, eta gurasoen laguntzarekin, zaindariaren eguna gainontzeko herritarrekin partekatuko dute. Eguenean ez da klaserik egongo, eta eskolak, egun horretarako ekintza bereziak antolatu ditu.

Musikak girotutako eguna

Arratsaldeko 17:30ean Gazte Bandarekin batera musika eskolatik irtenda ikasle guztiek kalejiran joango dira. Ordu berean, eskolako trikitilari eta txistulariak ere kaleak girotzera irtengo dira.

Bi taldeak toki beretik irtengo diren arren, norabide ezberdinak hartuko dituzte. Banda San Martin plazara joango da, eta bien bitartean, trikitilari zein txistulariek, herriko kaleetatik zehar diana joko dute.

Tradizioari eutsiz, herriko musikariek, euren zaindariaren eguna, herritarrei musika oparituz ospatuko dute.

Doinu, erritmo eta alaitasunak herriko kaleak kutsatu eta gero, San Martin plazan ekitaldi txiki bat egingo dute guztiek elkarrekin. Santa Zeziliaren omenezko arratsaldeari amaiera emateko, plazan, guztientzako txokolatada erraldoia egongo da.

Musikak girotuko du eguna. | BME

Irene Zenitagoia | Gorosti loradenda

"Sekula ez nuen pentsatuko saria jasotzera taulara igoko nintzenik"

- Gipuzkoako Bazkundeak ematen duen '10 Bitxiak' saria jasoko du
- Eskualde bakoitzeko merkataritza enpresa aipagarriena saritzen dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gipuzkoako Bazkundeak, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza-Bulego Dinamizatzaileekin batera, Gipuzkoako Merkataritza Sarien 22. edizioa antolatu du. Hilaren 28an egingo dute sari banaketa ekitaldia eta Irene Zenitagoia bergararrak saria jasoko du bertan, *10 Bitxiak* sailean. Sail horretan, Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa aipagarrienak sarituko dituzte; lurraldea osatzen duten eskualde bakoitzeko denda bat.

Zorionak! Pozik sariarekin?

Oso pozik nago. Nirea bezalako denda txiki batek halako aitorpena jasotzea oso pozgarria da.

Sariketan parte hartzea hautazkoa da. Zergatik aurkeztu zinen?

Gipuzkoako Bazkundetik sarritan esan didate parte hartzeko; ezaugarriak betetzen nituela eta aurkeztuko moduan nengoela. Beste loradenda batzuetakoek ere animatu izan naute, eta, azkenean, erdi-ezusteko moduan nirekin lanean daudenek izena eman zuten.

Eta zeintzuk dira ezaugarri horiek?

Aurkezpena, erakusleihoa, dendaren ezaugarriak... baina balorazio garrantzitsuena gainerako denda eta enpresek egiten dutena da.

Hain zuzen, irabazlea Gipuzkoako merkatariek aukeratzen dute *on line* bozketa bidez. Uste duzu gremiokoek zein merkatariek, oro har, zure denda bozkatu izanak are balio handiagoa ematen diola sariari?

Bai, oso poztekoa da; izan ere, galdetegi luze bat bete beharra dago bozkatzeko eta gaur egun, guztiok presaka bizi garela kontuan izanda, pozik egotekoa da, eta eskertzekoa eta baloratzekoa, norberari botoa emateko denbora bat eskaini izana beste dendari eta enpresetako ordezkari batzuek.

Irene Zenitagoia, Gorosti loradendan. | MONIKA BELASTEGI

"Nirea bezalako denda txiki batek halako saria jasotzea oso pozgarria da"

"Eskertzekoa da beste dendari batzuek norbera bozkatu izana"

Botoa nork eman duen ez da jakiten, baina dendan tokatu izan zait bateren batek esatea bozkatu egin gaituela, eta izugarri eskertzen dugu.

Zergatik uste duzu bozkatu zaituztela?

Oraintxe estutu naiz! Nik uste dut berrikuntzagatik, modernitateagatik, dendaren argiztapenagatik, zabaleragatik, espazioagatik... Egia esan, ez diot inori galdetu zergatik, baina jakin nahiko nuke. Eta egin beharko nukeen galdera da. Bestalde, webgunea zein Facebook oso eguneratuta izaten dugu, eta uste dut bezeroek hori ere baloratzen dutela: bai denda barruko lana, baina baita kanpokoa ere.

Zuk ere hartuko zenuen parte bozketan. Nori eman diozu botoa?

Bai, nik ere bozkatu dut. Azken baten, elkarri lagundu behar diogu. Gipuzkoako Bazkundeak halako lehiaketa bat antolatuta, erantzun egin behar dugu, Bazkundeak berak ikus dezan komertzioak bizirik gaudela eta prest gaudela gauza ekimenetan parte hartzeko. Nik uste dut hori garrantzitsua dela.

Azken batean, momentuko poztasuna baino gehiago emango du halako sari batek.

Bai, prestigioa ere bai; Bazkundeak Gipuzkoako *10 Bitxien* mapa egiten du eta salmentara eta bezeroei begira oso ona da. Azken baten, zenbat eta nola lan egiten den erakusten du.

Prest zaude hilaren 28ko Donostiako sari banaketa ekitaldirako?

Egia esatearren, urduri nago. Bazkundeak gonbidatuta joan izan naiz, baina sekula ez nuen pentsatuko taulara igoko nintzenik saria jasotzera. Ezinezkoa zela pentsatzen nuen eta 14 urtean, negozioak dituenak, agertokia zapalduko dut.

Euskara era ludikoan eta doan praktikatzeko saioak

Maila hobetu nahi dutenek Berriketan ekimena dute; hasiberriek, berriz, Auzoko

M.B. | BERGARA

Mintzapraktika egitasmoak euskara praktikatzeko saioak antolatu ditu: bata, euskara maila hobetu nahi dutenentzat; eta bestea, euskara batere ez dakitenentzat. Biak ala biak doan izango dira.

Lehena Berriketan ekimena da, eta euskara maila hobetu nahi dutenek edo euren inguruan euskaraz berba egiteko aukerarik ez dutenek euskaraz berba egiten dutenekin elkartu eta euskara praktikatzea errazten du.

Koordinatzaileak hiru edo lau pertsonako taldeak antolatzen ditu, astean ordubetez berba egiteko –kafea hartzen, paseatzen... duten bitartean–. Izena ematen dutenei ondoen datorkien egun eta orduaren arabera antolatzen dira taldeak.

Auzoko programa ere bai

Mintzapraktika egitasmoak antolatutako bigarren programa Auzoko da. Egitasmo horrek kontuan hartzen du badirela euskara batere ez dakitenak, besteak beste, atzerritik etorri berriak direlako zein urteetan Bergaran bizi arren euskararekin harreman oso txikia izan dutelako.

Berriketan elkarteko hainbat . | MONIKA BELASTEGI

Astean ordubetez elkartzen dira, bi taldetan banatuta: bata, egubakoitzetan, 18:00etan, kultura etxean, eta bestea, emakumeei bakarrik zuzendutakoa, eguaztenetan, 18:30ean, Irizar jauregian.

Euskara modu ludikoan praktikatu nahi izanez gero edo praktikatzen dutenei laguntzeko prest egonez gero. Jardun elkartera deitu behar da izena emateko: 943-76 36 61, 605 71 24 69. Jardunen bulegoan ere eman daiteke izena.

NIRE USTEZ

MARIA JESUS UGALDE

Bravísimo, Jordi!

Azkenaldi honetan, *krisi* hitza besterik ez dugu entzuten alde guztietan. Ez naiz ari krisi ekonomikoari buruz bakarrik, iruzurrak eta lapurrak nonahi agertzen dira.

Zintzotasun falta izugarria sumatzen da guztion artean eraikitako egungo gizartean. Bailarakook zuzen-zuzenean jasaten ari gara krisialdi latz hau: enpresak ixten, langabezia... baina, ondo aztertuz gero, ez da izango baloreen falta gaurko egoera larri honetara eraman gaituena? Hala ere, noizean behin, argi izpitxoren bat azaltzen da, baikorrak izatera animatzen gaituena.

Urtero egiten den legez, antikultura eta antihezkuntzako Wert jaunaren ministerioak 2014ko musika sari nazionala Jordi Savalli ematea erabaki zuen. Aspaldi jarraitu eta miresten dudan artista da. Musikaria, ikertzailea, antzinako musikan espezializatua; Kataluniako Capera Reial ahots taldea, Hexperion XX eta Les Concerts de Nations orkestretako zuzendaria, ganba-biola bakarlaria... arlo guztietan egindako lan onarengatik mundu osoan goraipatua izan da. 40 urte daramatza sinisten duen proiektuetan lanean, instituzioen laguntza gutxirekin, batere ez esatearren. Hemendik aurrera badaukat beste motibo bat Savall maisua miresteko. Gaur egun hain gutxitan ikusten den zintzotasuna erakutsiz, uko egin dio Wertek eskainitako sariari. Honekin ez du onartu gobernuak adierazitako errekonozimendua eta ezta 30.000 euroko dotazio ekonomikoa ere. Hezkuntzak eta kulturak gizartea hobetzeko dituzten garrantzia eta gaur egun jasotzen duen tratu txarra gogorazi dio ministroari oihartzun handia izan duen gutun baten.

Eskulan ikastaroa egongo da Angiozarren eguaztenetan

Eguazten arratsaldeetan eskulan ikastaroa egongo da Angiozarren. 14:00etatik 16:30era, era askotako eskulanak egiteko aukera egongo da, auzoko aretoan: pintura, altzarien zaharberritzea, *pachwork*-a... Hileko kuota 15 euro da eta interesa duten guztiek eman dezakete izena kultura etxean edo 943-77 91 60 telefono zenbakian.

Lehiaketako irabazleek egubakoitzean jaso zituzten sariak. | O.E.

Argazki onenak saritu ditu mendi sailak

Iñaki Idigoras oñatiarrak bi sari irabazi ditu; argazkiak ikusgai daude kultura etxean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Egubakoitzean banatu zituzten Aloña Mendiko mendi sailak antolatu duen aurtengo Mendia eta Natura argazki lehiaketako sariak. Jose Agustin Gurrutxaga, Javier Camacho eta Juanjo Lopez izan dira kategoria bakoitzeko lehen saria irabazi dutenak. Oñati saria, berriz, Iñaki Idigorasendako izan da *Gizakia mendian* eta *Mendi ingurunea* ataletan. Aurten, ordea, *Gizakiaren eragina mendian* sailean hutsik gelditu da Oñati saria.

Iñurrategiren hitzaldia bihar

Kultura etxean izan zen sari banaketa egubakoitz iluntzean, Santiago Yanizen hitzaldia eta argazki erakustaldia baino lehen. Hantxe jaso zituzten sariak kategoria bakoitzeko lehen hiru argazki onenak aterra dituztenek. Epaimahaia, aurten, Josu Perez, Jesus Alonso eta Josu Garai argazkilariek osatu dute. Sarituak izan diren argazkiak eta lehiaketara aurkeztutako beste hainbat ikusgai daude kultura etxeko erakusketa gelan. Hilaren 23ra arte egongo dira eta egunero egongo da ikusteko aukera, 18:00etatik 20:00etara.

Mendi hamabostaldiaren barruan sartzen da lehiaketa eta erakusketa. Baina aste honetarako beste ekintza batzuk ere badituzte antolatuta. Bihar, esaterako, Porrotaren alde izenburupean egingo du berba Alberto Iñurrategik kultura etxean 19:30ean. Eguaztenean, *Mongolia eta Sahara zaldiz* ikus-entzunezkoa botako dute toki eta ordu berean eta eguenean, zinekluba.

Movember mugimendua, gero eta ikusgarriagoa

Bibotea, prostata eta barrabiletako minbizia ikusgarri egiteko ekimena

I.G. / O.E. | OÑATI

Moustache eta November, bibotea eta azaroa, bi hitz horien batuketa da Movember. Hala du izena prostata eta barrabiletako minbiziaren kontra egin gura duen ekimenak. Australian sortu zen mugimendu hau duela 15 urte inguru, eta Oñatira ere heldu da. Hala, ez da arraroa egunotan bibotea duten oñatiarrak ikustea.

Losada, Vazquez eta Lopez azken horren ile apaindegian. | IRATI GOITIA

Bi helburu

Bigarren urtez antolatu dute Movember Oñati, baina aurten indartu egin gura dute mugimendua sortzaileek. "Bigarren urtea da, bai. Iaz Jon Lopezek, Sergio Vazquezek eta hirurok egin genuen eta gustura gelditu ginen. Jendeak galdera asko egin zizkigun, interesa piztu genuen. Horregatik aurten zabaldu gura izan dugu mugimendua", adierazi du Aratz Losadak. Markel Irizar da kanpainaren irudia eta *Etxauk potrorik* mezua duen bideoa ere grabatu dute.

Bi helbururekin abiatu dute aurtengo kanpaina ere. "Batetik, prostata eta barrabiletako minbiziari buruzko sentsibilizazioa zabaldu gura dugu herritarren artean. Bestalde, diru laguntza kanpaina bat ere bada. Minbizi hori ikertzeko egiten ari diren lanendako da batzen dugun dirua", azaldu du Losadak.

Ahalik eta diru gehien lortzeko, itsulapikoak jarri dituzte herriko bost gunetan, jendearen borondatea, ekarpen ekonomikoa jasotzeko.

Bibotea zaindu

Bularreko minbiziaren ikurra lazo arrosa den moduan, prostata eta barrabiletako minbiziarena bibotea da. Hilabete osoan utzi behar dela bibotea dio Losadak: "Hileko lehen egunean bizarra moztu behar da erabat eta hazi ahalaz, bizarra moztu eta bibotea zaintzea da kontua". Horretan baina, Jon Lopezen laguntza dute bibotea utzi gura duten gizonezkoek. "Nire ile apaindegian doan konponduko ditut biboteak hilabete honetan. Hazi ahala zaindu egin behar da, ondo moztu, eta horretan laguntzeko prest nago", dio Lopezek.

Bibotea utzi duten gizonezkoen afaria ere egin gura dute antolatzaileek. Baldintza da bibotearekin joatea. Gura dutenek Ongi tabernan eman behar dute izena. Hilaren 29an, gainera, musika jaialdia egin gura dute tabernan horretan bertan.

Ekitaldiz betetako astea dute San Martin egoitzan

Herriko talde ezberdinen parte-hartzea izango dute aurten ere Nagusien Astean

O.E. | OÑATI

Nagusien Astea ari dira ospatzen San Martin egoitzan. Joan den zapatuan hasi zituzten ospakizunak, egoiliarren senideekin batera egindako bazkariarekin. Gaurtik egubakoitzera bitartean, baina, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte zaharren egoitzan.

Herriko taldeekin batera

Aurten ere herriko hainbat talderen parte-hartzea izango dute Nagusien Astean. Hala, gaur, astelehena, esaterako, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak izango dira San Martin egoitzara bisitan joango direnak. 18:00etan kontzertua eskainiko dute han. Martitzenean, bihar, bolo txapelketa berezia ospatuko dute eta ondoren, gaztaina erre jana izango dute. Eguaztenean, berriz, Oñati abesbatzaren kontzertua egongo da eta iluntzean, kantuz alaituriko afari merienda egingo dute. Oñatz dantza taldeko neska-mutikoak aurten ere joango dira zaharren egoitzara. Eguenean joango dira, zehazki, eta dantza erakustaldia egingo dute. Goizean, aldiz, bingo berezi izango dute egoiliarrek.

San Martin egoitzako Nagusien Astea egubakoitzean, hilaren 22an, bukatuko da. Orduan, Pake Lekun dantza ikasten ari direnen bisita izango dute eta 17:30etik aurrera dantza saioa egingo dute denek elkarrekin.

Nagusien Astea San Martingo egoiliarrendako prestatuta badago ere, edozein herritar ere joan daiteke.

Txanda txartelarekin ordainduz gero, %5eko deskontu zuzena

Txanda dendarien elkarteak promozio berri bat jarri du azarorako. Hilabete honetan txanda txartelarekin ordaintzen duten bezeroei, % 5eko deskontu zuzena egingo zaie. Txartel horrekin ordaintzean gainera, eragiketa bakoitzeko puntuak pilatzen dira eta 200 puntura iritsita, hamar euroko erosketa bonoa lortzen da.

Kopagoa eskatzeko laguntza emango dute bihar Lagun Lekun

Koordainketa eskatzeko entregatu behar diren inprimakiak betetzeko laguntza emango dute bihar, martitzena, Lagun Lekun. Aurretik, 19:00etan, koordainketari buruzko hitzaldia eta tailerra egongo da.

Egubakoitzean, berriz, gaztaina erre jana egingo dute Lagun Lekuren egoitzan bertan, 18:00etan.

NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Makillajea makillatzen

Goizero ispiluaren aurrean makillatzen da. Aurpegirik garbitu gabe, bezperako makillajea makillatzen du.

Bikotekideekiko duen harremana okerrera doa, arrakalatuz doa. Baina begi itsuak negarrik ez. Ikusten ez duenak sentitzen ez duela eta, berak, ez du ikusi nahi. Betaurreko ilunak janzten ditu... Aste honetan bertan 1.856.000 (2.300.000 bozken %80.7-a) aldiz esan dio bikotekideetariko batek ez duela maite. -Baina zu nirea zara - erantzun dio. -Nik onartu ezean zu ezin zara etxetik joan...

Postontzian gutun bat aurkitu du. Argentinatik bidali diote. Hemeretzi frankisten estradizioa eskatu diote, gizateriaren aurkako krimenengatik epaitu ditzaten. Berari ez dio, ordea, inork esango zer egin. Ez genuen besterik behar! Gainera kontu horiek preskribitu dute. Gutuna zakarrontzira bota du... Bazkalostean murrizketa berriak sinatuko ditu eta ondoren bere apopiloek benetako diruarekin Monopolyan nola jolasten duten ikustera joango da... Aurpegirik garbitu gabe oheratuko da. Eta hurrengo goizean berriz makillatuko da, gezurra eta lotsaren gorririk susma ez dakion...

"Bikotekideekiko duen harremana okerrera doa"

"Monopolyan nola jolasten duten ikustera joango da"

ESKORIATZA

Garapen jasangarria eta gizarte garapena sustatzeko laguntzak

- Autokonpostajea egiten dutenek egubakoitza arte dute eskaera egiteko epea
- Kiroldegiko abonurako laguntza eskaera ere bideratu daiteke

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Udaleko Ingurumen sailak bideratutako garapen jasangarriaren ataleko diru-laguntza eskaera egiteko epea zabalik dago egubakoitza arte, azaroak 21.

Era berean, Gizarte Zerbitzuek abian jarritako hainbat laguntzetara aurkezteko epea ere egubakoitzean bukatuko da. Kiroldegiko abonurako eta denbora luzez langabezian dauden pertsonendako dira laguntza horiek. Eskaerok, dagozkien agiriekin batera, udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira (09:00-14:30).

Hondakinen tasan laguntza

Autokonpostajea egiten dutenek diru-laguntza eska dezakete hondakin solidoak jasotzeagatik ordaintzen den tasan. Hala, 2014ko bigarren seihilekoan ordaindutako tasan %25eko diru-laguntza jasoko du baldintzak betez gero. Horretarako, titularrak eginda izan beharko du mankomunitateak eta Udalak emandako ikastaroa, eta gainera, berak kudeatu beharko du sortutako materia organiko guztia. Hori horrela, mankomunitateak eskaintzen duen bilketa zerbitzua ez du erabili beharko.

Udalak 1.200 euro bideratu ditu horretara, eta eskatzaileek axtrokitan jasoko dute laguntza.

Kiroldegiko abonurako laguntza

Bestalde, Gizarte Zerbitzuek diruz lagunduko ditu besteak beste honakoak: familia ugariak, denbora luzez langabezian daudenak, adin nagusiko familia kideak langabezian dituzten familietako titularrak; %33tik gorako ezgaitasunen bat dutenak; eta erretiro-pentsioa jasotzen dutenak.

Laguntza horietara 3.000 euro bideratu ditu Udalak, eta eskatzaileek axtrokitan jasoko dute.

Merkatariendako laguntzak

Herriko merkatariendako ere badaude laguntzak; honakoetarako: euskara hutsezko errotuluak jartzeko; eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko.

Laguntza eskaerak Euskara Sailera bideratu behar dira abenduaren 15erako: kultur etxera jota; *euskara@eskoriatza.net* helbidera bidalita; edo 943 71 46 88 zenbakira deituta.

Laguntzon gaineko argibideak gura dituenak Udalaren webgunera jo dezala (*eskoriatza.net*).

Ertzainek isunak jarri ahal izango dituzte herrian

M.A. | ESKORIATZA

Ertzaintzaren Bergarako komisariako kideek jakinarazi diete Eskoriatzako Udal ordezkariei herri barruan egindako edozein trafiko arau-hauste zigortuko dutela ertzainek ere hemendik aurrera, baita gaizki aparkatzeagatik egindako arau-hausteak ere.

Joan den egubakoitzean, azaroaren 14an, hasita Eskoriatzako udaltzainek eta ertzainek, biek jarri ahal izango dituzte herri barruko edozein txokotan egindako trafiko arau-hausteei dagozkien isunak.

Aholkularitza zerbitzua gaur Ibarraundin

Krisiaren aurrean, zer? zikloa abian da eta hogei bat lagun elkartu ziren energia kontsumoa aurrezteko aholkuak entzuteko. Aholkularitza zerbitzua eskainiko dute, debalde, gaur eta 24an (17:00-19:00) eta 19an (10:00-12:00), Ibarraundin.

MAIALEN TORRES

ARETXABALETA

Aretxarte azken sariak banatzen dabil

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak opariak banatzen jarraitzen du. Martxoan hasi zen Uxue Eraña, elkarteko zuzendaritza batzordeko kidea, 50 euroko balioa duten txartelak banatzen bezeroen artean, eta dagoneko 35 inguru eman ditu. Oraindik hamar geratzen zaizkio eta azaroan bukatuko du horiek banatzen.

Banatutako azken txartelak

Lehen txartelak banatzerakoan harridura izan zen nagusi bezeroen artean, baina orain, bezero gehienek dakite Eraña denda batean sartuz gero eskuartean dakarrena zer den. Azken txartelak banatu ditu Eguzki tabernan, gero opari-txartela Iberren gastatzeko; Jon Diaz harategian, oparia Leibar arrandegian erabiltzeko; Tirso fruta-dendan, gero Jon Diaz harategian erabiltzeko txartel hori; Gemes irudi teknikarienean, gero Martin erloju-dendan gastatzeko 50 euroko txartela; eta Kiliman.

Kanpaina hori bukatutakoan abendukoa jarriko dute abian. Iazkoaren antzekoa izango da (txarteletan zigiluak jarri, gero zozketatzeko) baina nobedadeekin datorrela iragarri dute.

Opari txartela ematen Gemes-en. | U.E.

Jon Diaz harategian. | U.E.

Tirso fruta-dendan. | U.E.

Eguzki tabernan txartelarekin. | U.E.

Txartela ematen Kiliman. | UXUE ERAÑA

OHARRAK

ESKORIATZA

HONDAKINEN DATUEN AURKEZPENA BIHAR

Hondakin bilketa sistemak sei hilabeteotan eman dituen datuen berri emango diete Udal ordezkariek herritarrei bihar, hilak 18, 18:30ean, Ibarraundin.

'BULLYING'-AREN GAINEKO BERBALDIA EGUENEAN

Bullying-aren eta arte martzialen gaineko berbaldia egingo du Rafa Carrietek eguenean, azaroaren 20an, kultur etxean (18:30), Amuskak antolatuta.

LANDAKO IRTEERAREN GAINEKO BIDEOA

Mugikortasun Aste barruan, irailaren 27an, Landara egindako irteeran ateratako argazkiak emango dituzte eguenean, 18:00etan, plazan.

ARETXABALETA

'LA ENTREGA' FILMA GAUR

La entrega (*The drop*) filma (Estatu Batuak, 2014, 106 min.) emango dute gaur, 16:00etan, Arkupen. Sarrera, 2 euro.

SANTA ZEZILIA EGUNEKO EKITALDIAK BIHAR

Leizarra musika eskolako kideek bihar, azaroak 18, ospatuko dute zaindariaren eguna. Banda, trikitilariak, pandero-joleak eta beste hainbat musikari Mitarte kalean elkartu, 18:00etan, eta handik plazara joko dute. Hiru kantu abestuko dituzte han, eta txokolatea hartu.

'JOVEN Y BONITA' FILMA EGUENEKO ZINE KLUBEAN

Joven y bonita filma (Frantzia, 2013, 95 min.) emango dute eguenean, 19:30ean. Sarrera, 4 euro.

NIRE USTEZ

MIKEL ARROIABE

Gu Valentziara begira

Esaten euen millaka kamioi kenduko zittuela errepidietatik. Hori izen zan lelengo guzurra.

AHTk hasierako plangintzan 194 kilometroko luzeria euken Euskal Autonomia Erkideguan, baiña Parisek esan dau 2032ra arte ez dauela Lapurdiko zatixa planteau be egingo, eta Madrillek Gasteiz eta Burgos ez dittula lotuko diño. 6.000 milloi euroko kostua aurreikusi zan, baiña Espaiñako Gobiernuak 2011n ordaintziari laga eta hiru urtetan Jaurlaritzari ixa 873 milloi euro zor eutzen.

2014an Jaurlaritzak beste 350 milloi aurreratu dittu eta onartu dau ez dakixela zenbateko kostua eukiko dauen AHTk. Honek eragiñik badauko gugan?

Patxi Lopezek 2010eko maietzian funtzionarixo danei soldatian %2xa jeitsi eutzen egunien bertan aurreztutako diruaren antzeko aurrekontua euken 5 kilometroko tramua ordainddu euen. Urkulluk 2014rako laguntza sozialetarako aurreikusitako 17,3 milloiak iraillien agortu ziela esan dusku, gehixau ez eskatzeko.

ETB ixilik, *Diario Vasco* hondakin artien zikindduta, eta gu ustelkerixa kontuetan Valentziara begira...

"Ez dakixela zenbateko kostua daukon AHTk"

Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak Sastiñan egin zuen hitzaldiaren une bat. | ARAMAILUR

ARAMAIO

Parte-hartze handia izan dute elikadura eta burujabetzaren gaineko ekitaldiek

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren hitzaldian bete egin zen Sastiña; haren liburu eta errezetak ekonomatuan irakurri ahalko dira datozen egunotan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak, Alaiak erretiratu elkarteak eta Aramailur kontsumo taldeak antolatuta, elikadura eta burujabetza gai hartuta zenbait ekintza egin dira azken egunotan. Elikaduraz gehiago jakiteko aprobetxatu dute herritarrek: "Gaiak interesa piztu duela ikusi da. Izan ere, ekitaldietan jendeak parte hartu du eta galdera zen ekarpenen bidez parte-hartzea handia izan da", adierazi dute Aramailur taldekoek. Antolatzaileak pozik daude ekitaldiek izan duten harrerarekin.

Azaroaren 6an *Gure lurra, gure etorkizuna* erakusketa ireki zuten Sastiñan eta hilaren 11ra arte egon zen zabalik. Gainera, hilaren 10ean *Bide berriak* dokumentala ikusteko aukera ere egon zen: "Erakusketak eta dokumentalak gure sukaldeetara iristen diren elikagaiak nola ekoizten diren, zer-nolako baldintzetan, lurraren erabilera nolakoa den eta ekoizleen pobrezia agerian utzi dituzte, besteak beste. Batez beste, ahoratzen ditugun janariek 4.000 kilometroko bidea egiten dute. Munduan lurra lantzen duten nekazari gehienak emakumeak dira eta eurak dira pobrezia gehien sufritzen dutenak".

'Via campesinaren' bidetik

Via Campesina delako proiektua ere nabarmendu dute ekitaldien antolatzaileek: "Euskal Herrian ehundaka esperientzia daude norabide horretan lanean diharduenak, bertan bizi garenok behar ditugun elikagaiak ahalik eta neurri handienean bertan ekoiztuak izan daitezen. Helburua da ahalik eta baldintza duinenak lortzea denondako".

Amaitzeko, Amaia Diaz de Monasteriogurenek hitzaldia eskaini zuen hilaren 13an. Sastiña bete egin zen dietista oñatiarraren saioa ikusteko; bertako produktuek eta sasoian sasoikoa jatearen garrantzia nabarmendu zuen. Haren liburu eta errezetak irakurri ahalko dira datozen egunotan ekonomatuan.

Bide berriak dokumentala ikusi ostean solasaldia egin zuten. | ARAMAILUR

ANTZUOLA

Landatxopeko gaztaina erre janerako txartelak, bihar eta etzi

Erretiratuen elkartean eman behar dute izena interesatuek 18:30etik 20:30era arte

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Landatxope erretiratuen elkartekoek gaztaina erre jana egingo dute hilaren 29an elkartean bertan. Dagoeneko egin dute interesatuendako deialdia. Gaztaina erre janean parte hartu gura dutenek bihar, martitzena, edo etzi, eguaztena, eman beharko dute izena erretiratuen egoitzan bertan. Landatxopeko ordezkariak 16:00etatik 18:00etara arte egongo dira. Izena ematerakoan lau euro ordaindu beharko dira.

Bestalde, Landatxopen bertan karta jokoen txapelketak egingo dituzte abendu hasieran. Hain justu ere, abenduaren 1ean puntxo txapelketa, abenduaren 2an briska, abenduaren 3an tutea eta abenduaren 4an musa. Interesatuek erretiratuen elkartean bertan eman beharko dute izena, azaroaren 28a baino lehen.

Hitzaldia

Eguaztenean, hilaren 19an, gazteen txikikeriek izan ditzaketen ondorio legalei buruzko hitzaldia egingo dute Olaranen (18:00). Etxeko txikienek zerbait apurtu, hondatu edo lapurtzen dutenean, ekintza horrek izan ditzakeen ondorioak zeintzuk diren azalduko dute Arrats elkarteko kideek: erantzukizun zibila, soziala... Nahiz eta umea adingabea izan. Hitzaldian parte hartzeko aurretik izena eman beharra zegoen.

ELGETA

Bihar abiaraziko dute edukiontzi eta txartel banaketa Elgetan

Etxebizitza bakoitzeko bi edukiontzi txiki —marroia eta grisa— eta txipa banatuko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Abenduaren 1erako iragarri dute hiri hondakinak batzeko sistema berria Elgetan. Udalak aurreko astean banatu ditu hondakinak sailkatzeko hiztegia eta banaketa egutegia etxez etxe. Hala, San Roke kale inguruko bizilagunak izango dira lehenak edukiontzi berriak eta txipa duten txartelak jasotzen. Ondoren etorriko dira gainerako guztiak. Arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara bitartean egingo dute banaketa udaletxean. Ipinitako egun eta orduetan materiala jaso ezin duten herritarrek hilaren 24an, 25ean, eta 26an izango dute aukera berria, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Etxebizitza bakoitzeko bi edukiontzi txiki —hondakin organikoarendako marroia, eta errefusarendako grisa— eta txartel bana banatuko dituzte. Txartel horrekin nork bere ekarpen guneko edukiontzi marroia eta grisa zabaldu ahal izango ditu. "Orain tokatzen dena da gauzak behar den moduan egiten hastea, ohiturak aldatzea eta etxetik gune horietara hondakinak sailkatuta eramatea", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Uste dut sistema berriaren ondorioz Elgetan ere lortuko ditugula sailkapen portzentaia handiak, eta espero dezagun bere egunean erabaki genuen helburua betetzea", gaineratu du.

Eguenean edukiontzi berriak banatzen, Galgorri enpresan. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Sekulako arrakasta lortu du Trikiti Eskolak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

23 lagun. Neska-mutikoak, gazteak eta helduak. Horixe da Ines Osinagaren gidaritzapean sortutako Trikiti Eskolak dituen ezaugarriak. Duda barik, deigarria da Leintz Gatzaga bezalako udalerri txikitxo batean horrenbeste jende erakartzen duen proiektua gauzatzea.

Kontuak kontu, halaxe izan da. Eta dagoeneko eman ditu aurreneko pausoak: joan den eguenean izan zuten lehen eskola: 16:30etik 21:30era, kultura etxean.

Ikasturte osoan

Eta aurrerantzean ere, horixe izango da euren jarduna: eguenero elkartuko dira eskolak hartzera. Batetik, pandero taldea sortu dute, 15 bat neska-mutikorekin; eta bestetik, trikiti taldea, zortzi lagunekin. Bi kasuetan, hutsetik hasiko dira ikasten, eta ikasturtea amaitu arteko eskolak izango dituzte.

Pandero taldea osatu duten neska-mutikoak, Osinagarekin. | ANDER LARRAÑAGA

Katamalok Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

PLATERUENA
Zilarberritzen,
Durangon kultura bizitzeko.

Plateruenaren alde **Katamalo**k egindako lana. Goiena Klubeko bazkideendako 8€an eskuragai astelehenenetik aurrera Goienako egoitzan. Otalora lizentziaduna 31. Arrasate.

...eta urte ASKOTARAKO!

Argazkia: Gauilunak

goienakluba"
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

Bi kirolari lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

Felipe Larrazabal domekako lasterketa hasten. | JOSETXO ARANTZABAL

MUSHING TXAPELKETA

Txakurrek gogotik egin diete tira korrikalariei Gorlako mushing proban

- Federatuek eta herri kirolariek hartu dute parte bigarren mushing txapelketan
- Fernando Cobos izan zen Gorlako ibilbidean debagoiendar azkarrena

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Salda beroa eskuetan, Gorlan ospatu den bigarren Mushing txapelketaz gozatu zuten asteburuan bertara gerturatu ziren kirolari eta kuxkuxeroek. Zapatu eta domekan ehun korrikalari inguruk parte hartu zuten Euskadiko Txapelketa absoluturako puntuagarria izan den mushing txapelketan.

Kanikrosa izan zen korrikalari gehien batu zituen modalitatea eta Felipe Larrazabal nafarra izan zen gizonezkoetan bi egunetan azkarrena; emakume azkarrena Leire Fernandez izan zen. Fernandezek gainera bi aste barru Frantzian jokatuko den Europako txapelketan parte hartuko du eta Gorlakoa "entrenamendu" bezala erabili zuen. Proba gogor hasi zuen Fernandezek eta ibilbide osoan zehar martxari eutsita erraz irabazi zuen, hurrengo emakumea ia hamar minutura utzita. Larrazabali ostera gehiago kosta zitzaion garaipena lortzea; lasterketako kilometro gehienak hiru korrikalariko taldean egin zituzten eta azken metroetan estutu ostean lortu zuen lehenengo postua.

Zapatuan federatuen txanda izan bazen; domekan herri mailako kirolariek ere hartu zuten parte lasterketan eta ikusle gehiago gerturatu ziren Gorlara.

Federatuak eta herri kirolariak

Zapatu arratsaldean jokatu zuten lehen txanda federatuek, bost kilometroko zirkuitua egin zuten lau modalitatetan. Txakur-krosa, bi txakurrek tiratutako patinak, txakur batek tiratutako bizikleta eta lau txakurrek gidatutako gurdia. Eguraldia kaskartzera zihoala zirudien arren, korrikalari eta txakurrak ondo moldatu ziren Gorlako pistetan zehar.

Domekan ostera, federatuak eta herri kirolariak lehiatu ziren, 7,5 kilometroko ibilbidean. Txakur-kroseko parte hartzaileak izan ziren korritzen azkenak eta ordurako Gorlan ikusle nahikotxo batu ziren animoak emateko prest. Larrazabal eta Fernandez federatuetan irabazleak izan baziren, herri lasterketako azkarrenak Gaizka Aretzaga eta Aida Males izan ziren; lehenak 28:43ko denbora egin zuen eta bigarrenak 33:41eko denbora. Bergarar azkarrena ostera, Fernando Cobos izan zen.

Mushing-a indartzeko lanean

Antolatzaileek pozik amaitu zuten asteburua, giro ezin hobean ikuskizuna eman zutelako kirolari eta txakurrek eta iaz baino jende gehiagok parte hartu zuelako. Aurtengoan Burgosetik, Asturiasetik eta Aragoitik jendea etorri dela azpimarratu zuten eta pixkanaka kirol probari indarra ematea helburu dutela gaineratu zuten.

Ibilbidea aldatu dute aurtengo ediziorako eta korrikalarien ustetan antolatzaileek asmatu egin dute; izan ere, asfalto gutxiago dago ibilbidean eta hori txakurrentzat positiboagoa dela esan zuten.

Beraz antolatzaileak indarrez amaitu dute aurtengo Gorlako mushing txapelketa eta kirol mota hau gurean indarra har dezan jarraituko dutela argitu dute. Izan ere kostalde inguruan afizio gehiago dagoela argitu zuten, baina pixkanaka bada ere gurera heltzen ari den diziplina dela gainera zuten.



Txakurrak karroari tiraka. | JOSETXO ARANTZABAL

Txakurra gogoz tiraka. | JOSETXO ARANTZABAL

Korrikalari bat lurrera erortzen. | JOSETXO ARANTZABAL

PERU AZKARATE
PARTE-HARTZAILEA

"Eguraldi ona egin du. Iaz euria egin zuen, baina aurten lainotuta egon da; txakurrarekin korrika egiteko primerakoa. Halako lasterketetan, txakurra aurretik doan arren, korrikalaria garrantzitsuagoa da".

ISKANDER KOBEAGA
PARTE-HARTZAILEA

"Atzo egun eskasa izan genuen. Txakurrak alborako joera zuen eta kanbioekin ere arazoak izan genituen. Gaur hobeto ibili gara. lagun batek kate berria ipini digu eta txakurra motibatuta joan da".

MARKOS PEREZ
PARTE-HARTZAILEA

"*Lea* deitzen da txakurra ondo ibili da, baina niri gogorra egin zait ibilbidea, gora-behera handiduna izan da-eta. Hala eta guztiz ere, nahiz eta apur bat sufritu oso ondo pasatzen dugu korrika egiten, lagunartean".

FELIPE LARRAZABAL | LEHEN GIZONA

"Txakurrak aldapan gora laguntzea ondo dator"

JAGOBA DOMINGO

Lasterketaren amaieran egon ginen irabazlearekin. Pozik zegoen emaitzarekin, eta baita *Gringo* txakurrak egindako lanarekin ere.

Nola joan zaizu lasterketa?

Gaurkoa atzokoa baino apur bat gogorragoa izan da, luzeagoa. Zaindu behar nituen aurkariak nirekin batera atera dira eta lasterketa guztian tentsioan joan gara.

Non lortu duzu abantaila?

Hirurak oso gogor atera gara. Apur bat atzera begira joan naiz eta ikusten nuen pega -pega eginda nuela euretako bat. Azkenean, aldapa gora baten ikusi dut apur bat aldendu egin dela. Gainera, atzotik, segundo batzuetako abantaila neukan. Hortaz, bere aurretik sartuta, nahikoa neukan.

Atzokoa, hortaz, joan zitzaizun.

Atzokoa motzagoa izan zen, eta bigarrenari segundo batzuk atera nizkionez, abantaila hori neukan gaur.

Zer da garrantzitsuagoa korrikalaria ala txakurra?

Txakurra oso garrantzitsua da. Txakurrak aldapa goran laguntzea oso ondo dator, segundoak irabazteko aukera ematen duelako. Nire txakurrak *Gringo* du izena.

LEIRE FERNANDEZ | LEHEN EMAKUMEA

"Gorlako froga entrenamendu gisa erabilti dut"

JAGOBA DOMINGO

Leire Fernandez bere burua neurtzera etorri zen, eta hasieratik bere erritmoa inposatuz lortu zuen garaipean.

Nola joan zaizu lasterketa?

Gustura egin dudan froga izan da hau. Bi aste barru Frantzian egingo den Europako txapelketan parte hartuko dut, eta Gorlako lehiaketa hau, entrenamendu gisa erabili dut.

Hasieratik froga kontrolpean izan duzula zirudien.

Hasieratik nire erritmoa ezarri dut, eta ibilbide guztian zehar, martxa horri eutsita irabazi dudala esango nuke. Bigarren sailkatua baino hamar minutu lehenago iritsi naizen arren, ez dut erritmoa jaitsi.

Maila horri eustea gogorra izan da?

Atzoko 4,5 kilometroak agonikoak izan ziren, baina gaurko 7,5ak aldiz, oso gustura egin ditut. Bi egunetan baina, nire exijentzia maila oso altua izan da, eta ez naiz inoiz erlaxatu.

Frantzian ere estrategia bera erabiliko duzu?

Froga bakoitza ezberdina da, baina hemen egin dudan bezala, barruan dudan guztia ematera joan naiz.

PREFERENTEA

Estrategia jokaldi bati esker irabazi du Mondrak

Xabier Arrizabalagak sartu zuen gola 75. minutuan

UDAko eta Mondrako jokalariak baloiarengatik lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA

ARETXABALETA
0-1
MONDRA

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Erregional Preferenteko derbia jokatu zuten Aretxabaletak eta Mondrak atzo Ibarra futbol zelaian.

Eta derbia parekatua izan zenez, estrategia jokaldi baten erabaki zen partidua Gotzon Urtzelairen taldearen alde: 75. minutuan, korner erdiraketa bat area ertzera atera zuen, eta Xabier Arrizabalagak ez zuen hutsik egin. Jaurtiketa bortitzarekin sartu zuen partiduko gol bakarra.

Atezaina aldatu

Partidua oso parekatua izan zen hasieratik. Bi taldeek baloi luzeak erabili zituzten jokaldiak antolatzeko, eta horrek asko nahastu zuen zelai erdiko jokoa.

Partidua hasi orduko lehen aldaketa egin behar izan zuen UDAk. Oier Zabaleta atezainak min hartuta utzi zuen zelaia.

Lehen zatiko gol aukera bakarrenetakoa aretxabaletarrek izan zuten, korner erdiraketa baten. Errematea indartsua izan zen, baina baloia gora bidali zuen aurrelariak.

Gol aukera gehiago

Bigarren zatia ikusgarriagoa izan zen. Jokoa ez zen asko aldatu, baina bi taldeek askoz aukera gehiago izan zituzten. Lehena, UDAk, 51. minutuan, Yoel Berenguerri esker.

Baina garbienak Mondrarenak izan ziren: 59. minutuan Iker Uribarrenek gora errematatu zuen taldeak eskuinetik egindako jokaldi ederra; 64. minutuan Jon Madinabeitiak areaz kanpo jaurti zuen; eta, 71. minutuan Uribarren izan zen protagonista berriro: jaurtiketa atezainaren ezkerraldera bota zuen.

Arrasatearren jokaldi horien artean, UDA ere hurbildu zen Ezpeleta atezainarengana, baina arrisku gutxiagorekin.

Berdintzeko bi aukera

Arrizabalagak 65. minutuan gola sartu ostean, goitik behera aldatu zen partidua. Aretxabaleta urduri ipini zen. Mondrak, aldiz, lerroak elkartu eta emaitza mantentzeko jokoa egin zuen. Sendo egon ziren arrasatearrak defentsan, baina UDAk, berdintzeko bi aukera izan zituen: 90. eta 92. minutuetan baloia ate aurretik pasa zen inork errematatu barik.

Sailkapenean

Derbia irabazita, Mondrak laugarren garaipena jarraian lortu zuen. 17 puntu ditu sailkapanean eta bosgarren lekuan dago bederatzi jardunaldiren ostean. Aretxabaletak aldiz, 13 puntu ditu eta 11. lekuan dago sailkapenean.

IBAN RODRIGUEZ | UDAKO ENTRENATZAILEA

"Eskura izan dugu berdinketa"

M.B.

Galdu arren, nahiko gustura zegoen partidu bukaeran entrenatzailea.

Berdintzeko aukerak izan dituzue!

Bai. Eskura izan dugu, baina ez dugu asmatu. Maila honetan estrategia eta arlo fisikoa dira inportanteenak. Arlo fisikoan oso antzera ibili gara, baina estrategian Mondrak asmatu egin du eta guk ez . Hortxe egon da kakoa.

Maila berria da zuendako, baina bide onetik zoazte.

Bai. Maila oso parekatua da, eta itxura ona ematea da gure asmoa. Erregional Preferentean dauden talde asko lehen taldeak dira. Mondra eta Mutriku adibidez. Baina gu, bigarren taldea gara. Eta gure helburua maila mantendu eta goiko taldeari begira egotea da.

GOTZON URTZELAI | MONDRAKO ATEZAINA

"Partiduz partidu joango gara"

M.B.

Pozik, oso pozik zeuden Mondrako ordezkariak partiduaren bukaeran.

Zorionak. Hiru puntu gehiago.

Pozik gaude. Aretxabaletan irabaztea ez da erraza eta gaur lortu dugu. Hiru puntu gehiago.

Estrategia erabaki du lehia.

Guk inportantzia handia ematen diogu estrategiari, eta asteko lanean lantzen ditugu jokaldiak.

Laugarren garaipena jarraian.

Estadistiketarako balio du bakarrik. Duela bost partidu zuloan geunden, eta orain berpiztu egin gara. Baina gaurko emaitzarekin ezin gara bizi. Hurrengoan pentsatu behar dugu. Partiduz partidu. Helburuak zehaztu barik. Lau jarraian irabazteak ez du esan gura hurrengoa irabaziko dugunik.

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Zabaleta, Martinez, Alberdi, Orobengoa, Urtzelai, Andres, Pavo, Rajado, Abarrategi, Olabe eta Berenguer.

Mondra: Ezpeleta, Gonzalez, Zabaleta, Mujika, Madinabeitia, Markel, Arrizabalaga, Etxeberria, Barbero, Eraña eta Uribarren.

Beste: Zale asko batu zen Ibarra futbol zelaian Erregional Preferenteko derbia ikusteko.

ERREGIONALA

Arizmendik irabazi du Mojategiko derbia: 0-1

Bigarren zatiko lehen minutua bete orduko sartu dute gola Aritz Elortzaren jokalariek

M.B. | ARRASATE

Partidu gogorra eta tentsio handikoa jokatu zuten Mondrak eta Arizmendik zapatuan. Aretxabaletarrek norgehiagokako aukera bakarrenetakoa aprobetxatu zuten irabazteko. Lorek sartu zuen gola, bigarren zatiko lehen minutua bete orduko, taldearen jokaldi azkar bat aprobetxatuz.

Bigarren zatiko lehen minutuan

Arizmendik berak izan zuen lehen zatiko gol aukera garbiena, baina ez zuen asmatu. Mondrak intentsitate handiarekin jokatu zuen, baina sari barik.

Bigarrenaren hasieran alde ipini zitzaion partidua Arizmendiri. Mondrak ez zuen amore eman, eta aurrera eginez, gogotsu, berdintzeko aukera garbia izan zuen. Baina ez zuten lortu.

Hori horrela, Arizmendik sailkapeneko lehen lekuan segitzen du, sendo, partidu bakarra galduta, 21 punturekin. Mondra laugarrena da, 11 punturekin.

Arizmendiko jokalaria baloirekin, Mondrako jokalariak begira dituela. | IMANOL SORIANO

FUTBOLA

Bi goleko abantaila izan arren, berdindu

Antzuolarrak 2-0 aurreratu ziren atsedenerako

EMAITZA

ANTZUOLA
2-2
MARTUTENE

Martutene eta Antzuolako jokalari bana baloiarengatik lehian. | IMANOL SORIANO

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Beste kolpe gogor bat jaso zuen Antzuolak zapatuan Estalan. Eskura zuen partidua berdindu egin zuen Martuteneren kontra. Jon Muruaren taldea 2-0 aurreratu zen atsedenerako, baina ez zen gai izan abantaila mantendu eta partidua irabazteko. "Gogorra izan da, baina lanean jarraitzea besterik ez zaigu geratzen. Hirunaka lortu behar ditugu puntuak", esan zuen partiduaren bukaeran entrenatzaileak.

Lehen zatian, 2-0...

Lehen zatian ondo kokatu ziren zelaian etxekoak. Puntuak behar -beharrezkoak zituzten eta kontzentratuta irten ziren zelaira. Lerroak ondo ipintzearen ondorioz, segituan jarri zitzaien alde partidua etxekoei. 10. minutuan Aranbarrik lehen gola sartu zuen. Zailena egin ostean, gai izan ziren markagailua handitzeko. Hala, 20. minutuan Imanolek bigarren gola sartu eta lehia bideratuta utzi zuen.

Itxura ona emanez, antzuolarrak norgehiagoka eskutan zutela joan ziren aldagelara.

... eta bigarrenean, 2-2

Baina, bigarrenean egoera goitik behera aldatu zen. Martutenek estutu egin zuen etxeko taldea eta lerro artean geratzen ziren espazioak itxi egin zituzten. Gainera, Antzuolaren atezainak egindako hutsa aprobetxatu zuten donostiarrek lehen gola sartzeko. 65. minutua zen.

Martuteneren golaren ostean urduri ipini ziren antzuolarrak. Donostiarrek aldiz aurrera egin zuten berdinketaren bila eta lortu zuten. 85. minutuan langara bidali zuten jaurtiketa. Aldaratzeak Antzuolaren atezainaren bizkarrean jo eta sarera sartu zen. Binako berdinketa.

Azken minutuetan nahi eta ezin ibili ziren etxekoak. Burumakur bukatu zuten lehia. Sailkapeneko azken lekuan jarraitzen dute lau punturekin.

SASKIBALOIA

Natrako Markel Exposito kontraerasoan. | IMANOL SORIANO

Natra Oñatik sendo jarraitzen du lehe lekuan, Cafes Aitona menderatu ostean: 72-70

M.B. | OÑATI

Natra Oñatik eta Cafes Aitonak partidu borrokatu jokatu zuten Zubikoan. Oñatiarrek intentsitate handiz jokatu behar izan zuten azken unera arte. 20 segundo geratzen zirenean 70era berdinduta zeuden bi taldeak. Asier de la Iglesiak bi jaurtiketa libre sartu zituen eta 72-70 ezarri zuen markagailuan. Donostiarren erasoa geratzen gai izan ziren eta puntuak etxean geratu ziren.

Etxetik kanpokoak

Bi taldeek jaurtilari onak dituztela erakutsi zuten. Donostiarrek bereziki hiruko jaurtilari oso onak dituzte. "Cafes Aitona asko hazi da iaztik ona. Jokalari gazteak dira baina intentsitsate handikoak", esan zuen bukaeran Gorka Judezek.

SASKIBALOIA

Mondragon Unibertsitatea baino maila bat gorago dago Easo eta kantxan erakutsi du

M.B. | ARRASATE

"Gu baino maila bat gorago daude hiruzpalau talde eta horietako bat da Easo. Fisikoki eta teknikoki gu baino gehiago dira eta kantxan erakutsi dute". Hala laburtu zuen Josu Larreategi entrenatzaileak MUren partidua. Arrasatearrek 94-64 galdu zuten Easoren kantxan.

Epaileen lana

Donostiarrek partidua menderatu zutela aitortzeaz gain, epaileen lanaz egin du berba Larreategik: "Berriak gara mailan eta epaileek ez gaituzte errespetatzen. Aurkariak ondo jokatzen badu eta hobea bada, ez du epaileen laguntzaren beharrik lehia irabazteko".

SASKIBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

Berdintzeko jaurtiketa izan dute

Eskoriatzak 31-34 galdu zuen Alde Zaharraren kontra. Donostiarrak aurreratu ziren, baina etxekoak berdindu eta aurretik ipintzeko gai izan ziren. Zailena egin ostean, behera etorri eta ez ziren gai izan abantaila mantendu eta lehia irabazteko. Partidua berdintzeko aukera izan zuten eskoriatzarrek. Zortzi segundoren faltan eta 31-34 galtzen, hiruko jaurtiketa egin zuten etxekoek, baina ez zuten asmatu.

FUTBOLA

Arerio gogorraren kontra jokatu arren ere, UDAk irabazi egin du

EMAITZA

ORDIZIA
1-2
ARETXABALETA

Aretxabaletak, oraingoz, ez dauka areriorik Ohorezko Erregionalean. Ordiziaren zelaian ere irabazteko gai izan zen. Ordiziarrek menderatu zuten lehia hasieratik bukaerara eta markagailuan ere aurretik egon ziren. Baina aretxabaletarrak eragozpen guztiei aurre egiteko gai dira, eta zapatuan erakutsi zuten. Atsedenaren aurretik lehia berdindu zuen Etxabek, zuzeneko falta jaurtiketa batekin. Bigarren zatian, hainbat aukera izan zituen UDAk kontraerasoan eta haietako bat baliatu zuen bigarrena sartzeko. Aitor Perez izan zen golegilea, 83. minutuan.

FUTBOLA

Hernanik hasieratik menderatu du lehia, Aloña aukera barik utzita

EMAITZA

HERNANI
3-0
ALOÑA

"Gu baino hobeak izan dira. Hori da egiten dudan irakurketa". Berba horiekin laburtu zuen Aloñako entrenatzaile Igor Serranok Hernanin jokatutako lehia.

Lehen zatian indartsu irten ziren hernaniarrak zelaira, eta oñatiarrek ez zuten erasoa mozten asmatu. Atsedenerako bi goleko desabantaila zuen Aloñak. Golen bat sartzeko aukerak ere izan zituen, baina ez zuen asmatu. Bigarren zatian, Hernanik hirugarrena sartu ostean, lehia erabakita geratu zen. "Jokalariek lan itzela egin dute, eta alde horretatik oso pozik nago, baina ezin izan dugu ezer egin. Ez dugu aukerarik izan", azaldu zuen.

FUTBOLA

Partidu parekatua jokatuta, puntu bat lortu du Bergarak

EMAITZA

HONDARRIBIA
0-0
BERGARA

Partidu orekatua jokatu zuten Hondarribiak eta Bergarak. Orekatua jokoan eta gol aukeratan. Bergararrek izan zuten lehen zatiko aukera bakarra. Jokin Baltzategik langara bidali zuen baloia jaurtiketa indartsu batekin. Bigarrenean, 60. minutuan, jokalari bat gutxiagorekin geratu zen Bergara. Markel egotzi zuen epaileak bigarren txartel hori erakutsita. Markel erori egin zen arean eta bergararrek penalti eskatu zuten. Bada, epaileak aurrelariaren falta adierazi zuen. Azken ordu erdian sufritu egin zuen Bergarak puntua mantentzeko.

ERRUGBIA

Sufrituta irabaziz, lehen lekuan jarraitzen du Arrasateko errugbi taldeak

Talde indartsua duela erakutsi dute arrasatearrek eta oraingoz ez dute areriorik bigarren mailan

EMAITZA

KANPANZAR ART
20-3
ARRATIKO

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Sei jardunaldi jokatu ostean, Arrasateko Kanpanzar taldeak bolada onarekin jarraitzen du. Bigarren mailan, oraingoz, ez dauka areriorik eta zapatuan Arratiko taldea menderatu zuen Mojategin. "Alde handiarekin irabazi dugu, baina ez du esanahi erraz irabazi dugunik. Asko borrokatu behar izan dugu. Sufrituz irabazi dugu", esan zuen Igor Isasi entrenatzaileak.

Jokalari gehiago

Bosgarren minutuan entsegu bat egin zuten etxekoek. Baina, markagailuan aurreratu arren, Arratikoek estu hartu zituzten. Talde gogorra dute bizkaitarrek.

Lehen zatian ondo eutsi zuten etxekoen erritmoa eta lehian sartuta egon ziren, baina bigarrenean jokalari falta igarri zuten. Arratikok 17 jokalari zituen eta etxekoek 21. "Lau aldaketa izan ditugu eta horrek balio izan digu indarrak ondo neurtzeko", esan zuen Isasik.

Bizkaitarren nekea aprobetxatu zuten markagailuko aldea zabaldu eta denboraldirako seigarren garaipena eskuratzeko. Oraindik ez dute partidurik galdu.

DATUA

6
GARAIPEN

Horiek dira Arrasateko errugbi taldeak irabazitako partiduak. Ligako guztiak.

Kanpanzar eta Arratiko taldeak *mele* bat egiten | IMANOL SORIANO

IGOR ISASI
ENTRENATZAILEA

"Bolada onarekin jarraitu gura dugu"

GOIENA

Pozik zeuden Arrasateko errugbi taldekoak lehia bukatu ostean.

Ez duzue partidurik galdu oraindik. Zorionak!

Egia esan, bolada ona daramagu eta hori igarri egiten da entrenamenduetan eta partiduetan. Giro ona dago eta jokalariak gogotsu daude.

Oraingoz liderrak zarete, baina liga oso luzea da.

Bai, horixe. 22 partidu jokatu behar ditugu. Maiatzerako egongo gara lehian eta gure asmoa da goiko postuetan jarraitzea. Urte hasieran lehen hiruren artean sailkatzea jarri genuen erronka moduan, baina, orain, ez dugu lehen lekutik jaisteko asmorik. Hori bai, lana gogotik egin beharko dugu hor jarraitzeko.

Bergarako jokalari bat jaurtiketa egiten. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Bergararrek ondo jokatuz eta sufrituz irabazi dute

Josetxo Muniategiren taldeak 34-32 menderatu zuen Zarautz, Labegaraietan

M.B. | BERGARA

Soraluze BKEk aurkari gogorra izan zuen zapatuan: Zarautz. Baina, aspaldiko partez, partidu ona jokatu zuten etxekoek, eta irabazi egin zuten: 34-32.

Kontraerasoko jokaldiak ere landu zituzten. Hori bai, azken minutura arte sufritu egin zuten irabazteko. 30 segundoren faltan, hutsartea eskatu zuen Josetxo Muniategik. Bergarak gol bateko abantaila zuen. Ez ziren urduri ipini, eta azken jokaldian gola sartuta, lehia erabakita utzi zuten etxekoek. "Lan ona egin dugu. Partidu azkarra eta ikusteko oso polita. Atezainen lana azpimarratuko nuke", esan zuen entrenatzaileak.

Etxetik kanpokoak

Sailkapenean gora egiteko eta taldea motibatzeko puntu inportanteak lortu zituzten. Aurrera begirako euren erronka, etxetik kanpoko partiduetan dago. Oraindik ez dute punturik lortu Labegaraietatik urrun.

ESKUBALOIA

Santoñak estu hartu zuen Ford Mugarri eta arrasatearrek ez zuten irabazteko aukerarik izan

Ford Mugarrik galdu egin zuen Santoñaren kontrako lehia: 32-24. "Partidu oso txarra jokatu dugu. Gure jokalarietako batzuek gaixorik jokatu dute eta ez dugu aukerarik izan. Dena den, Santoñak ikusgarri jokatu du. Talde sendoa dauka", esan zuen Pablo Gartziak. Askotan neurtu dituzte indarrak Ford Mugarrik eta Santoñak azkenaldian, eta hori igarri egin zen zapatuan. Kantabriarrek estu hartu zituzten arrasatearrak hasieratik, eta baloia ondo mugituz ez zieten aukerarik eman. Aipagarria da bestalde, Santoñako atezainek egindako lana. Jaurtiketa asko geratu zituzten, bai sei metrotik egindako jaurtiketak eta baita kanpotik egindako jaurtiketak ere.

PILOTA

JOSETXO ARANTZABAL

JOSETXO ARANTZABAL

Retegi Bi, Rezusta eta Mendizabal protagonista

Julen Retegi, Beñat Rezusta eta Aitor Mendizabal izan ziren protagonista egubakoitzean Oñatin jokatu zen jaialdian. Retegi BIk 22-15 menderatu zuen Xala Lau t'erdiko pilota txapelketako partiduan. Bestalde, Rezusta eta Mendizabal debagoiendarrek bikote eginez, 22-13 irabazi zuten Lasa eta Cecilioaren kontra.

Mikel Linazisoro | Eskalatzailea

"Eskalatzea oso gustuko izan behar du batek ona izateko, ez dago besterik"

- Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazita, Europakoa eta mundukoa lortu nahi ditu
- 8c+ maila lortuta, hurrengo erronka 9a mailara iristea da, baina ez da erraza izango

IMANOL BELOKI | BERGARA

Mikel Linazisoro bergararra betidanik izan da kirolaria. Eskiatzea eta eskalada ditu pasio eta bi kirol hauetan lehiatu izan da, txapelketa asko irabazita. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari da Mariaren Lagundia ikastolan, eta, oso gaztea den arren, 14 urterekin, ibilbide luzea dauka eskaladan.

Nola hasi zinen eskaladan?

Betidanik joan izan gara eskiatzera gurasoak, anaia eta laurok. Anaiaren entrenatzailea eskalatzailea zen. Hala, aste bukaera batean harekin joan ginen eskalatzera, 5 urte inguru nituela. Ordutik hona, aste bukaera asko pasatu ditut eskalatzen.

Aste bukaera horietako batean, gaur egun nire eskalada entrenatzaile Joxean Mulas ezagutu nuen. Harekin entrenatzera joan nintzen duela lau urte inguru, ea nola moldatzen nintzen ikusi nahi zuelako. Bi urte pasa ondoren, lehiaketetan parte hartzeko gomendatu zidan, eta hala hasi nintzen.

2010ean lehiatzen hasita, lau urteren ondoren zenbat txapelketa irabazi dituzu?

Euskadiko eta Espainiako eskalada txapelketak irabazi ditut. Europako eta munduko txapelketetan, berriz, finalera heldutakoa naiz. Ondo heldu nintzen finaletara bi aldietan; akats ugari egin nituen finaletan, baina ez da ezer gertatzen... Ea aurrerago zorte hobea dudan eta finaletan dena ematen dudan, akats barik garaipena lortzeko.

Non entrenatzen zara?

Normalean, Aretxabaletako rokodromora joaten naiz entrenatzera. Rokodromo itzela da eta ordu asko pasatzen ditut bertan.

Eguraldi ona egiten duenean, berriz, Oñatiko Araotzeko kobara sarritan joaten gara eskaladan gabiltzan lagun kuadrilla. Izan ere, etxetik gertu dut eta mota guztietako bideak aurki daitezke bertan. Dimako Baltzolara ere gustura joaten naiz, eta, etxetik urrunago dagoen arren, hara ere sarri eta gustura joaten naiz lagunekin batera.

Zer behar da eskalatzaile ona izateko?

Batez ere, kirol hau gustatzea ezinbestekoa da. Asko praktikatu behar da; indarra, oreka, mugimenduak... Hori horrela, prestatu beharra dago, eta, horretarako, entrenamendua ezinbesteko da. Konstantziari eustea garrantzitsua da, atzean ez geratzeko, eta, gustatuz gero, ahal den guztietan eskalatzeko denbora ateratzen da.

Eskaladaz gain, eskiatzen ere lorpen handiak lortu dituzu... osagarriak dira?

Egia esan, ez, ondo eskiatzeko hanka indartsuak eta gogorrak izatea beharrezkoa da eta eskalatzeko, berriz, beste ezaugarri batzuk behar dira. Maila handiko eski alpinoan ere lehiatu naiz, eta sari batzuk irabazi ditut. Nire kategorian, Espainiako eslalom txapelketa irabazi nuen.... Nahiz eta kirol batek bestea ez osatu, biak egiten jarraitu nahi dut. Hori bai, eskian jarraitzea zailago ikusten dut. Agian, eskaladan bakarrik lehiatuko naiz eta eskia, berriz, ondo pasatzeko jarraituko dut egiten.

Hain gaztea izanik, zein mailataraino heldu zara orain arte?

Nire lehen 8c maila Baltzolan lortu nuen, *White Zombie* izenekoa, 12 urte nituela. Ondoren, Araotzen; *Mala Vida* eta *Honky Tonky* ere egin nituen, 8c+ mailakoak, 13 urterekin. Maila altuenera, berriz, *Koldoren Mundua* izeneko bidea eginez heldu nintzen 8c+ mailakoa eginda. Hau Araozko *korea* sektorean egin nuen. Azken hori ez zen lan erraza izan. Askotan erortzen nintzen eta igotzeko bidea bilatzea gogorra egin zitzaidan. Orain dudan erronka berria 9a mailara iristea da.

Hemendik aurrera ze asmo dituzu?

Orain arte bezala jarraitzea espero dut, eta poliki-poliki maila hobea hartu nahi dut. Eskiatzera ere joango naiz, baina txapelketetan parte hartu gabe, lagunekin disfrutatzeko bakarrik. Eskalatzen txapelketetan jarraitzea gustatuko litzaidake, eta, aurrez esan bezala, 9a mailara heltzea izango da hurrengo pausoa.

Hasi zara 9a mailako paretak eskalatzen?

Bai, baina ez diot denbora luzerik eskaini... Dimako Baltzola koban *Ill Domani* izenekoa hasi naiz probatzen, baina oraindik goiz da maila horretara iristeko. Ea ondo entrenatuta egunen baten lortzen dudan...

Norekin joaten zara eskalatzera?

Bergarako nire lagun gehienek ez dute eskalatzeko afiziorik, baina hainbat lagun batzen gara eskalada gustuko dugunak. Batzuk nire adinekoak eta beste asko nagusiagoak. Haiengandik ere asko ikasten dut, gainera.

Nora joango zinateke eskalatzera?

Greziako Kalymnos oso ezaguna da eskalatzaileen artean. Ni hara joango nintzateke. Hainbat uharte daude, pareta izugarriak, hondartza ederrak... horrelako paisaia politean eskalatzea bezalakorik ez dago...

Mikel Linazisoro, bere ibilbidea kontatzeko aurreko astean egin zuen hitzaldian . | AMAIA TXINTXURRETA

"Hurrengo erronka 9a mailara iristea da, baina ez da lan erraza izango"

"5 urte nituela hasi nintzen eskalatzen eta 10ekin, berriz, lehiatzen"

"Klasetik irten bezain pronto rokodromora joaten naiz entrenatzera"

"Greziako Kalymnosera joango nintzateke eskalatzera"

RIP zuzenean 80ko hamarkadan. | RIP

Zapatuan Bergarako gaztetxean egindako azken kontzertua The Potes taldearekin. | BURRU

Laster arte, Jul

- The Potesekin Bergarako gaztetxean zuzenean jotzen zegoela hil zen Arrasateko gitarrista
- Arrasateko Monterron parkean egingo diote azken agurra bihar, martitzena, 18:00etan

I.B./J.D. | ARRASATE

Jul Bolinagak agertoki gainean zegoela joan zen herenegun, The Potes taldearekin RIPen *Condenado* kantuaren azken akordeekin batera. Bizitza honek garraztasuna du marka, eta hori, besteak beste, ondo dakite 80ko hamarkada bizi izan dutenek; bizi ala hil, muturrean daudela biak.

Txapa Irratiaren 30. urteurrena ospatzeko, zapatu arratsaldean antolatutako kontzertuan, bat batean, lurrera jausi zen Jul. Anbulantziak berehala gerturatu ziren kartzela zaharrera eta ordu eta erdiz saiatu ziren erreanimatzen, baina ezin izan zuten ezer egin. Ertzaintza eta epailea ere bertaratu ziren eta 22:45ean ziurtatu zuen auzitegiko medikuak arrasatearraren heriotza. Bihotzekoa izan ei da heriotzaren arrazoia; autopsia egingo diote Donostiako auzi-ospitalean. Berehala izugarrizko atsekabea zabaldu zen Bergaran, Arrasaten eta poliki-poliki Euskal Herri osoan.

Bere onenean joan da Jul, ustekabean, hamaika bataila gainditu eta banjoa eskutan, ilusio betez The Potes taldearekin.

Belaunaldi baten erreferente

Gitarra jotzeko era berezia zuen Julek, atzamar potoloa lagun, riff indartsu eta biribilak utzi ditu historiarako RIPekin lehenengo eta hainbat proiekturekin ostean. Belaunaldi baten erreferente izan da, eta hala izaten jarraituko du.

Oso gaztetan hasi zen musikan. Txerra anaiarekin, *Portu* -rekin eta *Mallabi*-rekin Doble Cero taldea sortu zuten, punkaren hastapenetan. Gerora, *Mahoma*-k *Mallabi* ordezkatu eta RIP eratu zuten, hainbeste zeresan eman duen taldea.

Disko eta erdi kaleratu bazuten ere, RIP taldearen izena zizelkatuta dago Euskal Herriko eta Espainiako musikazale askoren artean; eta oraindik ere berrargitaratu egiten dira laukote arrasatearraren lanak: *No te muevas* eta *Zona especial Norte*.

Hamaika proiektu

90eko hamarkada gorabeheratsuaren ondoren, RIPeko partaideek beste proiektu batzuei heldu zieten: Jul eta Txerra anaiek Los Pitxones taldeari.

Gerora, Etsaiakeko *Iñigito*, Des-Kontroleko *Magu* eta beste batzuekin Txapelpunken sorreran aritu zen, punka publiko gehiagotara zabaltzen.

Julen musika hastapenetako marka izan da beti The Clash eta herrian talde hori gogora ekartzeko proiektutan gogotsu aritu izan da, beti bere gitarra jotzeko era bereizgarriarekin ikusleak txundituz. Azkena duela bost bat urte Never Surrender taldeko kideekin eta egun The Potesen dabilen Salarekin batera sortutako The Magnificient Seven.

Proiektu bitxiak izan ziren, baita ere, La Pollako Evaristorekin eta Goseko *Osoron*-ekin batera, txantxa gisa sortu zituzten The Kagas eta The Meas proiektuak. Eurek uste baino harrera hobeagoa izan zuten biek, baina Julen –eta haren lagunen– ohitura bilakatuta, beste proiektu batzuetan jartzen zituzten indarrak. Goienaren Danbaka lehiaketako edizio guztietan epaimahai -kide izan zen eta baita bestelako kolaboratzaile ere.

Baina RIP taldeak kontzertuak egiteko eskaerak ez ziren inoiz eten; eta *Portu* hil ostean ere egin izan zituzten hainbat emanaldi, bai *Mahoma frontman* gisa eta baita bi anaiek lagunez inguratuta ere. Azkena, aurten Arrasaten ospatutako Elkartasun Egunean Sala, *Magu* eta *Pepin*-ekin.

Bost soken atzean

Azkenaldian baina, banjoa izan du bidelagun eta The Potesen jotzeaz gain, besteak beste, Jim

Musikaria eta pertsona goraipatu dute ezagunek

JABI SAYES
DESTRUYE
"Lagun mina, gizon jatorra eta bihotz oso onekoa. Musikari oso trebea, nahiz eta berak halakorik ez pentsatu; bere jotzeko erak txunditzen gintuen".

FERMIN MUGURUZA
KORTATU

"Julen apaltasuna, eskuzabaltasuna eta adiskidetasunaren oroitzapena dut gogoan une honetan. Horrekin batera, Kortaturen *Makurtu gabe* kantuan grabatu zuen gitarra zorrotza, indartsua, matxinatua, aizkorada balitz bezalakoa. Txerrarekin izan nintzen aurreko astean manifestazio batean. Orain Jul joan zaigu. Borrokak darrai. Gora Jul!".

LOLES VAZQUEZ
VULPES
"Jul rock and roll-aren gitarra zen. Lagun ona eta gitarra zen. Bizi izan zen moduan hil da, gustukoena zuena egiten".

IÑIGO ZUBIZARRETA
SOZIEDAD ALKOHOLIKA
"Batez ere erreferente bat izan da niretako. Julen gitarrak beti izan du zerbait berezia. Tipo jator eta umila zen. Zapatuan kontzertua ematen ari ginela jakin genuen haren heriotzaren berri eta eskaini egin genion emanaldia".

OIER BEITIA 'MAGU'
DES-KONTROL

"Beti irribarretsu; pertsona handi eta gogorra zen. Musikalki garbi daukat Julen gitarra doinua ez dudala berriz entzungo".

IÑAKI URBIZU 'PELA'
PIZTU PUNK

"Julena Europako punk-rockean izan den gitarra eraginkor eta bereizgarrienetako bat izan da. Bere izaera pertsonalaren isla. Maisu eta lagun batek utzi gaitu".

IÑAKI BENGOA
SHOT! ESTUDIOA

"Gauza guztien gainetik, tipo aparta zen. Gitarra, banjo zein armonika jole aparta zen. Instrumenturik jo izan ez balu ere, tipo aparta zatekeen. Musikari dagokionez, maisua izan zen. Gitarra primeran jotzen zuen eta oso belarri fina zeukan. Julek jotzeko berezko modua zeukan".

JOSU ZABALA
HERTZAINAK

"Musika eta duintasuna uztartzeko modu errepikaezina izan da RIP, marka bat. Eta RIPeko taldekide guztiek izan dute marka hori. Beti dena eman dute, Julek Bergaran bezala. Orain Txerra da gelditzen zaigun bakarra".

GOIO ARANA
LAGUNA

"Oso tipo jatorra eta noblea zen, nahiz eta azkenaldian ez geneukan lehen bezalako harreman estua. RIPeko garaian ezagutu genuen elkar eta orduan egin ginen lagun. Jul ezagutzea, maitatzea zen. Oso tipo maitatua zen, bai kalean, baita musikarien artean ere".

NDAYE

Txerra Bolinaga, Jul Bolinaga eta *Mahoma* Monterron parkean. | GOIENA

Tnt & the Gipsy Voodoo Rednecks proiektuan ibili zen eta Screamers and Sinners taldearekin kantu bat grabatu zuen. Banjoa zuzenean jotzeko aitzakiarekin Salarekin batera Dat tabernan estreinatu zen banjo-jotzaile bezala Jul, eta gau hori izan zen The Potes taldearen jaiotzarako lehenengo hazia.

Hortik aurrera hainbat zuzeneko eman dituzte Euskal Herrian; baita kanpoan ere, hain maitea zuen Asturiasen adibidez. Musikari bezala miretsia eta pertsona bezala maitatua, hutsune handia utzi du Julek.

Bihar, agur-ekitaldia

Gaur, Arrasaten familiak beilatokian 16:00etatik 19:00etara harrera egingo diete bertaratutakoei, baina ez da gorpua bertan egongo. Biharko, martitzena, agur-ekitaldi irekia antolatu dute lagun eta senitartekoek Monterronen, 18:00etan. Horrez gain, omenaldi bat antolatuko dela ere aurreratu dute musikariaren lagunek.

Bergarako gaztetxekoek ere omenaldia egingo diote eta kartzela zaharren plaka jarriko dute. *Condenado* kantuak dioen bezala, bizitzako azken orduak kartzelan eman zituen Julek, maite zuena egiten eta maite zituen pertsona askorekin inguratuta.

IKUSPUNTUA

IKER BARANDIARAN | KAZETARIA

Musikazale amorratua, pertsona eta lagun handiagoa

RIP taldearen itzala oso luzea da, hainbeste gaur egungo belaunaldietan ere oso presente dagoela. Baina musikaz harago eta gaurkotasun handia duten letra gordin horien atzean, pertsonak daude. Pertsonak, haragi-hezurrezkoak, beste askoren kontrara, bere kantutegiak lortutako oihartzunak ia lotsarazten dituenak.

Halakoa zen, esaterako, Jul. Eta bere heriotzak Euskal Herriko musika eszenak emandako talde apurtzaileenetako bat gogora ekartzen badigu ere, figura honetatik harago bere izaera, jarrera, apaltasuna eta laguntasuna nabarmenduko lituzke ezagutu duen edonork. Kaletarra erabat, lagunen laguna, beti irribarrea ahoan eta makuluak lagunduta, lotsa puntu hori ezabatuz, edozertara apuntatzen zena.

Oharkabean ezagutu nuen eta berehala *harrapatu* ninduen bere izaera hurbil eta lagunkoiak. Gogoan daukat RIPen DVD proiektuak gorputza hartu ahala pasa zituen urduritasun eta animo egoerak; ordura arte hala jaso gabeko onespenaren bertigoa. Danbaka musika lehiaketaren lau ediziotan ere ondoan izan genuen. Parte hartu zuten talde guztiekiko errespetu handiz jokatuz, bere ezagutzaz, eta batez ere, adiskidetasunaz disfrutatu ahal izan genuen musikaz gain hain gustukoen zuen giroan, mahaiaren bueltan.

Musika zale amorratua, ekimen desberdinek eskatutakoan ezetz esaten jakin ez eta RIPen kantuak jotzeko Txerra anaiarekin jotzeko batzen bazen ere, gurago zuen bestelako saltsatan ibiltzea: gitarrari sugarrak ateratzen zein aspaldian txoratuta zeukan banjoarekin The Potes taldean.

Badakigu pozik, gustukoen zenuena egiten hil zarela, Jul. Baina lagun handi bat joan zaigu eta zure makulua baino sostengu handiagoa den Txus hemen, gurekin, gelditzen da. Emaiozu inddarra!

100 €* irabazi nahi?

PARTE HARTU LEHIAKETAN!

Azaroaren 19tik aurrera

badagogauzazailagorik

* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko 100 euroko bonua izango da.

Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.

Arrasateko euskalgintza

Programazio berritua

Bertakoa eta sasoikoa, halakoa da Goiena telebista, eta berrituta dator, unean unekoak, bertatik bertara, herritarrekin, kaletik, kontatzeko gertu.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Zilarrezko ezteiak ospatzeko Amaia Antzokia goraino bete dute Goikobalukoek

- 'Carmina Burana'-k erantzun paregabea izan du
- Pozik amaitu dute Goikobalukoek egindakoarekin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

25 urte era ezinhobean ospatu zituzten Goikobaluko Abesbatzakoek *Carmina Burana* operarekin. Amaia antzokia goraino bete zen zapatu gauean eta Carl Orff-en obraz gozatzeaz gain, gauak askorako eman zuen. *Carmina Burana* obrarekin hasi aurretik, Goikobaluko zuzendari izandako Luis Ignacio Ruiz de Algeria *Jimi*-k eta Eugenio Etxebestek *Haurtxoa sehaskan* eta *Cantique de Jean Racine* kantuak interpretatu zituzten.

Hiru bakarlariak opera amaitzean. | IMANOL SORIANO

Ostean, Iñaki Maidaganek batuta hartu zuen eta *O Fortuna* kantuarekin indartsu hasi zuten obra Goikobalukoek, Arrasate Musikaleko perkusio taldearekin eta Ainhoa Garmendi, Cesar San Martin eta David Azurza bakarlariekin. Azken horren interpretazioa izan zen obrako momentu bizienetarikoa; abesteaz gain Tolosarrak antzeztu ere egin zuelako. Hilabete luzez entseguan egon ostean, lana aurkezteko momentuan ez zuten kale egin eta lagun eta familiaz inguratuta errezitaldi polit eta hunkigarria egin zuten Amaia Antzokian.

Omenaldiak ere bai

Omenaldiek ere tartea izan zuten zapatuan eta hunkigarriena Jesus Maria Arce zuzendari ohiari egin ziotena izan zen. Lore-sorta bat oparitu zioten urteetan egindako lanaren errekonozimendu bezala eta txalo zaparrada jaso zuen.

Goikobaluko koroa. | I.S.

Jesus Maria Arce lore sorta jasotzen. | I.S.

Egoerak baldintzatutako nerabe baten gogoeta aske bezain sakona

- 'Etzak lo hartu' antzezlana ikusteko aukera ego zen barikuan Antzuolan
- Bakarrizketa amaitu eta gero, bi orduko solasaldia egin zuten ikusleek

IMANOL GALLEGO | ANTZUOLA

Eszenatoki txiki bat, aktore bakarra eta milaka hitz eta emozio. *Etzak lo hartu* antzezlanak norberak erantzun beharreko galderak proposatu zituen egubakoitzean Olaranen. Ordu erdiz, antzerki bat baino, barruko sentipenak azaleratzen dituen saio batean murgildu zen ikuslea.

Istorio sinplea

Anbulantzia, ospitaleko gela eta nerabe bat, galduta dagoen nerabe bat. Hori da *Etzak lo hartu* antzezlanaren abiapuntua. Bakarrizketa istripu baten osteko *shock* egoerak eragindako terapia moduko bat da, eta gazteak, bikote harremanak, homofobia edo maskulinotasuna bezalako gaiez hitz egiten du, ospitaleko ohean dagoen lehengusu ikusezin eta mutu batekin.

Nerabeak lasaitzeko pilula baten laguntza izango du, baina hura lasaitu beharrean, pilulak mihia aske utziko dio, eta guztiok inoiz pentsatu eta bizitako egoerak gogoratzera eroango du.

Eszenatokiaren beste aldean ikuslea, isilik, Ander Azurmendiren hitzak entzuten. Une askotan metrailadore antzu bat dela uste arren, bere hitzak barruan geratzen diren horietakoak dira.

Ondoren solasaldia

Antzerki saioak txaloekin bukatu ohi diren arren, *Etzak lo hartu*-rekin ez da hori geratzen. Izan ere, antzerkian jorratutako gaiak, bakarrizketa amaitu eta gero, solasaldi batean eztabaidatzen dira. Egubakoitzean bi ordu inguru iraun zuen solasaldiak. Saioa On:Giz elkarteko kide den Mikel Otxotorenak gidatu zuen. Bera gustura geratu zen solasaldiarekin, "belaunaldi ezberdinetako jendea batu zenez, oso saio interesgarria izan dugu", esan zuen.

Etzak lo hartu antzerkiaren une bat. | IMANOL GALLEGO

Bergarako Udalari esker

'Hika' taldearen 'Hitzak'antzezlana ikusteko sarrerak

Zabalotegi Aretoa, Bergara.
Azaroaren 21ean, ostirala, 22:00etan.

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [Hitzak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com **WhatsApp:** KLUBA [Hitzak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



ECO.O Ediciones Civicas argitaletxeari esker

Marian Porcel kazetariaren 'Todo saldrá bien' liburua dugu zozketagai

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [Liburua] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com **WhatsApp:** KLUBA [Liburua] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

Hiru txerritxoek otsoa garaitu dute Oñatin

- Kantuan eta dantzan jarri zituzten neska-mutikoak
- Ipuin klasikoa gaurkotuta antzeztu zuten

Txerritxoek untxi bat egin zuten lagun. | IMANOL SORIANO

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Txorizo, odolki eta solomo ez bihurtzeko Hiri Berrira jo zuten Galder Perezek zuzenduriko hiru txerritxoek, bizitza lasaiago eta alaiago baten bila. Hala ere, Oñatiko Santa Ana aretora joan ziren txerritxoek ez zuten ametsetako oasia hirian aurkitu, ezta gutxiago ere. Hiriko arriskuek eta otsoak buruhauste ederrak eman zizkieten Dardar, Purrust eta Plost txerritxoei . Mendiko lasaitasun eta alaitasunari ohituta, hiritar giroa arrotz eta zaila egin zitzaien txerritxoei otsoa eta ozta-ozta txerritxoak jan zituen arren, hirurak batera indarrak batu eta zoriontsu amaitu zen arratsaldea. Tartean ere, untxi baten eta txakur baten lagun egin zen hirukotea; haurrei naturaren eta errespetuaren baloreak transmititzeko. Beraz, amaiera alaia izan zuen Perezek gaurkotutako ipuin klasikoak.

Ordu bete inguruz, Santa Ana aretoa bete zuten neska-mutiko oñatiarrak liluratu zituzten dantzan eta kantuan Glu Glu antzerki taldekoek *Hiru Txerritxoak eta Otsoa* ikuskizunarekin.

Klasikoa, egungo ukituekin

Haurrei zuzendutako ipuin klasikoari gaur egungo edukiak batu dizkie Perezek eta komedia, jolas, dantza eta abestien bitartez, hiritar bizitza dibertigarria eta osasuntsua ere izan daitekeela erakutsi zieten zapatu arratsaldean.

Neska-mutikoek Santa Ana aretotik zuten irribarrea aintzat hartuz gero, arratsalde ederra pasatu zuten guraso, lagun zein familiaz lagunduta.

IRAIDE BIAIN

"Asko gustatu zait, bereziki abestu dutenean. Aitatxorekin eta Saioarekin etorri naiz antzerkira arratsaldea pasatzera".

BEÑAT URMENETA, MIKEL ELKOROIRIBE ETA XABAT URKIA



"Gustatu zaigu, baina ez gehiegi. Gehien gustatu zaiguna izan da otsoa tximiniatik sartu denean eta ipurdia erre zaionean. Otsoa txerriak baino gehiago gustatu zaiguna.".

XABIER AGIRRE ETA ENDIKA SOBERA

"Otsoa gustatu zaigu gehien. Batez ere abestu dutenean. Oso ondo pasatu dugu arratsaldea antzerkia ikusten. Biok elkarrekin etorri gara".

IZAR SALAZAR, IZAR BERAZALUZE ETA MADDI OLEAGA

"Asko gustatu zaigu antzerkia. Guztia gustatu zaigu, baina gehien, txerriak. Abestu eta dantzan ere egin dugu eta oso ondo pasatu dugu".

Emonek 'Sua' kaleratuko du Durangoko Azokan

J.D. | BERGARA

Zure Sua, Emon bergararren hurrengo diskoaren aurrerapen kantua interneten entzungai dago jada. *Sua* da lan berriaren titulua eta beste behin Baga-Biga diskoetxearekin kaleratuko dute. Durangoko Azoka buruan du Emonek eta hilaren bukaeran aurkezpen ofiziala egingo duten arren, urtarrilera itxaron beharko dute ikusleek Emon zuzenean ikusteko. Alustizaren arabera, diskoak soinu borobilagoa du oraingoan, produkzioa gehiago landu dute eta grabazioa gogorragoa egin zaien arren, esfortzuak merezi izan duela argitu du. Ame estudioko Axular egon da beste behin kontroletan, baina *Sua* diskoan produktore lana egin du bergararrek estudioan eman dituzten bost asteetan.

Kolaborazio eta kide berriak

Konfeti Kolore diskoarekin aldea duela esan du Alustizak, oraingoan rap eta rock gehiago daude. Kolaborazioentzako tartea ere izan du Emonek; Selektah Kolektiboko *Wanka* edo Joxe Ripiauen ibilitako *Patxuko* besteak beste. Horrez gain familia handitu dela aurreratu du Alustizak; perkusionista lanetan Maikel sartu da eta gutxi barru beste gitarrista bat batu zaie *Sua* diskoa zuzenean defendatzeko.

Astebetean 2.000 entzunalditik gora izan ditu Ruper Ordorikak argitaratuko duen disko berriko singleak

J.D. | BERGARA

Lurrean etzanda, Ruper Ordorikaren disko berriaren aurrerapen abestia zabaldu du Elkar diskoetxeak. *Bizitza eder denean* da abestiaren izena. Disko osoa entzuteko azaroaren 28ra arte itxoin beharko dugu, Durangoko azokaren atarira arte, hain justu ere. Diskoa irailaren hasieran grabatu zuen oñatiarrak Elkar estudioetan. Kenny Wollesen bateria jotzailea, Leo Thompson gitarra jotzailea eta Simon Edwards baxu jotzailea izan zituen alboan. Ordorikak berak sortu ditu *Bizitza eder denean* kantuaren doinua eta letra.

Azken hamaika urteak dokumental batean batzen ari da Azkaiter Pelox bergararra

Fly Shit, Mahaster River eta Behi Bi Blues taldeko kideak agertuko dira

Azkaiter eta *Pondo* Txirula musika dendan bideoklipa grabatzen. | MARKEL CASTELO

J.D. | BERGARA

Azkaiter Pelox bergarar hiperaktiboak beste proiektu bat du esku artean; *11 urte Azkaiter Pelox* dokumentala. Urtebete inguru darama dokumentala ekoizten Markel Castelorekin batera eta tituluak dioen bezala, bere ibilbidearen testigantza izango da.

Fly Shit, Mahaster River eta Behi Bi Blues taldeko partaideak agertzen dira besteak beste artistaren ibilbideko errepasoa egin eta bitxikeriak kontatzeko. Hala ere, *Azkaiter*-ek esan duenaren arabera, gitarra jotzen hasi zeneko irudiak dira beretzako hunkigarri eta berezienak; Piensos Anderreko dendaostean lehenengo akordeak.

Azaroaren 23an, Txatxilipurdik antolatuta emango duen kontzertu didaktikoan proiektatuko du lehenengoz dokumentala. Hala ere, argitu du lana zatika aurkeztuko duela, zuzeneko musikarekin tartekatuz, gazteak "aspertu" ez daitezen. Bere asmoa da, dokumentalaren pasarte bat proiektatu ondoren, gazteekin batera musika jotzea.

Azken asteetan dokumentala mozten dihardu *Azkaiter*-ek Casteloren laguntzarekin; izan ere, ikus-entzunezkoak 26 minutuko iraupena izatea da gitarristaren helburua eta oraindik ere lana badu aurretik.

'Astelehen Trumoitsuak'

Hori gutxi balitz, Behi Bi Bluesen *Astelehen Trumoitsuak* kantuaren bideoklipa egiteko aprobetxatu du kontzertu gutxi eman dituen denbora hau. Durangoko Txirula musika dendan grabatu dute ikus-entzunezkoa Urko Olazabalen laguntzarekin.

Anai-arreben arteko zeloak hizpide Bergarako gaztetxean

Zeloen aurkako gako nagusia, haurrei arreta eta maitasuna bermatzea

MAIALEN TORRES | BERGARA

Bergarako Haur eta Guraso Asanbaladak antolatuta, Izaskun Marañon psikologoak hitzaldia eskainiko du, anai-arreben arteko zeloak hizpide hartuta. Ezer baino lehen, zeloak zer diren argitzea "ezinbestekoa" dela esan du Pasaiako psikologoak "bigarren haurraren etorrera osteko jarrera okerrak justifikatzeko" zenbaitetan erabili ohi den arrazoia dela uste baitu. Marañonen esanetan, zeloen iturria gurasoen arreta gabezia da, eta haurrek iritsi berri den anai edo arrebari egozten diote horren errua. Hortik, anai-arreben aurkako jarrerak.

Zeloei aurre egiteko gakoak

Sinplea bezain eraginkorra da Marañonek zeloen irtenbide gisa aurkezten duen aholkua: "haur batek gurasoen maitasuna bermatuta duenean desagertu egiten dira zeloak", dio.

Horrez gain, zeloen aurrean, haurren beharrei entzutea, anai-arrebekin ez konparatzea, eta haur bakoitzarentzat denbora esklusiboak izatea lagungarria dela azaldu du. Okerrak diruditen jarreren aurrean, berriz, egoera edota haurraren sentimenduak "ukatu eta epaitu" ordez, horiek analizatu eta kanalizatzean dago gakoa, "arazoak onartzean euren indarra gutxitzen delako".

Haurrek, beraz, gurasoen gertutasuna behar dute, eta Marañonen hitzetan, askotan, zigorren bidez okertu egiten da egoera, "pentsatzeko txokoa" bezalako neurriek oraindik gehiago urrutiratzen dituztelako.

Marañonek, ordea, argi dauka kasuan kasuko konponbideak bilatu behar direla, eta hori landuko du azaroaren 23an, 11:30etan. Horrela, tailer modura planteatuko du Bergarako gaztetxeko saioa, parte hartzaileen zalantza eta kezketatik abiatuta.

Jaio berri den haurrarekiko zeloak. | QUIEROSALUD.ES

Oin azpiko iltzea, birus bidez zabaltzen den garatxo gogaikarria

M.T. | ARRASATE

Papova birusak sortzen du oin azpiko iltzea deritzon garatxoa. Ohiko garatxoetatik bereiztea zaila den arren, badute azalaren azpian barrurantz sartzen den punta bat eta hark ematen die izena. Birusak gorputzaren beste puntu batzuetan ere sortzen ditu garatxoak, ohiko formakoak edo lauak izan daitezkeenak, baina oin azpikoak dira kendu beharrekoak, barrurantz hazten direlako.

Asko izerditzen dutenek aukera gehiago dute birusa hartzeko, baita igerileku zein gimnasioetan oinutsik dabiltzan kirolariek ere, hezetasunagatik.

Gainera, nerbioen bukaera asko elkartzen diren guneetan sortzen bada, oin azpiko iltzeak min ere eman dezake eta posible da aldi berean bat baino gehiago izatea.

Sendatzeko gakoak

Oin azpiko iltzea detektatuz gero, podologoarengana edo dermatologoarengana joatea da egokiena. Izan ere, ez da komeni garatxoa etxean ateratzen saiatzea, zauria infektatzeko arriskuagatik.

Garatxoa erabat ezabatzeko, errotik ateratzen da, eta horrek zulo sakon bat uzten du oin azpian, beraz tratamenduaren ostean, oina ondo desinfektatzea komeni da. Zauria behar bezala ixteko, lagungarria da oinetako erosoak janztea.

Oin azpiko iltzea. | L.Z.

Sakelakoetatik internetera konektatzea, arriskutsuagoa

Gailu adimendunek, pribatutasuna eskaintzeaz bat, arrisku berriak azaleratu dituzte haurrentzat

M.T. | ARRASATE

Gaur egun, Europako 9 eta 12 urte arteko haurren % 28 smartphone gailuen bitartez konektatzen da Internetera. Hori erakutsi du EU Kids Online sareak 25.000 adingaberekin egindako ikerketak. Ondorioztatu dutenez, Internetera smartphone bat erabiliz sartzen diren haurrek arrisku handiagoa dute, sakelako telefono zaharragoa, ordenagailu eramangarria edo PCa erabiliz sartzen direnekin alderatuta.

"Arrisku gehiagoren eraginpean egoteaz gain, pribatutasunez eta maizago sartzen dira Internetera, eta jarduera gama zabalagoa garatzen dute" azaldu du Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile Maialen Garmendiak.

Gainera, gailu adimendunek geolokalizazioa bezalako arrisku berriak azaleratu dituzte. Baina era berean, ohiko arriskuak areagotu dira. Gorrotoa eragiten duten mezu gehiago ikusten dira, baita anorexia sustatzen duten orriak, nork bere burua kaltetzekoak eta cyberbullyingari buruzkoak ere.

Gurasoen inplikazioa

Ikerketan jasotako gomendioen arabera, software diseinatzaileek eta teknologia eta komunikazio arloetako enpresek gurasoentzako kontrol-mekanismo errazak ahalbidetuko dituzten lanabesak garatzea lehenetsi beharko lukete, adingabeen artean Internet modu seguruan erabiltzea lagundu eta monitorizatu ahal izateko.

Garmendiak gaineratu du gurasoek, euren aldetik, haurrak txikitatik bultzatu behar dituztela internet erabiltzera, hark dakartzan onurak eta kalteak argi azalduz. Izan ere, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gaitasun digital gehiago garatzen dituzte haurrek interneten onurak eskuratzeko.

Hiru neskatila, smartphonearekin interneten nabigatzen. | OHMYGEEK.NET

ARGITALPENA

'Haur besoetakoa. Litxarrerien jauna' komiki-bilduma

L.Z. | ARRASATE

Unai Iturriaga idazle eta bertsolaria, eta Alex Sanvi marrazkilaria daude komiki album honen atzean. Haur Besoetakoa eta Lolita dira pertsonaia nagusiak eta erdi bana gobernatzen dute hiria. Mafiaburuak, politikariak, enpresariak... ageri dira komikian. Handinahikeria, boterea eta ustelkeria ere nahasten dira haurren mundu honetan.

Hainbat irakurketa geruza izan ditzakeen lana dela adierazi du Iturriagak. "Gaztetxoei zuzendurikoa da, pertsonaia nagusia ume bat da, eta umeen begiradatik aztertzen dira gizarteko gaurkotasuneko hainbat gai", azaltzen du. "Istorio guztietan dago atzealde bat, gizarte kritikara bideratutako zati bat". Euskal Herriko Ikastolen elkarteak argitaratu du, eta hamabi urtetik gorako neska-mutikoendako gomendatu dute.

IRTEERA

Oielekuko cromlecha, Oiartzunen

L.Z. | ARRASATE

Burdin Aroko hileta-monumentuak dira cromlechak, eta Oiartzunen 57 daude. Ondo kontserbatu delako guztien artean ikusgarriena Ipar Oielekuko cromlecha da.

Lau kilometroko ibilbide zirkularra proposatzen dugu. Abiapuntua Oiartzun herria eta Artikutza lotzen dituen GI-3631 errepideko Kausoko aparkalekua da. Pinu, izei eta pago artean egingo dugu Oielekuko atseden lekurainoko ibilbidea. Mahaiak, iturria eta azalpen-panelak daude bertan.

Oielekuko cromlecha apur bat aurrerago dago. Hamar metro diametroko zirkulua osatzen duten eta biribilean ezarritako harri horiek Aiako Harriaren gailurra dute atzean. Itzulerako ibilbideak, Munerre, Kauso I eta Kauso II parajeetako cromlechak ikustera eramango gaitu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai Andra Marin. Erabat berritua, bizitzera sartzeko moduan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. 605 74 34 39 (M. Carmen) edo 645 00 90 03 (Ramiro)

Arrasate. Feliziano Aranzabalen, bi logelako etxebizitza salgai. 69,38 metro koadro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 59 75 38

Bergara. Etxebizitza saltzen da Matxiategi 10ean. Bigarren solairua. 115 metro koadro. Eguzkitsua. Hiru logela. Berriztua dago eta igogailua jartzen ari dira. Prezio negoziagarria. 650 60 26 55

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza jantzia ematen da errentan. Egoera onean. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. Andra Marin. 605 74 34 39 (M.Carmen)

Eskoriatza. Etxebizitza berria ematen da errentan. Erdialdean dago. Hiru logela eta bi bainugela. 652 70 08 00

104. ERRENTAN HARTU

Baserri bila Debagoienean. Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Gehienez 500 euro ordain ditzaket. 602 03 33 56 (Carmelo)

Bergara. Bergaran logela bakarreko edo biko etxe bat errentan hartu nahi dut. 616 39 49 91

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genukeen bi bergarar gazte gara. Ezinbestekoa errenta kontratua. 608 78 77 71 edo 606 83 82 15

Oñati. Logela bakarreko edo biko etxebizitza hartu nahi nuke errentan. 647 24 40 54

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erdigunean, Juan Carlos Gerra 5ean, logela ematen da errentan. 250 euro hilean, gastuak barne. 699 78 87 36

Arrasate. Erdigunetik gertu etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. 678 82 69 77

Bergara. Logela ematen da errentan Zabalotegi 11n. . Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:602 07 12 06

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

106. BESTELAKOAK

Etxebizitza aldatuko nuke. Gasteizen dagoen etxebizitza bat aldatuko nuke Aramaion antzekoa den beste baten truke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:672 28 30 38

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Mutil euskalduna behar da zaintza lanetarako. Bazkariak prestatu, paseatzera irten. . Astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian. . Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:649 70 23 90

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Garbitasunean edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ordu ka, gauetan zein asteburutan. Eskarmentua dut eta lege paperak ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 14 71 34

Arrasate. 36 urteko neska astelehenetik ostiralera etxeko laguntzaile moduan aritzeko gertu. Egun osoz, orduka, gauez edota etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 80 96 01

Arrasate. Mutila goizetan nagusiei laguntzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 71 80 93

Arrasate. Neska gertu asteburuetan, orduka, nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 632 54 45 25

Arrasate. Sukalde laguntzaile, garbiketan edota lisatzen lan egingo nuke. Egunez. 632 23 46 19

Bergara edo inguruak. Haur Hezkuntza ikasten dabilen 24 urteko neska euskalduna naiz, Bergarakoa, eta haurrak zainduko nituzke arratsaldetan. Esperientzia handia daukat. 680 17 33 61

Bergara. Adin ertaineko emakumea umeak eta nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

Bergara. Emakume euskalduna, esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 690 05 79 07

Bergara. Garbiketak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 688 65 10 22

Debagoiena. 56 urteko emakume euskalduna, geriatria laguntzaile tituluduna eskarmentuduna, orduka nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Nati. 676 78 22 35

Debagoiena. 56 urteko emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxe zein lantegien garbiketan zein tailerrean. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Arratsaldez edo orduka nagusiak zaintzen eta garbitasunean lan egingo nuke. Asteburuetan, etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 05 30 57

Debagoiena. Dendari, sukalde laguntzaile edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta lege paperak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 83 58 20

Debagoiena. Erizain laguntzailea lanerako gertu: nagusiak paseoan lagundu, janaria prestatu, konpainia egin eta abar. Autoa daukat. 617 20 59 43 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Garbiketak egiten, nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia daukat. Tabernak garbitzen ere bai. 666 92 49 27 (Sarina)

Debagoiena. Gizona lan bila, orduka nagusiak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. 602 07 12 06

Debagoiena. Haur hezkuntzako ikasle euskalduna goizetan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 11 01

Debagoiena. Mutila etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edota sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Espoloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Masterreka 70 m², 3 logela. Igogailua eta trastelekuarekin. 130.000 €.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoo eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Martoko 140m2, 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60m2, 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115m2, 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m2. 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691 16 96 43

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila orduka zaintza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 35 81

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Ingrid. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 14 82 61

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egingo nituzke, orduka edo jardun osoz. Sukalde laguntzaile eta zerbitzari ere bai. Nahiago dut Arrasaten bada. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 31 06 20

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko, etxeko lanak egin, garbiketak eta abarretan aritzeko gertu nago. Sukalde laguntzaile ere bai. Josten, brodatzen eta arropak egiten ere badakit. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 10 76 99

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo etxe, taberna eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Baita orduka ere. 606 64 16 09

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ez daukat gidabaimenik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 83 37 23

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 45 28

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten zein sukaldean pintxo eta abarrak gertatzen lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 20 00 86

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Garbiketak, umeak eta nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 35 81

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Orduka edo egunez, baina etxean bertan bizi barik. 717 15 01 69

Debagoiena. Neska arduratsua, sukaldaritza eta geriatria oinarrizko ikasketaduna, lanerako gertu. Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke, etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. 615 06 28 04

Debagoiena. Neska asteburuetan nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko gertu. 674 53 60 59

Debagoiena. Neska euskalduna lanerako gertu: etxeko lanak, nagusiak zaindu, gaua pasatu ospitalean eta abar. Esperientzia eta informeak ditut. Autoa ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abarretarako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 40 92 67

Debagoiena. Neska lan bila sukaldean, zerbitzari, zaintza lanetan etxean bizi izaten, orduka edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 11 15 14

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta atari eta abarren garbiketan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 29 11 23

Debagoiena. Neska nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko, etxeko lanak egin, garbiketak eta abarretan aritzeko gertu. Sukalde laguntzaile ere bai. 699 66 33 63

Debagoiena. Neska prest lan egiteko. Geriatriako ikasketak ditut. Ospitalean gaua pasatu edo etxean bertan gaixoak zaintzen. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke, 10:00ak eta 16:00ak artean, garbiketan edo nagusiak zaintzen. Lan baimena eta lege agiriak dauzkat. 677 39 70 48

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauetan. Ana. 695 96 98 74

Debagoiena. Pertsonak zaintzen, garbiketan edota sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Hotelak garbitzen lan egindakoa naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

Debagoiena. Urte askoan nagusiak zaintzen aritutako neska lanerako gertu. 631 88 01 58 (Marlene)

Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Emakume euskalduna goizetan orduka etxeko lanak egiteko gertu. 688 81 61 79 edo 943 77 00 26

Lan bila. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko prest; adineko jendea zaindu, sukaldeko laguntzaile, zerbitzari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 73 25 35

Oñati. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest: orduka, asteburutan, egun osoz, gauez edota egun soltetan. Ikasketak eta urtetako esperientzia. 651 70 85 13

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan arituta koa. 666 83 21 95

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Etxean eskola partikularrak jaso nahi ditut. Lehen Hezkuntzako 6.maila. 629 62 60 15

Kontabilitatea. Goi mailako ikasketak egiten ari den ikasle batek kontabilitateko laguntza eskolak jasoko lituzke. 688 63 68 43

Marrazketa eta materialak. Goi mailako Mekatronika ikasketak egiten dabilen ikasle batek marrazketan eta "materialak" arloetan laguntza jasoko luke. 696 14 88 95

Marrazketa teknikoa. Batxilergoko lehenengo mailako marrazketa teknikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 87 24 54

502. EMAN

Eskoriatza eta Aretxabaleta. Lehen Hezkuntzako edozein gaitako eskola partikularrak ematen ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 77 35 83

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Abuztuan jaiotako katakumeak eta katu helduak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 09 63 46

8. DENETARIK

801. SALDU

Logelako altzariak. Estilo klasikoko logelarako altzariak salgai. Sei ateko armairua (lau, ispiluekin), bikote arendako ohea, gau-mahaiak, komoda, eta ispilu bat. Egoera oso onean. Prezioa negoziatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 93 98 76

802. EROSI

Mendirako eskiak. Mendiko eskiak erosiko nituzke. Baita botak ere. Saltzeko asmoa izanez gero, deitu hurrengo telefonora: 675 70 58 54

803. EMAN

Izozkailua. Izozkailua ematen da opari. 943 79 99 87

Telebista. Telebista ematen da opari. 943 79 99 87

805. TRUKATU

Hizkuntza truke. Nik frantsesa erakutsiko nizuke, modu praktikoan, eta trukean ingelesa ikasi gura nuke.630 05 91 98

806. GALDU

Belarritakoa Bergaran. Urriaren 24an, ostirala, belarritako bat galdu zitzaidan. Aro bat da, bi zentimetro ingurukoa, eta brillanteak dauzka. Balio sentimental handia dauka. Norbaitek aurkituko balu eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. Eskerrik asko. 660 64 95 50

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Elgoibar joan etorria. Arrasatetik Elgoibarrera eta alderantziz joaten naiz autoan egunero, autobidetik. Arratsaldez sartzen naiz eta iluntzean Arrasatera bueltan. Norbait interesatuta balego eta gure ordutegiek bat egingo balute, gastuak partekatzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu 600 77 05 56 telefonora.

Leioara autoz. Leioako kanpusera Arrasatetik autoz, eta arratsaldez, joaten garen bi lagun gara. Autoa konpartitzeko interesa duenak zenbaki honetara dei dezake: 696 44 43 99

Oñati-Lasarte joan-etorria. Astelehenetik ostiralera Oñati-Lasarte, edo inguruko herriren batera, joan-etorria egiten baduzu, bidaia-gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsaldez bueltatzen naiz. Interesatuta bazaude, deitu telefono -zenbaki honetara. Eskerrik asko. Deitu telefono zenbaki honetara: 663 33 95 69

ETXEKO SUKALDERAINO

Haritz Gallastegi | Irrati esataria

- Ez da sukaldearen oso lagun; bai, ordea, bertatik irteten denarena
- Pertsona normal baina burugogor moduan definitzen du bere burua

"Goi mailako kirolari izatearekin amets egiten nuen txikitan"

ANDER LARRAÑAGA | ELGETA

Haritz Gallastegi elgetarra kazetaria da, eta, hura baino gehiago, bere ahotsa da ezaguna: izan ere, Euskadi Irratian jarduten du esatari lanetan, Athleticeko partiduak ematen. Horrez gain, aipatzekoa da *Berria* egunkarian kirol-albisteak eta elkarrizketak idazten dituela.

Zelakoa da Haritz Gallastegi?

Pertsona normala naiz. Dagoeneko gazte ohia. Burugogorra oso. Ez dakit gauza onik daukadan.

Zein harreman daukazu sukaldearekin?

Egia esan, sekula ez da inolako *feeling* berezirik egon gu bion artean. Hori bai, handik irteten den ia guztia dut gustuko. Bestalde, sukaldarien lana inork gutxik bezala eskertzen dut. Platera garbi-garbi laga arte, hain zuzen ere.

Zein da zure espezialitatea?

Nire berezitasuna da ez daukadala espezialitaterik. Atera kontuak...

Non eta zertara gonbidatuko zenuke lagunik onena?

Lagunik onena baino gehiago, egunero ni aguantatzen nautenak gonbidatuko nituzke; kostako herriren batera, agian, arrain goxo bat jatera.

Eta etsairik handiena?

Etsairik handiena ere kostara eramango nuke, baina, hori bai, hark ordaindu beharko luke, noski.

Zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Egia esango didan pisu handiko edozein politikarirekin konpartituko nuke mahaia. Eta Nicolas gaztearekin ere bai. Artista!

Zergatik kazetari?

Kirolarekin lotura izateko bide bat zelako, batez ere.

Kazetari ez bazina...

Goi mailako kirolari izatearekin amets egiten nuen txikitan, baina onartu beharra daukat ez nintzela ondo moldatzen baloiekin eta pilotekin.

Zein miresten duzu kazetaritzan?

Notiziarik asmatzen ez duten guztiak. Eta baldintza oso kaxkarretan euren lana bikain aurrera ateratzen duten kazetari guztiak.

Zein izan da, zuretako, esatari egin duzun Athleticen futbol partidurik onena?

2009. urteko Kopako finalaurrekoa: gogoan dut San Mamesen 3-0 hartu zuela mendean Athleticek Sevilla. Finalerako txartela zegoen jokoan. Ikaragarria izan zen.

Zein partidutan arituko zinateke gustura esatari lanak egiten?

Athleticek irabazten duen edozein finaletan. Orain arte hiru egin ditut eta hirurak galdu ditu talde bilbotarrak. Akaso, ni izango naiz erruduna...

Zer duzu maite bizimodu honetan?

Gauza normalak: semaren irribarrea, lagunekin kafea hartzea...

Bizimodu honetan ezinbestekoa da zuretako...

Haritz Gallastegi, jaioterrian, Elgetan, Andra Mari plazan. | ANDER LARRAÑAGA

"2009ko Kopako finalaurrekoa dut gogoan; ikaragarria izan zen"

Osasuna.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Ez naiz esna nagoen bitartean amets egitearen oso zale.

Zure bizitzako anekdota bat.

Behin, Arrasaten ogia erosten ari nintzela, dendako saltzaileak Elgetakoa ote nintzen galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion, eta ea nola asmatu zuen galdetu nionean hauxe izan zen haren erantzuna: "Euskadi Irratian Athleticen partiduak kontatzen dituen mutilak bezala egiten duzu berba".

Damu zara...

Ez naiz aparteko ezeren damu.

Zer errepikatuko zenuke?

Egin dudan ia guztia.

Zerk beldurtzen zaitu?

Gauza askok.

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Semeak tripa gainera salto. Ederra benetan!

Nora ospa egingo zenuke gustura?

Konpainia onarekin bada, niretako edozein leku da aproposa ospa egiteko.

Ze esaldi konpartituko zenuke?

Ez eskatu ingurukoei norberak egiten ez duen ezer egiteko. Ez da erraza betetzea.

AUKERAN...

M.A.

Lehen platera: Entsalada bereziren bat.

Bigarrena: Erreboiloa (rodaballoa).

Postrea: Txokolatea duen edozein postre.

Edatekoa: Ura.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

KORDOBAKO SALMOREJOA

Gaur proposatu behar dizuedan errezeta historia egiten duen horietakoa da, jende gehienak benetan gustuko duelako.

Lehen platera edo saltsa

Salmorejoa lehen plater moduan ateratzen da gehienetan. Eta Kordobako sukaldaritza tradizionalean du jatorria. Bestelako osagaien artean, salmorejoa egiteko ogi mamia erabiltzeak ematen dio bukaeran hartzen duen pure edo saltsa itxura. Eta ohitura da, neuk gaur proposatuko dizuedan moduan, gainetik hainbat jakiren zatitxoekin ateratzea. Dena den, likido geratzen denez, zenbait kasutan, bestelako plater batzuen lagungarri ere erabiltzen da, haiendako saltsa moduan.

Bestalde, errezetarako erabiltzen diren osagaiei esker, nahiko errezeta ekonomikoa dela esan genezake.

Salmorejoaren jatorria XIX. mendean hasi eta XX. mendearen hasierara luzatzen da, orduantxe gehitu zioten-eta azkeneko osagaia: tomatea.

Lehen esandako moduan, jatorria Andaluzian du, eta errezeta umiltzat hartuta zegoen, gainera. Baina apurka-apurka errezetak Andaluziako mugak gainditu egin zituen, XX. mendearen erdialde inguruan, batez ere.

Salmorejoa katiluan, arrautza egosi eta urdaiazpiko zatiak dituela. | THE COOK ROCKER

Fitxa

- Denbora: 50 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★☆

OSAGAIAK

- Ondo heldutako tomateak, 700 g.
- Oliba-olio birjina estra, 100 g.
- Ogi mamia, 120 g.
- Berakatz buru bat.
- Urdaiazpiko iberikoa (50 g) eta 2 arrautza egosi.

Prestaketa

1. Urdaiazpiko iberikoa eta egositako arrautzen zuringoa eta gorringoa fin-fin zatitu behar dira. Hori egin ostean, hozkailuan gordeko ditugu, hoztu daitezen. Gero, emaitza dekoratzeko erabiliko ditugu horiek osagaiok.

2. Ura irakiten jarri kazolara batean, eta borborka hasten denean, tomateak sartu, osorik, baina minutu erdiz bakarrik izen behar dira uretan. Berehala atera behar dira gero, eta ur hotzez eta izotzez betetako katilu batean sartu behar dira, borborra gerarazteko. Hori eginez gero, askoz ere errazagoa da tomateei gero azala kentzea.

3. Zuritutako tomateak irabiagailuaren edalontzian sartuko ditugu, olioarekin, ogirekin, berakatz buru gordinarekin, ozpinarekin eta gatz apur batekin batera. Irabiatu guztia, osagai guztiak pure eran geratu arte. Probatzen joango gara, gatza, ozpina, olioa... norberaren gustura geratu arte.

4. Salmorejoa hozkailuan gordeko dugu, ondo hoztu arte. Eta ateratzeko orduan, katilutxoetan jarriko dugu, urdaiazpikoa eta arrautza gainetik zatituta botata. Asko gustatuko zaizue, koilararekin jateko, ogiarekin jateko, galeper-arrautzatxoekin...

Urteurren ospakizunetarako erabili duten irudietako bat. | FIREFOX

Firefoxek 10. urteurrena ospatu du bi bertsio berezi eskuragarri jarrita

Pribatutasuna ikur bihurtu duen nabigatzaileak asmo berriak iragarri ditu

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Internet garaikidearen nabigatzaileen artean zaharrenetakoa da Firefox, Mozilla Fundazioarena. 2004ko azaroan abiatu zuten lehen aldiz eta alternatiba libreen artean popularrena bilakatu zen berehala. Gaur egungo nabigatzaileen moldagarritasuna eta gehigarriak eransteko aukera, hein handi baten, bere garaian Firefoxek ekarritako berrikuntzei zor zaie. Horri eutsi guran, nabigatzailearen bi bertsio berezi jarri dituzte eskura, urteurrenaren ospakizun moduan.

Pribatutasunaren ardura

Joan den astelehenean, pribatutasunari lotutako berrikuntzak zekartzan bertsioa kaleratu zuen Firefoxek. Hala, erabiltzaileen datuak ez gordetzeko kontu berezia duen DuckDuckGo bilatzailea gehitu du bilaketa aukeretara. *Forget* delako nabigazio aukera berria ere badakar urteurreneko bertsioak. Modalitate horretan, nabigatzaileak duela gutxiko historia ezabatzen du, automatikoki, erabiltzaileak ezartzen duen denbora tartean.

Pribatutasunarekin lotuta, *Polaris* ekimenean lanean dihardutela ere iragarri dute Mozillatik. Tor proiektuarekin bat egin eta erabiltzailearentzako pribatutasun tresnen garapenean bete-betean sartu da Firefox. Independentzia eta pribatutasunaren errespetua ikur egin ditu joaniko hamar urteetan Firefoxek eta ematen du aurrerantzean ere etorkizuneko lan-ildo nagusia horixe izango dela.

Garatzaileentzako bertsio berria da bestea: Firefox Developer Edition. Tresna eta aukera bereziekin dator bigarren hori eta aukera ematen du profil berezituen bidez bertsio arruntarekin eta bereziarekin, aldi berean, lan egiteko. Egitasmoekin bat egin eta nabigatzailea ezagutzera emateko atxikipen kanpaina ere abiatu dute, deskarga webgunetik.

Milatik gora dira jada '.eus' domeinuarekin egindako izendapenak

Zabalkunde betean segitzen du euskal *.eus* domeinuak eta datorren abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, *1.000.eus topa* ospakizuna egingo dute. Izan ere, indarrean den abiarazte aldia delako fasean jada 1.000 domeinutik gora erregistratu dituzte. Abendu hasieran fase irekia abiatuko du Fundazioak.

Hasi du Androidek Lillipopen eguneraketa, Nexusetatik lehenengo

Etxeko modeloetatik hasi eta Google jada badabil Nexus gamako gailuetan sistema eragilea eguneratzen; zehazki, Nexus 4, 5, 7 eta 10 modeloetan. Horiekin hasi eta, modu mailakatuan, Android 5.0 Lollipop sistema eragilea eskuragarri egongo da eguneraketa har dezaketen telefono eta tableta guztientzat.

Whatsappen ikur salatari urdina ezkutatzeko aplikazioa sortu dute

J.B. | ARRASATE

Ika-mika piztu bezain laster konponbideak ere azaleratu dira, garatzaileek ez dute-eta itxaron. Mezua irakurria izan dela jakinarazteko ikur bikoitz urdina ezkutatzeko aplikazioa kalean da jada. *Shh* aplikazioak ikur salataria ezkutatu egiten du eta hartzaileek ezin dute ikusi. Androiderako dago soilik eskuragarri eta aplikazioak egiten duena da Whatsappeko mezuak ezkutuan irakurri. Hau da, erabiltzaileak *Shh*-en bitartez ikus ditzake mezuen jakinarazpenak, baina Whatsapp aplikazioa ireki barik. Hala, mezua irakurri egin daiteke, baina Whatsapp aplikazioa, modu baten esatearren, ez da jabetzen.

Facebook orain atzera

Erabiltzaile askoren artean ezinegona sortu du Whatsappen azken berrikuntza horrek eta askok pribatutasunari zuzenean eraso egiten diola adierazi dute. Facebook ez da entzungor eta dagoeneko irtenbide baten lanean dabiltzala iragarri dute. Azaldu dutenez, hurrengo eguneraketan ikur urdinen jakinarazpena desgaitzeko aukera egongo da eta, horrenbestez, erabiltzailearen esku geratuko da erabili edo ez.



Aplikazioaren pantaila irudi bi. | GOOGLE

BITELIA

PC bat muntatzen ikasteko kita, umeentzat

Kano 7 urtetik gorako neska-mutikoendako jolas kit bat da, ordenagailu bat goitik behera muntatzen ikasteko piezak eman eta programazioa erakusten diena. Kanok bere sistema eragile propioa dauka eta txikienetan bereziki pentsatutako software eta hardwarea dakar. Ordenagailua muntatzeaz gain, jolasen bidez programazioan lehen urratsak egiten hasteko aplikazioak ere badauzka horrek. Sorta osoa dagoeneko salgai jarri dute 149 dolarreko prezioan.



TWITTER

872 emotikono berri, nahieran eta edonon erabiltzeko

Emotikonoen zaleek aurrerantzean aplikazioetan erabiltzeko 872 ikono berri izango dituzte, Twitterrek bereak askatu egin ditu-eta. Sare sozialak emotikonoen kodea eskuragarri ipini du eta, adibidez, mezularitza aplikazioetan erabiltzeko gertu daude, baita WordPress blogen plataforman ere. *Open source* kodea jarri dute sarean eta erabiltzaileek instalatu egin ditzakete irudi berriak. Bada, instalaziorako azalpenak *ttiki.com/90283* helbidean daude.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Printzesak 41 urte bete ditu

Letiziak ez, Belen Estebanek!

Duela 15 urte ezagutu genuen herriaren printzesa delakoa. Garai hartan toreroen atzetik ibiltzen zen *groupie* bat besterik ez zen, baina apurka apurka eta ohez ohe ibili ostean Mediaset inperioko ezinbesteko aurpegi horietako bat bihurtu da.

Bere karrera liburu artean baino izara artean egin du, eta berdekeriak amaitu zaizkionean aurpegiarekin jolasten hasi da. Beti bezala *low cost* zirujauen eskuetan laga du bere aurpegitxo telebisiboa, eta egun, bi sudurzuloak ere ez dira berdinak. Hala ere, lotsa etxean utzi, eta egunero ibilitzen da garraxika *Telecirco*-ko *Salvame*-n.

Bere arrakastaren ondoren beste *gruopie* batzuk ere agertu dira, baina ez dute arrakasta bera lortu. Dirudienez, Carabancheleko printzesa originala izateaz gain, xarma berezi bat dauka.

15 urte horietako ibilbidearen errepasoa egiten badu damutuko ote da? Eta zer dio oilaskoa gehiegi gustatzen ez zaion Andreita gaixoak bere amari buruz?

Ziur dirutza egin duela bere bizitzako pasarteak saltzen, baina nire miseriak momentuz, ez daude salgai.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 17

'Harmailatik'

Futbolean jokatutako Aretxabaleta eta Mondraren arteko derbiaren laburpena eskainiko da. | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Ertzak
13:25 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Kulturrizketak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harira
17:30 Ertzak
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Kulturrizketak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Kulturrizketak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 18

Ortuzabala

Oñatiko Ortuzabala kontsumo taldeak Murgiako lurretan nola lan egiten duen ikusi ahal izango da. | **20:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Erreportajea
13:25 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Amaia DJ
17:30 Erreportajea
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Idemtitateak
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUAZTENA, 19

'Gipuzkoa Pedalka'

Azkoititik Oñatira arteko bidea egingo du bizikletaz Julen Iriondo kazetariak saioaren azken atalean. | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harriblock
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Erreportajea
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harmailatik
17:30 Kontzertua
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Harira
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Gipuzkoa Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harira
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 20

'Amaia DJ'

Gazteek egindako kantu eskariekin osatutako bideoklipen saioaren atal berria eskainiko da. | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Gipuzkoa Pedalka
13:00 Idemtitateak
13:30 Ur eta lur
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bertso saioa
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harira
17:30 Kontzertua
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Erreportajea
19:30 Gipuzkoa Pedalka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gipuzkoa Pedalka
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUBAKOITZA, 21

Moda kontuak

Debagoiena zuzenean saioan moda kontuak izango dira berbeta gai Txomin Madinaren gidaritzapean. | **20:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Kontzertua
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Gipuzkoa pedalka
17:30 Ertzak
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Ur eta lur
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Kulturrizketak
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Gramones taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko dira

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, eguenean Gramones taldeak eskainiko du kontzertua Arrasateko gaztetxean 22:00etan. Bertara joateko sarrerak lortzeko idatzi *irratia@goiena.com* helbidera edo bestela deitu 943 25 05 05 telefonora. Hartu parte zozketan eta zorte on!

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirako sarrerak

Eskoriatzako kiroldegian zapatuan eskainiko dute 17:30ean *Txo, mikmak txikia* ikuskizuna Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. Bertara joateko sarrerak zozketatuko dira irratian eta parte hartzeko 943 25 05 05 telefonora deitu edo *irratia@goiena.com*-era idatzi beharko da.

Zarzuelari buruzko elkarrizketa protagonistekin, gaur

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko Bittor Kortabarria eta Jose Luis Galdos izango dira gaur, astelehena, Arrasate Irratian 11:00etan zarzuelari buruz hizketan. *La rosa del azafrán* antzeztuko dute eta horri buruz hitz egingo dute. Egubakoitzean zarzuelarako sarrerak ere zozketatuko dira Arrasate Irratian.

TELE-ALBISTEAK

Arrasaten euskararen erabilera bultzatzeko, lehiaketa berria eskainiko da telebistan

Facebook bitartez parte hartuta, 100 euro irabazteko aukera ere izango da

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Arrasateko euskalgintzak eta Udalak antolatutako *Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik* kanpainari jarraipena emateko, lehiaketa bat jarri dute martxan herriko kaleetan eta erosketa bonoak banatuko dira lehiakideen artean.

Parte-hartzaileek 40 euro bonotan irabazteko aukera izango dute; lehiaketaren lehen zatian 10 eurotako bonoa irabaz dezakete galderari erantzun egokia emanez gero, eta 30 eurotako bonoa irabazi ahal izango dute ondoren egin beharko den proba gainditzen badute. Bonoak Ibaiarteko dendetan gastatzeko dira.

Lehiaketa Goiena telebistan ikusi ahal izango da eguaztenetako *Debagoiena zuzenean* saioan

Imanol Gallego aurkezlea lehiakide batekin saioko proba batean. | MIREIA LARRAÑAGA

(20:00. 21:00 eta 22:30). Horrez gain, ikus-entzule eta irakurleek 100 euroko bonoak irabazteko aukera ere izango dute *www.facebook.com/badagogauzazailagorik* helbidean sartu eta lehiakideek proba gaindituko duten ala ez erantzuten badute.

Gipuzkoako diputatu nagusi Martin Garitano izango da 'Harira' saioan

Foru Aldundiak 2015erako aurkeztu duen aurrekontu proposamenari buruz hitz egingo du

A.T. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015erako aurrekontu proposamena aurkeztu duen honetan, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiaren azalpenak ikusi eta entzun ahal izango dira Goiena telebistan bihar, martitzena, *Harira* saioan 22:00etatik aurrera.

Aurrekontu proposamena

Inbertsioak; gizarte gaiei bideratutako zifrak; ogasuna; mugikortasuna; errepideak; hiri hondakinak... Gai horiei guztiei buruz jarduteko aukera izango du diputatu nagusiak. Horrez gain, aurrekontua zeinekin negoziatuko duen ere galdetuko dio Eneko Azkarate aurkezleak saioan.

Martin Garitano. | ENEKO AZKARATE

Aurrekontu proposamenari buruzko xehetasunak eman ostean, bestelako kontuak ere izango ditu berbeta gai ahaldun nagusi bergararrak, Eneko Azkarateren saioan martitzenean 22:00etan.

ZORION AGURRAK

BERGARA
Sara Taboada
Azaroaren 23an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Bi urte! Ze azkar pasatzen den denbora. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo-potolo asko, bereziki, Eleneren partetik.

OÑATI
Ibai Buquete
Azaroaren 21ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun, zure seigarren urtebetetzean! Etxekoen, eta bereziki Aneren partetik, ondo pasatu eguna eta primeran ospatu. Mila muxu potolo!

OÑATI
Iker Isasti Arkauz
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.

ARRASATE
Malen Altube Sedano
Azaroaren 17an, 10 urte. Zorionak eta egun zoragarria pasa dezazula. Aitaren, amaren eta Alaitzen partetik.

BERGARA
Manex Balentziaga
Azaroaren 16an, 8 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu, *guapo*! Etxekuen partetik! Jarraitxu holakua izaten! Muxuak.

OÑATI
Urko Egaña Calderon
Azaroaren 10ean, 35 urte. Zorionak Unaxen, Izarren eta Ainhoaren partetik. Ondo pasatu eta muxu asko.

OÑATI
Zihara Rubio Markuleta
Azaroaren 16an, 8 urte. Zorionak, *prexioxa*, familia danaren partetik. Muxu handi bat eta ondo ospatu eguna. Zorionak!

BERGARA
Oier Aranes Albisua
Azaroaren 15ean, 9 urte. Zorionak Oier, Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
Kepa Lopez Lasa
Azaroaren 15ean, 9 urte. Familia eta maite zaitugun guztien partetik, zorionak, Kepa! Primeran ospatuko dugu zure eguna denok elkarturik.

ARRASATE
Goiatz eta Maddi Belategi Galdos
Azaroaren 15ean, 4 urte. Heldu da esperotako eguna! Primeran pasatu familia eta lagun artean eta jaso ezazue besarkada erraldoi bat guztion partetik. Segi beti bezain alai!

OÑATI
Maren Etxezarreta
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, neskato! Ondo pasatu zure egunian eta jaso patxo potolo bat etxekuan eta, batez be Eleneren, Danelen eta Unairen partetik.

BERGARA
Maren Leston Ezenarro
Azaroaren 15ean, 9 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Bederatzi muxu potolo etxekoen eta, bereziki, Oihanen partetik.

OÑATI
Lier Esnaola Osinaga
Azaroaren 13an, 5 urte. Zorionak, artista! Azkenean heldu da zure eguna. Ondo-ondo pasatu. Patxo potolo bat.

OÑATI
Danel Diaz de Gereñu
Azaroaren 13an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenian heldu da zure eguna. Lau urte. Oso ondo pasatu! Muxu potolo bana etxekoen eta, bereziki, Garaziren partetik.

OÑATI
Ainhize Arregi Baseta
Azaroaren 13an, 4 urte. Zorionak, maitia! Egun ederra pasatu eta jarraitu beti bezain alai eta kalanbre! Muxuak etxeko danon baina, bereziki, neba Ekhiren, amatxoren eta aitatxoren partetik. Mua!

BERGARAELGETA
Unax Agirre Osa eta amona Mila
Azaroaren 13an. Zorionak, bikote! Familixa danaren partetik ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna eta mosu handi bana. Txokolatezko pastel handi batekin danok Elgetan elkartuta ospatuko dogu.

ARRASATE
Maren Alonso Lopez
Azaroaren 13an, 8 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu eguna, printzesa. Ederto ospatuko dugu egun berezi hau. Muxutxuek denon partetik! Maite zaitugu, poxpolin!

OÑATI
Beñat Biain Zulueta
Azaroaren 13an, 13 urte. Zorionak, Beñ;at. Hamahiruan hamahiru! Ondo ospatu zure eguna etxekuekin. Muxu handi bat Nahiaren, Danelen, Ireneren eta Iñigoren partetik.

ARRASATE
Amalur Arizabaleta Rodriguez
Azaroaren 12an, 11 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik. Oso ondo pasatu zeure egunian!

OÑATI
Keltse eta Kemen
Azaroaren 11n, 5 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo ospatu zuen eguna!

OÑATI
Ane Miren Arroyo
Azaroaren 11n, 8 urte. Zorionak etxeko txikitxuari! Gaur zortzi urte beteta, oso ondo pasatu zure eguna. Patxo pila bat!

OÑATI
Ekaitz Yarza Urrestarazu
Azaroaren 11n, 6 urte. Zorionak, Ekaitz! Jada sei urte. Ibaitxoren eta familiako denen partetik, muxu handi bat. Ondo pasatu zure eguna, maittia!

OÑATI
Eneko Bengoa Igartua
Azaroaren 11n, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun, familixa danaren partetik! Patxo potolo bat!

ARRASATE
Oier eta Iraia Berasaluze
Azaroaren 10ean, 3 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi-handi bat etxekoen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.eus* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

OROIGARRIA

Jul Bolinaga Etxebarria

Goienako kolaboratzailea eta
Danbaka lehiaketako epaimahaiko kidea

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Arrasaten, 2014ko azaroaren 17an.

HILETA

Jul

Condenados-ekin eman diguzu agurra. Zerbeza artean, olatu gainean eta aire bolada tartean elkarrekin egongo gara beti.

—

Agurra, Monterronen, 2014ko azaroaren 18an, arratsaldeko 18:00etan

Arrasateko Lagunak.
Arrasaten, 2014ko azaroaren 17an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

JAIOTAKOAK

Nayara Alcaide Bermudez

Bergara. 2,500 Kilo. Azaroaren 13a. Gurasoak: Yuleimi eta Jose Luis. Argazkian, Nayara, aitarekin.

Markel Olaziregi Nafarrate

Aramaio. 3,200 Kilo. Azaroaren 12a. Gurasoak: Maddlen eta Jon. Argazkian, Markel, amaren besoetan.

Paule Iztueta Etxenausia

Zerain. 3,550 Kilo. Azaroaren 12a. Gurasoak: Ainara eta Andoitz. Argazkian, Paule gurasoekin.

Beñat Akizu Zabala

Aretxabaleta. Azaroak 11. 3,300 Kilo. Gurasoak: Lorea eta Iker. Argazkian, Beñat jaioberria, adi-adi.

Unai Vicente de la Hoz

Arrasate. 3,060 Kilo. Azaroaren 11. Gurasoak: Laura eta Julen. Argazkian, Unai gurasoekin.

Irati Barrena Korkostegi

Oñati. 4,330 Kilo. Azaroaren 8a. Gurasoak: Aintziñe eta Imanol. Argazkian, Irati, aitona Migelekin eta izeba M. Angelesekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora
edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Txita baten moduan, goxo-goxo egoteko

Sofa bat? Ohe bat? Ez dago oso argi argazkiko altzaria zer den, baina leku erosoa izateko itxura, behintzat, badu
www.nopuedocreer.com

ASTEKO DATUA

157

MILIOI EURO

Diru kopuru hori ordaindu beharko du Estatu Batuetako etxerik garestiena ordaindu gura duenak. Palazzo di Amore du izena, Beverly Hillsen dago, eta besteak beste, mahasti bat ere badu. Eraikin nagusiak, hamabi logela eta 23 bainugela ditu.
www.elpais.com

EGURALDIA

Max. 13º
Min. 7º

Zaparradak bota ditzake eta ekaitzak garatu litezke. Iluntzean atertzera egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2014-11-17

HAMARREKOA

Pascal Gaigne Ia 80 pelikula, film labur eta dokumentaletan entzun dezakegu Frantzian jaiotako konpositorearen musika; 'Lasa eta Zabala' eta 'Loreak' hark jantzi ditu musikarekin | TXOMIN MADINA

"Zinemarako konposatzea nahiko gauza intuitiboa da"

1. Ez dira nolanahikoak musika jarri diezun azken pelikulak!
Bereziak izan dira. *Lasa eta Zabala*, besteak beste, garai hartan Baionan bizi nintzelako eta, gertakariak gertutik bizi izan nituelako. *Loreak*, bestalde, oso estetika partikularra duenez, lengoaia musikal propioa bilatu behar niolako.

2. Zer egiten duzu lehenengo soinu banda bat konposatzeko?
Prozesu luze samarra da. Zuzendariak zer gura duen jakin behar da konposatzen hasi aurretik. Gero, aurre muntaia batekin hasten naiz lanean. Zinemarako konposatzea nahiko gauza intuitiboa da.

3. Pelikula baten onena musika dela esatean, pelikula txarra da?
Ez da horrenbesterako; ikusleak musikarekiko duen sentsibilitatearen araberakoa ere bada. Garrantzitsuena da musika diskurtso narratiboaren parte izatea.

4. Zein zuzendarirekin konpondu zara ondoen?
Hainbat daude. Baina unearen araberakoa ere bada. Gertatu zait, baita ere, zuzendari batekin pelikula batekin oso ondo eroatea eta hurrengoan ez; eta alderantziz.

5. Finlandiako pelikulei ere jarri diezu musika.
Rax Rinnekangas zuzendariarekin dira denak. *El sol de membrillo*-n egindako lanagatik ezagutu ninduen, deitu egin zidan, eta ordutik ia urtero egin dugu lan batera. Askatasun handia ematen dit.

AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Politikan garbiketa handia egingo nuke; ustelkerian-eta maila ikaragarrira heldu gara eta herritarrek ez dute merezi"

6. Komedia gutxitan entzun zaitugu.
Daniel Sanchez-Arevaloren *Azuloscurocasinegro*-k eta *Gordos*-ek komedia ukitu bat dute, baina bai, gutxi egin ditut. Film baten funtzionatuz gero, antzekoetarako deitzen dute. Baina ni prest nago.

7. Musikan zure jarduna ez da mugatzen soinu bandetara, ezta?
Zineman, norbaitentzat lan egin da, ez dago %100eko askatasunik. Gustatzen zait kontzertuetarako musika eta musika garaikidea egitea; libreago sentitzen naiz.

8. Zergatik ez zaizkizu gustatzen zuzeneko emanaldiak?
Lagunekin-eta jotzea bai, baina niri estudioko lana, grabatzea, gustatzen zait asko. Biran irtetea, furgonetan ibiltzea... Ez zait gustatzen. Ez naiz lasai sentitzen jendaurrean jotzen; lotsatia naiz oso.

9. Zergatik utzi zenituen Medikuntza ikasketak musikagatik?
Lehen ikasturtean azken azterketan huts egin eta uda lagun musikariekin pasa ostean, gurasoen atsekaberako, Paueko unibertsitatean hasi nintzen musikan. Mediku ona izango nintzateke; diote, gainera, musika arimarendako botika dela.

10. Frantzian jaiotakoa, ia 30 urte daroazu Donostian.
Oso goiz hasi nintzen hemengo abeslariekin jotzen, eta, azkenean, geratzea erabaki nuen. Hasiera gogorra izan zen, ez nituen eta euskara eta gaztelera hitz egiten.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE ZULAIKA

Kontuak, kontu...

Egunerokotasunean hainbat eta hainbat gertakizun ilunak bizitzen ari gara, baina tarteka, gertakizun eta albiste baikorrak ere jakin arazten digute. Adibidez: Bergarako Lazpiur enpresaren 100. urteurrena edo Eskoriatza, Arrasate eta Bergarako Fagor berriaren lantokietan ekoizpenaren hasiera, ekonomian, barne produktu gordinaren igoera. Baina albiste guztien artean, hezkuntzari buruzkoak azpimarratuko nituzke:

Japongo Nagoya hirian, Hezkuntza iraunkorra izeneko munduko konferentzian –UNESCOk antolatuta– Agenda 21 Euskal egitaraua bereizi zuten planetako 25 ekimen honenetakoen artean.

Europan, harritu egiten dira Euskal lanbide eskoletako ikasleak jasotzen duten trebakuntzarekin.

Mexikoko Queretaro estatuan, Mondragon-UCO unibertsitatea Urkullu lehendakariak inauguratu zuen.

Urkullu lehendakaria eta Alain Rousset, Akitania-Euskadi Euro-Lurralde campus bat sortzeko aliantzaren sinaduraren buru izango dira. Lehendakariak defenditu du Nafarroak eta Iparraldeak –gura izanez gero– campusaren parte izatea. Akordioa Bordelen sinatuko dute, hilaren 19an.